



Euskeraren Erri Akademia / Academia Popular de la Lengua Väsca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

# Euskerazaintza

LXXVIII Zenbakia • 2016. urtea-2

**Euskalerriaren  
edestia VI**

## Gure irakurleari:

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zenbakietan.**

## Gure kontuen zenbakiak onek dira:

**BBVA:** ES41-0182-1296-00-0201538669

**KUTXA:** ES80-2101-0200-46-0006681589

## EUSKERAZAINTZA

Euskeraren Erri-Akademia

Colón de Larreategi 14, 2<sup>a</sup> eskuma

48001 - BILBAO

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)

[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

Z. N. A. / C. I. F. G 20/127. 759

Eusko Jaurlaritzaren Elkartea Erroldan, 1136 zenbakia.

Erri Zuduzkotasunaren Aldarrikapena  
(BOE 45/1981 eta EE. AA. 96/1984)

I.S.B.N. : 1132- 1318

Legerako Gordetza: BI-1928-87

Diseinua eta inprimaketa: IBEGRAFIK  
[www.ibegrafik.com](http://www.ibegrafik.com)

Laguntzaille

 **Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

<i>Atarikoa</i> .....	7
-----------------------	---

## Euskalerrriaren Edestia

<b>1. ZATIA</b> .....	9
1. 3. <i>Euskalerrriaren edesti onetan, VIIn ataleko aurkezpena</i> .....	9
1. 4. <i>Sarrera</i> .....	14
1. 5. <i>Nafarroako IIIn Enrike</i> :.....	15
1. 6. <i>Ego-Nafarroa askatzeko gudan, Nafarroako IIIn Enrike ta Frantziko I Frantzisko erregeak baituta</i> .....	17
1. 7. <i>Ingalaterrako arazoan, VIIIIn Enrike eta Kalbino</i> .....	19
1. 8. <i>IIIIn Juanaren ezkontzazko arazoak, konpontzeko alegiñetan</i> .....	20
1. 9. <i>Frantziko errege I Franzisko</i> .....	21
1. 10. <i>I Franziskoren, atzerritarrezko guda</i> .....	22
1. 11. <i>Gaztelako I Karlos erregea</i> .....	24
1. 12. <i>I Karlosen azkuntza</i> .....	25
1. 13. <i>Ondorengo lez, I Karlosek artu ebazan izen-buruak</i> .....	26
1. 14. <i>Oar txiki bat emen</i> .....	30
1. 15. <i>Oar txiki bat emen</i> .....	32
1. 16. <i>I Karlosek euki ebazan borroka nagusiak Frantziako I Franziskoren aurka, Europan aita santuak euren buru gainetan dingilizka ipinten eban kaisartzazko domiña eroateagaitik zan</i> .....	33
1. 17. <i>Luteroen bidez, Gaztelanian agertu ziran erlijiozko arazoak</i> .....	34
1. 18. <i>Turkoen aurkako borrokak</i> .....	36
1. 19. <i>Indias edo Ameriketako lurak erri barriekaz kolonizetako, bertan jaiotako odoljariozko menperatzeak, I Karlosen denboran</i> .....	36
1. 21. <i>I Karlosek, bere ezkontzagaz euki ebazan alaba-semeak</i> .....	38
1. 22. <i>Eta ezkontzatik kanpo euki zituzen seme-alabak</i> .....	39
1. 23. <i>27.gn. Jauna, Bizkaiko Jauntzan</i> .....	39
1. 24. <i>Oar txiki bat emen</i> .....	41
<b>2. ZATIAN</b> .....	42
1. <i>IIIIn Juana, Nafarroako erregiña</i> .....	42
2. <i>IIIIn Juanaren ezkontza, eta izan ebazan alaba-semeak</i> .....	42
2. <i>IIIIn Juana Nafar-erregiñaren, erlijiozko gora berak</i> .....	43
2. <i>4. Lenengo erlijiozko guda</i> .....	44



2. 5. <i>III In Juana, maisu aundiakaz alkartuta, erlejioko askatasunaren alde.</i> .....	45
2. 6. <i>Erliziozko bigarren gudak.</i> .....	46
2. 7. <i>Erliziozko irugarren gudak</i> .....	46
2. 8. <i>Leizarraga´tar Joannes.</i> .....	47
2. 9. <i>III In Juana Nafar erregiñaren bizitza ostera artuta.</i> .....	48
2. 10. <i>Frantziko II In Enrike erregea.</i> .....	49
2. 12. <i>II In Enrikek, euki ebazan alaba- semeak.</i> .....	51
2. 13. <i>Frantziko II In Franzisko erregearen bizi kondaira.</i> .....	52
2. 14. <i>Frantziko IX In Karlos´ en bizi kondaira.</i> .....	53
2. 15. <i>III In Enrike, Frantziko erregea</i> .....	56
2. 16. <i>Frantziko III In Enrike, Poloniako errege lez</i> .....	57
2. 17. <i>III In Enrike, Frantziko errege lez.</i> .....	58
2. 18. <i>Nafarroako III In Enrike erregea.</i> .....	59
2. 19. <i>Nafarroako III In Enrike erregea, Frantziko IV In Enrike lez.</i> .....	61
2. 20. <i>Nafarroako III Ina eta Frantziko IV In Enrike onek, euki ebazan alaba semeak.</i> .....	65
2. 21. <i>Frantziko Iraultzaren ondorioz, erregeen gorputzak egin ebena.</i> .....	66
2. 22. <i>Gaztelako II In Felipe erregea.</i> .....	67
2. 23. <i>II In Felipe, Milaneko dukea</i> .....	67
2. 24. <i>II In Felipe, Napoleseko errege.</i> .....	68
2. 25. <i>II In Felipe, Ingalaterra ta Irlandako errege</i> .....	68
2. 26. <i>Gaztelako Igoa eta Alemaniako kaiserraren Vn Karlosek, bere seme II In Feliperi apur apurka, euki ebazan erregetzak jabetzak emoten</i> .....	69
2. 27. <i>Frantziren aurkako gudak.</i> .....	70
2. 28. <i>Gaztelako II In Felipe, Bealdeko Erriaren errege ta Borgoñako dukea izateko euki ebazan arazoak. Eta II In Felipe, Gaztela, Sizilia eta Indiaseko errege</i> .....	70
2. 29. <i>II In Felipek, bere Karlos semeagaz euki ebazan arazoak.</i> .....	73
2. 30. <i>1.568-1.571ko urte bitartean, Alpujarrasko matxintasuna.</i> .....	73
<i>Oar txiki bat emen.</i> .....	74
2. 31. <i>II In Felipe, Portugaleko errege lez.</i> .....	75
2. 32. <i>1.590-1.591ko urte bitartean, Aragoiko larri-une ta Perez´tar Antonio.</i> .....	78
2. 33. <i>Oar txiki bat emen.</i> .....	79

2. 34. <i>II In Feliperen edestia ostera artuta, izan ebazan alaba semeak</i> .....	80
2. 35. <i>II In Feliperen eriotza</i> .....	81
2. 36. <i>28garrengo Jauna, Bizkaiko Jauntzan</i> .....	81
2. 37. <i>III In Felipe, Gaztelako errege</i> .....	82
2. 38. <i>III In Felipek euki zituzen izen buruak</i> .....	82
2. 39. <i>III In Felipek euki ebazan alaba-semeak</i> .....	86
2. 40. <i>29garrengo Jauna, Bizkaiko Jauntzan</i> .....	87
2. 41. <i>IV n Felipe, Gaztela edo Espainiako errege</i> .....	88
2. 42. <i>1.621-1.643ko urte bitartean, Olibares duke-kondearen txanda</i> .....	89
2. 43. <i>Olibares eta errigizartearen ekandua</i> .....	90
2. 44. <i>Olibares eta Erri-Diruaren berrikuntza</i> .....	90
2. 45. <i>Olibares eta gudalozteen batzangotasuna</i> .....	91
2. 46. <i>Olibaresek, atzerritarrez erabili eban politikea</i> .....	91
2. 47. <i>IV n Felipek, izan ebazan alaba-semeak</i> .....	95
2. 49. <i>Oar txiki bat emen</i> .....	98

#### **Gure irakurleari:**

Azken zenbakian gure aldizkari au artzen dutenentzat eta adizkideentzat jarritako oar bat agertu zan, arpidendunai diru-laguntza eskatuz.

Batzuk arpidetza zenbat dan jakin nai dute eta gure erantzuna au da: “Len”, oraingoz ez degu arpide-saria zeaztuteko asmorik, al degun artean naiago dogu irakurleen gogo ona kontuan artu eta emaitza ematen digutenak “laguntzaille” taldera sartuko ditugula esaten da gendun.

**Gaur, diru kontuetan estutasunean sartuta gagoz, eta al dauanak gura geunke “urtero” 30 euro ordaintzea, bealdean aipatzen dogun gure kontuen zanbakietan.**

**Gure kontuen zanbakiak onek dira:**

**BBVA: ES41-0182-1296-00-0201538669**

**KUTXA: ES80-2101-0200-46-0006681589**



# Atarikoa 2016-2.

-Bazkal-orduan, bide-bidezkoa da, janari ona eskeintzea.

Janari onak, barriz, jenero ona, ondo eginda eta apain azaltzea, eskatzen dau.

Idazleak be, antzera agertu bear dautso idazgaia irakurleari: gai egokia, jakingarria ta ulertteraza.

-Baratza zaintza arloan, bearrezkoa da lur ona, emonkorra ta azi sanoa.

Sasi ta zikiñak obe da lenbaitlen erabat bastartzea.

Orren antzera, idazleak be, bere lana “baratza” biurtu bear leuke: berbak, esaldiak, esangureak eta abar, garbi, txukun, ta atse-gintsu jantzirik.

-Margolari onak, laiku bat margotzerakoan, gai deigarria auke-ratzen dau.

Orretarako esku trebe, begi zoli, ta buru argia euki bear ko ditu.

-Istoriazale ta historia-idazle benetakoek, orrelako joereagaz jokatatu bear leukie beti.

Eraikiñak, neurriz asi ta amaitu gure ba dabe, oiñarritik goraño ondo amaituz.

Eta bitarteko ostopoak erabat kenduz.

-Ementxe, begi aurrean dozuen “EUSKAL EDESTIA VI” deritxon idazlanak, esan lei, ederto betetan dauzela idazle jator baten legeak.

Bere irakurle ba zara, gozatu al izango dozu arloaren zear ikusiko dozun edertasunagaz.

Zorionak ATUTXATAR PAULO egilleari.

**Barroeta ta Amorrortu´tar Klaudiok**





# EUSKALERRIAREN EDESTIA VI.

## 1. ZATIA.

### 1. 3. *Euskalerrriaren edesti onetan, VIIn ataleko aurkezpena.*

Euskalerrriko edesti onen Vn atalean ikusi gendun, Aragoiko IIIn Juan bere bigarren emazte Enrikez´tar Juanagaz batera, Aragoiko IIIn Fernando katolikoa, euren semea, norneriaren guzur eta maltzurkerirako ondo irakatsi ebena, IIIn Julio Aita Santuaren laguntzagaz, *Nafarroako erregetzagaz geratu zala, Aita Santu onek, katolikotasunean aberrikotu gura ebazalako, Europak euki ebazan berezko erri guztiak.*

1.512ko urtean Uztaillaren 21ean eta Beaumontesaren, Bizkaitar, Arabatar, ta Gipuzkotarren laguntzarekin, Albako dukea Iruñako ateetan aurkeztuta, bertan emon etsoezala Uriaren aitona bildurrez beterik, eta ezeren borroka barik, Uriko giltzak.



*Armarri au, 1512urtetik aurrerakoa da*

*Lenengoetan IIIn Fernandok, Nafarroako erregetza Aragoiko erregetzan sartu gura ebalako, orregaitik ikusten dogu Nafar armarrria, Aragoiko makillakin erdibituta.*

*Kanpion´tar Arturok, garrantzi aundiko gauza bat esaten dau emen: Nafarroa, Fernando katolikuak menperatu ebala, aurpegia, erlijioan mozorrotutako azalkezagaz.*

*Eta Nafarroaren egizko menperatzaillea ez zala Albako dukea, IIIn Julio Aita Santua baiño.*

*Labur, labur, goazen ikustera zelangoak ziran erregetzazko antolamendu orreik, katolikotasunezko baldintzatan:*

*Erregetzaren ezean, Dukeak<sup>(1)</sup> izan ziran gorengo printze edo erregekumearen osetik, eta Kondeak ziran lurraldeen jaurlari edo gobernariak, Markesaren agintaritzatik be-maillakoak izan zirenak, eta Bizkonde edo kondearen ordezkokoak baiño goi-maillakoak.*

*Dana dala, buruzagiak izan ziran Erromatar Kaizar Sakratuaren bedeinkapenagaz orren antolamendutik etorten ziranak, gero erregearen ezean eurak lerrokada<sup>(2)</sup> orreitatik erregetzara igonda.*

*Zer ziran jaurkintzaren ardurazko aginpide orreik eleiztar bedeinkapen barik ?*

*Asieratik egon ziran atrapauta European sortu ziran erregetzak, I Konstatino eta gero godoen eskutik etorten ziralako, katolikotasunezko aberkidetzaren baldintzakin.*

*Bakarra izan zan Europa osoko demokrazian Euskaldunen Errege-Jauntza, bere errigizartearen sabelezko nortasunetik sortu ziralako, Euskalerriko edesti onen bidez ikusten dogun lez.*

*Ez da inungo miraririk ba, Euskalerriak ainbeste etsai eukitea, bere askatasunezko demokraziagaz, aurre egin eutsolako Europa osoaren nortasun bageko batzangotasunari.*

*Ata guzti euskal errege/erregiñ ta jauntzak beartuta, katolikoaren antolamenduzko baldintzartean sartu bear izan eben.*

*Europa onetan jaio edo sortzen zan edozer gauza ezin bestean “Griegoen jakintzan, Erromatar kaisar sakratuaren legedian ta katolikotasunezko zinezkintzan aberritze-koaren, sasi-legezko baldintza artean” jaioten zalako.*

*Eta errege jaun euskaldunak, Europako erregeen artean eskontzen asi, ondorengoak eurak aukeratu ta erregetzak euren jabetasunean beraganatzeagaitik, erritarren ardurak naiz askatasunezko sustraiakoak izan, morroipetasunera bideratuta geratu ziran.*

*Nafarroan ez, gero ikusiko dogun-lez, beti borrokatu ebelako menpekotasunezko alegiñaren aurka.*

*Euskal erritarrak, etxea ta euren ekanduzko eritziaren baitak gordetzeagaitik, eta erromatar menperatzailearen artean inguratuz agertuta, etsaiakaz alkartu bear izan eban beti, bere altxor nagusiena babesteko, naita bata edo besteagaz ibiltea bear-bearrezkoa izanda, beti, anai arteko borrokan ibili.*

*Euskalerrria, sekula ez da kikildu aurkako lan orregaz, askatasunaren alde.*

*Europaren erdian kokatuta baiña, kaisarkeri orren menperatzaile-estukuntzazko<sup>(3)</sup> indarkeri ta eleiztarren aolku bidetik zentzunezko Iparrean naaztuta<sup>(4)</sup>, beti ibili gara anai arteko borrokan.*

*Eta menperatzaile gogamenakaitik, guzur ta indarkeri buruz, Europa guztia XIXn gizalditik, gaur daukaguzan edo bear ez diran indarkerizko-Laterrietan egokitu ginduzan.*

*Eta orain, zeintzuk ziran euskaldunak erabili genduzan legeak Errege-Jaunak aukeratzeko, eta IIn Fernando katolikuak erabili ebana Nafar erregetzagaz geratzeko:*

*Bizkaiko batzar nagusiaren baldintzak, Jaunakin elkar aditzeko:*

(1) Dukeak = del frances “duc” y este del latin “dux”, guia, conductor. (2) Lerrokada = *escalafón*. (3) Menperatzaile estukuntzako indarkeri = presiones imperialistas. (4) Iparrean naaztuta = desorientados entre tanta disquisición legal.

Bizkaitar batzar-nagusiak, iru gauzatarako aukeratzen ebazan Jaunak artekari lanak egin egiezan:

- a).- Gudal-buru izateko.
- b).- Zuzenbidearen buru-nagusia izateko.
- d).- Bizkaiako errigizartea ta ondorengo lur zabalak zaintzeko.

Eta Jaunaren irudizko buruzagitasuna jarraitasunezko lasaitasunean iraun egian, ain almen ta ondasun aundiakaz jantzi ba eben be, kontu aundian eukinda, emon jakon guztitik berea ez zala ezer, bizkaitarrak, egin bear eben antolarazia<sup>(1)</sup>, itzalgarritasunean<sup>(2)</sup> ezarri egien emoten eutselako.

Orregaitik, erabakitasunean, egilletasunean eta lege-egilletasunetik apur bat baiño bakarrik ez eutsoen emoten, aginduaren eskubide bakarra *errian egoala* erakusteko.

Baiña alderantziz, gure Batzar Nagusia Jaunaren aldeko baldintza bategaz lotuta geratu zan: beren gauzatarako izaten zanean eta *gudarako gizonen laguntza bear ebe-nean*, gure *batzarra* beartuta geratu zalako bere guda taldea gure mutillakaz osotutea, naita esan dogun lez, beren gauzatarako izaten zanean, *aurretik ordaintzeko beartuaz*.

Ortik aurrera eta erromatarrak Euskalerrian sartu ziranean bezela, gure lurraldearen jabetasunezko jaurkintzak eta gureak diran askatasunezko demokraziaren eritziak babesteko, Bizkaiko Jaunak eskatutako baldintza orren erruz, Euskaldunak beartuta, beti borrokan agertu gara gure artean.

Orreik izan dira ordaindu bear izan doguzan sariak, Jainkoaren legeari begira Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu genduzan askatasunezko demokrazi ederrak zentzu aundiz zaintzeko.

***Bizkaiko batzar-nagusiak, izendatutako Jaunak kendu eikiezan emon jakien jaurkintza lekutik ?.***

Euskal batzarrak almen guztia euken, jaunak ziñez ez ba ebezan artzen batzarraren agindutako baldintzak, edo eta ziñ egindako baldintza orreik bete ta lotsakortasunean ez ba ebezan eukiten, emon jakien arduretatik kentzeko.

Bizkaiko batzarrak, agintaritzan ez eban euki mugarik, berea izan zalako jabetasuna.

Orregaitik, Bizkaitarrak, eurak izan ziran aukera bakarra euki ebenak jauna ipini ta kentzeko.

***Eta zeintzuk izan ziran Asturias, Leon, Gaztela, ta franko erregearen katoliko arauetatik Euskalerrirentzako sortu ziran arazoak ta gero Europako erregetegi guztietatik ?.***

325eko urtetik aurrera mundu onen jaurkintzarako orainarte ikusi dogun lez, Nizean katolikotasunezko ziñeskintzan artu ziran arauetatik ez dabelako ezer aldatu, beti izan dira Aita Santuaren uts ezintasunezko almenagaz, goitik beerako agintaritzan, erritar ta agintari guztien erantzupidearen almenezko ardura guztiak, Aita Santuaren eskuetan batu egin ziralako.

Ortik aurrerantza eta edozein agintaritzazko mailla guztietan bardiñ sortu daiten, odoljariozko alegiñekaz ibili dira beti, eta gaur be sortzen dan lez, or dabiz katolikota-

(1) Antolarazia = arbitraje. (2) Itzalgarritasuna = respetabilidad.

sun aberritar asmatzailleak laterrituta euren norkerizko guda indar guztiagaz, Europa ta mundu guztiko errigizarteak morroitzeko alegiñetan.

Gaur norkeri orregaz jokatzen ba dabe, zer ez egingo ote eben Fernando katolikuaren denboran ?.

*Baita zelangoa ote zan Katolikotasunezko legea, Europako erregetegi guztientzat?.*

Adibidez, IIn Fernando katolikuak: *Nafarroako erregetzagaz geratzeko, maltzurrezko guzurtasunean Aita Santuaren buldak, amaitu ezinezko ekintza baten eskarniatuta<sup>(1)</sup> ibiliten ebazan, Aita Santuak nafar erregeak eskomunikatu<sup>(2)</sup> egiezan.*

*Orduko denboran eta nik uste dot beti izan dala, Aita Santuak errege edo jaun baten bat eskomunikatu ezker, Europako edozein printze edo errege katoliko batek euki ebala baimena, eskomunikatuko errege jaunak euren ezar lekuetatik kendu eta eurak ipinteko.*

*Lege ori izan zan argi eta garbi erabilten zana, nortasunezko askatasun aundikoak izan ziran euskaldunen aurka, auek menpetasunezko batzango orrekaz ez ebelako jakin gura ezer.*

*Argi ikusten da emen, Aita Santuak ibiltzen ebazan katolikotasunezko legeak, ez ebela zer ikusirik Jaungoikoak bereztu ebazan legeakaz, katolikotasunezko legearen lenengo aizkorakadagaz, berezitasunezko errigizarteak nortasun barik izten ebazalako.*

*Joko ori izan zan merkantil-katolikotasunezko araupidean gaur lez, Aragoiko IIn Fernando katolikuak erabili ebena, Foixeko I Kataliña eta bere senar Albreteko III Juan, euren seme IIn Enrike ta onen alaba Albret'eko IIIIn Juana ta bere senar Borbon'tar I Juan Nafar erregeakaz, Nafar erregetzaren eskubideakaz geratzeko.*

*Konturatzen gara orain, nondik-nora eta zelango oldozmenagaitik, berezko erriak bear ebezan jaurkintzazko antolamenduetan ezereen kontuan artu bage, katolikotasunezko aberkintzagaitik egoan dana lotuta ?.*

*Ori da ikusiko doguna orain, Euskalerriko Edestian Askatasunezko maldaberak zeatz argitzen doguzanean.*

*Nundik atarako ote eban Franko'k, esaten eban "todo queda bien atado", esaera ori ?.*

1.513ko urtean Epailaren 23an, IIn Fernandok Nafarroako gorteak batuta, eta batzaldi orreitan Beaumontesak bakarrik egon zirala, Nafarroako Foruai ziñez itz emonaz, izenpetu ebazan.

Eta IIn Fernandok azkenean, guzur utsez eta Aita-Santua'ren laguntzagaz, nor geiago dala, Nafarroaren Auñamendiko Egoaldeagaz geratu zan, Nafarroako gorteak, IIn Fernando katolikoa errege izendatuta. *Católico rey don Fernando, rey de Navarra nuestro señor de aquí en adelante.*

1.515eko urtean Bagillaren 7an gaztelarrak Burgosen batzartuta, eta iñungo nafar semerik-bage batzar orreitan, Nafarroako erregetza, gaztelar koroagaz alkartzea erabagi eben bere izenean.

Ez ebena bereala lortu, gudak aurrera egiten ebelako, arik eta Fernando ilda, bere illobaso edo billoba I Karlosek 1.524ko urtean, Nafarroa guztiz menperatu arte.

Ortik aurrera, espainiko erregeak, ondo baiño obeto zaindu eben, Iruñako gotzaiñ eta Eleizaren agintaritzazko lekaide/me etxeetan, baita errege aulkietan Nafar-semeak

(1) Eskarniatutako buldak = bulas falsificadas. (2) Eskomunikatu = excomulgat.

ez zitezen ezarri. Nafar-erregetzaren irudia galtzen joan zedin eta Gaztelatarrena bizitu, euskal-izkuntza ta Nafar-aberritasunaren nortasuna ezereztuta, nafartarrak espain-katoliko-aberrikuntzazkoak biurtu zitezen.

Alan egin eben Donemiliagako Kukullaren<sup>(1)</sup> beneditar lekaideak be XVIIn gizaldiko amaieran, Nafarroako erregearen il-obiak, ez ikusteko lekuetan ipinita, erria aaztu zedin beren arbasoakaz.

Ortik aurrera, Nafarroako errege I Kataliñ eta bere ezkontzako senar Foix'eko IIIIn Juanek 1.517ko urtean il zan arte, IIn Enrike ta IIIIn Juana bere senar Borbontar I Juanekin Auñemendiko Iparaldean bakarrik aginduko eben.

***Laster ilgo ziran antzerki onen antzezlarri nagusiak:***

***IIn Julio Aita-Santua***, 1.513ko Urtarrillaren 20an Erroman.

***Frantziko XIIIn Luis erregea***, 1.515eko Urtarrillaren 1'ean Parisen.

***IIn Fernando katolikua***, 1.516ko urtean Urtarrillaren 23an, Kazerezeko lurraldeetan, Madrigalejoko errixoaren zori-gaiztoko eta akurazko<sup>(2)</sup> ostatu baten. Guadalupeko lekaimen etxera, Kalatraba eta Alkantarako erakundearen batzarrera joan zanean<sup>(3)</sup>.

***Nafarroako erregetzan, Foix'eko IIIIn eta Nafarroako erregetzan I Juan Kataliñen senarra***: 1.516ko urtean Bagillaren 17an, Esgoarrabakeko gazteluan.

***Nafarroako I Kataliñ***: 1.517ko Otsaillan Nafarroako Kataliña Mont-de Marsango irian il zanean, berak euki ebazan amalau seme-alabetatik, sei geratu jakozan bizirik.

Nafarroako I Kataliñ eta bere senar I Juan Nafartar zintzoak, benetan alegindu ziran Nafar erregetza berrezkurutzen, astikor ibili ziralako baiña, eta Frantziko erregea be, beste zeregin aundiagotan sartuta egon zalako, ez eben, bear dan moduko laguntzarik euki, eta Auñamendiko Ipar aldean bakarrik agindu eben.

***Eta Zisneros ta Jimeneztar Frantzizko Kardinala***: 1.517ko urtean Azaroaren 8an Asturiasera doala I Karlos erregea ezagutzen, I Karlos ikusi barik, Roan ilgo zana.

1.516ko Urtarrillaren 23an Fernando katolikua il zanetik, espainiako erregetza Zisneros kardinalak zuzentzen eban, eta espainak berari zor dautso Nafarroaren menpekotasuna.

Zisneros'ek esaten eban: ***Erreiñu ura, berak balio baiño geiago kostata izan jaku, eta gutxi gaitik ezin da galtzorian jarri, ainsariko<sup>(4)</sup> gauza ori.***

***Zure espainia'ren erreñuentzako, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana da-ta.***

1.516'ko Epailla'ren 7'an, I Karlos'en aolkulariak, berari esaten eutsoen: ***Nafarroa'ko erregetza osterata emon edo itzuli egiolata berezko erregeari.***

Aragoi'ko Alfonso<sup>(5)</sup> Zalduba'ko gongotzain edo artx-apezpikuak baiña, I Karlos'eri eskatu eutson: ***Nafarroa'ko jabetzari eutsi egiolata euren laterriaren babeserako, bere zainpean, Auñamendiaren igarobide guztien giltzak eukazalako.***

1.518'ko urtean, Balladoliz'eko gorteeke I Karlos'eri esan eutsoen: ***Gure gizaki edo pertsonak ta etxaldek bear ba-dira ipiniko doguzela, Nafarroa'ko erregetza menpean eukiteko, baita bera zaintzeko be.*** Erregetza-ori gure erregetzaren giltz-nagusia dalako'en aitzakiagaz.

(1) Donemiliagako (San Millan) Kukullaren beneditar lekaideak = Benedictinos de San Millan de la Kogolla (2) Akurazko ostatu baten = casa de alquiler. (3) Bere Bizkaitar Larreatar Todagaz (pozoituta il ebena) euki eban alabea, abata izan zana, ikustera joan egingo ote zan ?. (4) Ain-sariko = estimación. (5) Fernando katolikuaren sasi semea zana.



Or agertzen zalako, I Isabelen eta Ziznerozen erromatar-godo-katolikoek-asmoak, espainiako kaisertzaren ametskerian.

Nafartarren menperatasunagaz amaitu gendun Euskalerriko Vn atala, eta orain goazan Euskalerraren VI ataleko sarrera onetan adierazten: *zelango aurrerakuntzazko aldaketak sortu ziran berezko arrazoiaren zentzuan, Nafar ta Gaztelar antzokiko antzezlariek artean, bai Euskalerr osoan eta Europan batez be, ekanduz, gizaren eskubideko arrazoiak, euren lekuetan kokatu ez zitezten.*

#### 1. 4. *Sarrera.*

Nabarmenezko aldaketak sortuko ziran emendik aurrera Europa osoan, adibidez:

*Erljiozko arrazoietan* Lutero´tar Martin Agustindarra<sup>(1)</sup>, bere arrazoi aundiko berriakaz ukalari agertuta, katolikotasunean ziñezkintzatutako lege edo arauen aurka.

*Eta Kalbino´tar Juan*<sup>(2)</sup>, au be ukalari zale izanez gain, bere barriakaz ainbat zeregin emon ebana.

*Merkantilezko arloetan* eta Kolon Ameriketara asi zanetik, Ameriketako urre goiriaren bidetik, aukeraren izan-gaitasunak zabaldu egin ziralako.

Emendik aurrera:

- a).-Bolbora edo lerrauts-gintzaren<sup>(3)</sup> obetzeak ekarri eben izkillu ta kañoigintzagaz.
- b).-Ontzi-oialaren alda-eziñ edo ibil-eziñetik, mugikortasunezko ibiltasunera aldatuz, itsas-ontziek artu eben aurrerakuntza.
- d).-Iparkoi edo itsas-orratzak emon eban erreztasuna itsas-zabaletik ibilteko.
- e).-Lanezko tresnerien gaitasunezko ugaritasunagaz.
- f).-Eta gizonaren aukerazko eginkizunak bizkortu egin ziralako, Europako erregeak gero ta indar geiagoagaz aurkeztuta, jaurkintzaren ekanduzko zereginetan alegindu barik, al-osokerira arrotzen asi ziralako.

Gauza guzti oneik aukeratuz, erregeek, euren antolamenduzko epaiketaren ardu-rean, Europan berezko erriak obeto jaurkitu edo zuzendu barik, katolikotasunaren aberrikuntz agintaritzarako, kaisertzazko dominiaren<sup>(4)</sup> bideak artuta, euren al-osokerizko agintaritzara bideratu ziran, Aita Santuak lez, euren agintaritzak, ezin-eskastuzko, edo uts-eziñekoetan ezartzeko<sup>(5)</sup>, Europa osoa, sutu edo ta odol-jarioz ipini ebana, euki ebezan errigizartearen etsaimendurako<sup>(6)</sup>.

*Bizitza, demokrazizko ekanduaren zentzunez eramatekoan baiña*, atzerakada galantak emonda, katolikotasunaren arrazoiak aurrerantzean, orren neurritz, gogortu egin ziralako.

Eta berezko errigizartearen menpekotasuna gogortzen joan zalako, katolikotasunaren aberrikuntzazko eritzi orren serbitzura:

Europan berezko errigizarte, ta euskaldunen arteko anai-gudak ortik aurrera, guztiz ugaritu jakuzan, euskal demokraziaren egizko nortasunean sakonak izateagaitik, lotuta egon giñelako, emoneko berbeagaz, nai errege edo ta aukeratutako jaunari.

(1) Lutero´tar Martin Agustindar ukalaria = 1.483 Alemaniren Halleko lurraldean Eislebeneneko errian jaio-eta 1.526ko urtean erri orreitan il. (2) Kalbino´tar Juan = Bere benetako izena = Kaubin´tar Jean izan zan. 1.509ko urtean Frantziaren Oiseko lurraldean Noyoneko errixoan jaio zana, eta 1.564ko urtean Jinebran il. (3) Lerrauts-gintza = fabricación de la pólvora. (4) Kaisertzazko domiña = titulo imperial o emperador. (5) Eziñ-eskatuzko edo Uts-eziñekoan ezartzeko = posicionarse en absolutismo, o, en la infabilidad. (6) Etsipen edo etsaimendurako = desesperación.

Erlijiozko sinismenean, itsutasunezko denbora orreitan, nork sinetsiko eben, dana, norkerizko guzur baten ameskeria zala ?.

Gaur lez, eta norkerizko maltzurkeriz, txarto ibiltzen ebazan ba, eurak ezarrিতako erlijiozko ziñezkintzak, eta Euskalerriko semeen askatasunezko demokraziaren egizko sinismen ta zintzotasunak nastekatuz, euren kaisarkerizko naiak lortzeko.

Gaiñera, ekanduz bizi direla esaten dabe.

Noren ekanduz itaungo neuskio nik.

Goiko Jainkoaren Egillearenak ?.

Nabaritasunezko argi zabalean daukiez, Jaungoikuak Ludi oneri bereztu eutsoezan legeak, guztiz alboratu egiten dabezanak, sasijainkotasunezko kaisertzak eta diruak elburu lez artzeko.

***Gero ta menpetasunaren indartsuagoko ekandu orregaz joango da gure Euskalerrri maite au larritzen 1.937ko urtean, eta Europaren katolikotasunezko fazizta eragilleen buru Franko zala, ia, gure euskal maitasunezko erri onen eriotzeraino eldu ziralako.***

Bereztasunaren ekanduan, gogorkeri ori ikusteko baiña, gure urrengoko antzez-lariakin asiko gara edesti onen kondairan, ikusi dagiguzan zelangoak izan diran gure Euskalerrriaren premiazko estutasunak, gaur bizirik agertzeko.

Lau antzerkilari oneikaz asiko gara, EUSKALERRIAREN EDESTIKO VIIn atal onetan: Nafarroako errege IIIn Enrike ´en bizitza azalduz, Frantziko I Franzizko erregearen bizitza, azkenez I Karlos gaztelaniako errege ta Bizkaiko Jaun lez aurkezteko.

### 1. 5. *Nafarroako IIIn Enrike:*

1.503ko urtean Jorraillaren 25ean, Nafarroako Sanguesaren erriko Kale nagusian 56 zenbakiz, berandu-gotikoan eginda egoan Sebastianes ´eko jauregian, jaio zan gure Nafartar IIIn Enrike au.

1.555eko urtean Loraillaren 25ean Pau ´ko ipar-Nafar-errian il da.

1.530eko urtetik beren eriotzerarte, nai Nafar osoaren errege izan eskubidez, Nafarroaren Iparraldea jaurkitu eban bakarrik errege lez.



*Nafarroako IIIn Enrike*

Eta bere jaun-izenak: Andorrako *printzea*.

Foix, Perigord, Bigorra ta Albret'eko Kondea.

Bearn, Tursan, Gabardan, Tartas eta Limojesko Konde-ordezkoak ziran.

1.515eko urtetik aurrera bere aita I Juan eta ama I Kataliñ, Frantziko gortera joan ziralako bizitzen, bertan ezagutu eban Angulemako Margarita Frantzes idazle ospetsu ta Eptameron liburuaren egillea.

I Franzisko, Frantzi'ko erregearen arreba zana, eta 1.509ko urtetik aurrera IVn Karlos Alezongo dukearen alabeagaz ezkondata, alargundu zanean, 1.527ko urtean Margarita onegaz ezkonduko zan.

1.516ko urtearen Epaillan, IIen Enrikek bere ama Kataliñegandik baimena artuta, Noyonen saiatu zan espainiako Zisneros kardinalaren aurka, Nafarroako zar eta gazteri guztia matxinatuta ego-aldea berrezkuratzeko. Alperrekoa izan zana.

Ostean, Zisneros kardinalak eta bere aginduan egon zan Billalbatar Koronelak indarrez emon eben erantzuna, odoljariozko, edo odol-zaleen erantzuna izan zan, gizon-emakume ta gazteak inguratu ta il, eta gazteluak bota ondoren, ereiñeko lurak kiskailtzeko.

Ata guzti eta nazkagarrituta gaztelarren menpekotasunagaz, ostera matxinatu ziran Nafar giza-semeak, euren errege lez IIen Enrike izenduta.

1.516ko urtean Ekaiñaren 17an il zan IIIen Juan Nafar erregea Kataliñ erregeiñaren senarra.

1.517ko Otsaillaren 12an, I Katalina il zan, eta euki ebazan amalau seme/alabetatik sei geratzen jakozan bizirik. Oneitatik IIen Enrike semea izan zan beren ondo-rengokoa.

Albret'eko IIen Enrikek Nafarroako erregetzaz gain, Biarno, Foix, Bigorra, Ribagorza, Armajnak, Perigord, Tursan, Gabardan, Tartas eta Limojeseko lurraldearen jabetza euki eban.

Eta izen-buru orreikaz, Nafarroa, Gaskoinia ta Auñamediaeren Ipar-erdialdeko errege ta jaun nagusia izan zan.

Beren elburu nagusi, Nafarroaren Ego-aldea berrezkuratzea zan.

1.517ko Urrillaren 7an, Pariseko Lege-Biltzarrak Foixeko auziketean, Nafar erregearen alde erabaki eban.

1.517ko Urrillaren 31n Europako jarkera orreik, bereala etsitasunezko aldaketak<sup>(1)</sup> egitea eskatzen eban, eta Luterok Wittenberg'en, Eleizak barkamenaren arloan ibiltzen ebazan ipotesis, baldintza edo ta egikizunezko arrazoiaren aurka, 95 maixu-idazkiak<sup>(2)</sup> aurkeztu ebazan.

Ortik aurrerako denborak, Erreforma edo berrikuntzaren denborak deituko ziran.

Jazargo, aurkariko, gaitzespeneko<sup>(3)</sup> edo aurkako denbora orreik berrikuntza-bat baiño, Europaren errigizarteko baitan, katolikotasunaren aberrikuntzarako ziñezkintzatu egin ziran baldintza orreik ulertu ezinean, ziñezkintzatu ziran orren arauen aurka egin zan iraulketa aundi bat baiño besterik ez zan izan.

(1) Etsitasunezko aldaketak = cambios desesperados. (2) Maixu-idazkiak = balizko, baldin, tesis. (3) Gaitzespen denborak = tiempos de reprobación, censura, descalificación, repulsa.

Irakaskintzan, ekonomian, politikan, eta Europako abendaren ekanduzko alegiñ guztietan, katolikotasunaren legezko eritzi orreik, bereztasunezko legearen aurkakoak izateagaitik, okerrezko ondorengoak eragiten ebazalako.

1.518ko urtean, Balladolizeko gorteak I Karloseri esan eutsoen: *Nafarroako erregetza menpean eukiteko, gure gizaki edo pertsonak eta etxaldeak zaintzeko bear ba-dira, ipiniko doguzela ta.*

*Erregetza-ori gure erregetzaren giltz-nagusia dalakoen aitzakiagaz. Ortik agertzen zalako, I Isabelen ta Ziznerozen godo-asmoak espainiaren ametskerian.*

Bardin esan eutson Ziznerosek: *Erreiñu ura, berak balio baiño geiago kostatzen izan jaku, eta gutxi gaitik ezin da galtzorian jarri, ain sariko<sup>(1)</sup> gauza ori. Zure Espaina'ren erreiniuentzako, atea izan balitz bezala, bideak zabaldu ta zarratu egiten dauana da-ta".*

## 1. 6. *Ego-Nafarroa askatzeko gudan, Nafarroako II In Enrike ta Frantziko I Frantzisko erregeak baituta.*

1.518ko urtean II In Enrikek, itzarmen bidez Montpelierren, espainako I Karlosek in osteratzen ziran Nafarroaren ego-aldea askatu egien, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi ziran antolatzen.

1.521eko Bagillaren 10an II In Enrikek, Foixeko Andresek bideratzen eban Nafar, Gaskoi eta euskal frantzesakaz osotutako gudarantz, Donibane Garazitik sartuta, Nafar egoaldeko lurak asi ziran berrezkuratzen, eta Iruña artu ondoren, Lizarra, Tafalla ta ia Nafar osoa berrezkuratuta euki eban.

1.521eko Bagillaren 30eko Igandean baiña, III In Luis Leringo kondeak bideratu egiezan, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Errioxatarrakaz antolatu ziran gudarantz, asko lagundu eban Gaztelako Igoa ta Alemaniako Vn Karloseri, eta Noain, Ezkirotz ta Barbataineko zelaiek, 5.000 gudarientzako gortuzakaz odolezko oiñ-azpiko lez beteta itzi ondoren, osteratzen eban II In Enrikek garrantzi aundiko borroka ori. Gaztelako I Karlos aurrerantzean, Nafarroako IVn Karlos deituta.

Eta kontuan euki, lotuta egon giñen itzarmen bidetik, euskaldunen anai arteko guda izan zala au.

Nafartarrak emendik aurrera, euren errien-arteko nortasuna galduko eben, eta menpeko maillara beratuko zan.

Nafartar Erritarren askatzeko mugi-aldiak, ixilleko eskubidetik eroan ziran ortik aurrera, egin leikena zalako bakarrik.

Nafarroako erregetzaren menpekotasuna, berak daukan eskubideko jabetasuna Europan adierazita, Euskalerrriak eta Europak daukazan epai-lege aundikien bidez, ezin leike, euren nortasunezko euskal eskubideari, guzurraren bidez egin eutsoen lapurketa aundi orretatik askatu ?.

Dana dala, or doa gero ta berago Euskal ta Nafartar lez.

Eta nai-ta euren legera guztiz lotuta egon gabe, espainiako erregetzaren probintzi edo erri-alde lez leenengo, geroago edo ariñago, euri guztiz menperatuta geratzeko bidean.

(1) Ain sariko gauza ori = estimación.

*Euskaldun jakintsu ta ulermen aundikoen artean, Nafartar euskalerrri ori ezkura-  
tzeke ez badago adimendun edo ulermen aundiko alegin bizkor bat.*

Bizitz oneitan, erreztasun aundiz galtzen dira Nortasunezko izaeraren sinis-erri-  
tziak.

Ordezkaritzaren egillezko arduradunak jaiota, gure erritar antolakuntzazko egipi-  
deetatik geien<sup>(1)</sup>, nortasunaren berezko izaera orreik, benetako arduratik kanpo izten  
ba dira.

*Erri batek, sekula ez dau galtzen bere Aberriaren Nortasuna, errurik bage.*

1.522ko Uztaillaren 19an, Noainetik 200 gudari Maiako Gaztelura joanda, artean,  
Franzisko Jabierren anaiak dirala, ia urte betean eutsi eutsoen gaztelar gudalozteari,  
baiña, menperatu ebazan.

Bertan dago oroitarri aundi bat, guk euren eskeintza, gogoan eukiteko.

Eta emen itaun aundi bat:

*Eleike atara emendik, Europaren Kristautasunezko eta katolikotasun arteko borro-  
ka izan zala au ?.*

*Alde baten: Frantzisko Jabier Donearen apaiz, lekaide abatak eta gotzaiak.*

*Bestean: Zisneros, bere gotzai, lekaide ta apaiz katolikuen aurka.*

*Borroka orren antzokian, jokolari orreik egon ziralako, odoljariozko aurkan.*

*Nafartar euskaldunak, Jainkoaren askatasunezko legez, euren baitan ez ebelako  
onartzen, katolikotasunean aberritutako iñungo arrotzen menpekotasunik ?.*

*Nungo Europan egongo ote dira, Europa berak daukazan Jainkoaren bereztasunez-  
ko bidetik, ordezkoko apaiz eta danon lege-gizon jakintsuak, gagozan ordezkaritzazko  
bizi onetan, kundeatzaille edo alderdibagetasunezko ordezkaritzarako egin bear diran  
antolak eginda, berezko erri guztiak, askatasunezko eskubideak ondo ulertuta, demokra-  
zi ta pakez bizi gindezen ?.*

*Maiako erritxoan dago oroitarri aundi bat, guk, euren euskal eskeintza gogoan  
euki dagigun.*

1.524ko Otsaillaren 29an Ondarribi, Albako dukeak menperatu eban ia iru urte  
inguratuta euki ondoren.

1.525eko Otsaillaren 24an, II In Enrike Frantziako errege I Frantziskori, Pabiako  
gudan laguntzen egoala Gaztelako I Karlosen aurka, Bizkaiko Urbietatar Juan guda-  
riak, Frantziako I Frantzisko erregea atrapau eban bere anka zaldipetik askatu eziñik  
egon zanean, eta euken gudaloztea menperatuta, Gaztelako I Karlosek, II In Enrike ta I  
Franzisko batera atxilotu ebazan.

1.527ko urtean, urte bi beranduago, biak iges egin eben I Karlosen atxilopetik.

1.527ko urtean Nafartar II In Enrike, Frantziko I Frantziskoren arreba zana Angu-  
lemako Margaritagaz ezkondu zan.

Nafarroako Margarita onen 1.527-1.549ko urte bitarteetan erregiña izango za-  
naren agindupean, Nafartarren erregetza, erreformaren babes-leku ta kabi biurtu zan.

(1) Egipideetatik geien = la mayoría de las veces, por el abandono de nuestras obligaciones que im-  
piden perseverar en nuestras responsabilidades.



Ugonote´en babesle izanez gain, Frantzez elerti-zale eta idazle jakitunen babesle be izan zan: *Lefèbre d'Étaples bibliaren jakituna; Franzois Rabelais idazle isekari edo pikokaria*<sup>(1)</sup>; eta *Klément Marot olerkariena*.

Angulemako Margaritak, naita bera katolikotasunean iraun, argi agertu eban Frantziko birloraketaren<sup>(2)</sup> izaera edo astura: *Eleiza katolikoaren aurkako berrikuntzak onartu ebazanean, erlijioaren askatasunari baimena emon eutsonean*, eta bai *beren idaz-lanaren bidetik*.

1.528ko Zemendiaren 16an Paben´eko errian, euren alaba IIIIn Juana jaio zan.

Beren aurtzaro ta gazte denborak, Frantziko errege I Frantziskoren gurasordetasunean, Alenzongo jauretxean eta Plessis-les-tours´eko gazteluan iraun ebazan.

1.530ko urtean IIIn Enrikek Be-Nafarroa berrezkuratu eban eta Donibane-Garazi, Donapalau, ta Bastidako errietan ezarriko eban Nafar gorte edo Errege-Batzarrak. 1.789ko urtean, Frantzian egin zan iraultzararte iraungo ebena.

Urte oneitan espainiako I Karlosek, Auñamendiak itzi ebazalako, berezko muga baten antzera.

Eztaibada aundiko andregaia izan zan IIIIn Juana au, Frantziko I Frantzisko eta Gaztelako I Karlosek, Europaren nagusitasuna lortzeko euki eban borrokan, euren erregeña lez<sup>(3)</sup> ibili ebelako.

Leenengoak, Klebeseko dukearekin ezkondu gura eban eta bigarrenak, beren seme IIIn Feliperekin.

## 1. 7. *Ingalaterrako arazoan, VIIIIn Enrike eta Kalbino.*

1.534ko urtean Ingalaterrako VIIIIn Enrike, Erromako Eleizatik banatzen asi zan, IIIIn Paulo Aita-Santuak, bere emazte Aragoiko Katalinagaz euken ezkontza, ez ebalako ezereztuten.

1.536ko urtean Kalbino, berrikuntzaren aldekoa zanak, Basilean babespetuta egonda, beren ospe aundiko liburua argitaratu eban: "Institutio Religionis Kristianae" argitaldi ugarietan zabaldu zana.

1.538ko urtean Kalbino Jinebran, berrikuntzaren agintez eta aburu-lez<sup>(4)</sup>, onartuta egon zan lekuan egonda, erlijioaren arloan jasan-eziñezko yaurpide edo gobernu bat ezarri gura eban, erriko gizartea asarratu ebana.

1.540ko urtean Kalbino, Estrasburgon egonda, de Bure´tar Idelettegaz ezkondu zan.

Eta Jinebrako erritarrak deituz ostera joanda, Kardinalen-Batzarra<sup>(5)</sup> sortu eban.

Ondoren, Uriaren jaurkintzagaz jabetu zan ta erruki-bageko araupean<sup>(6)</sup> oinperatu ebazan, kirkilleri<sup>(7)</sup> guztiak debekatuz.

Barkagaitzezko lege orreitan, Jakituri aundiko gizonak jausi ziran eta orreinan Serbet´tar Migel Aragoitarra, 1.553´an, sutan erreta il ebana.

(1) Isekai edo pikokari = satirico. (2) Birloraketaren Izaera edo astura = costumbre, hàbito, uso del renacimiento. (3) Erregeña lez ibili ebelako = xake-jokuan (ajedrez) lez, euren erregeña izan zalako. (4) Aburu -lez = consejo, administraci3n, doctrina, ortodoxo de la nueva orientaci3n religiosa. (5) Kardinalen Batzarra sortu = consistorio, o consejo que tenian los emperadores romanos, consejo que celebra el papa con asistencia de los cardenales, etc. (6) Erruki-bageko araupean = bajo leyes crueles, inmisericordes. (7) Kirkilleriak = lujos.

1.540ko urtean I Franziskok IIIIn Juanari, Klebeseko dukearen Juanegaz ezkondu zala itz emon ondoren, beren gurasoengana joaten itzi eutson.

IIn Enrike eta Margarita aita-amak, IIIIn Juana, gaztelaniako IIn Felipegaz ezkontzea gura eben, eskontza orregaz Nafarroa, menpetasunetik atarateko alegiñean.

1.541eko urtean I Franziskok, IIIIn Juana 12 urte euki ebazala, bere aita-amen ta bere borondatearen aurka, Klebeseko Gillermo dukearekin ezkondu eban.

1.545eko urtean Urrillaren 12an baiña, eta alaba- seme barik egonda, Aita-Santua- ren laguntzagaz, lortu eben eskontza ori ezerezutea.

### 1. 8. IIIIn Juanaren ezkontzazko arazoak, konpontzeko alegiñetan.

1.547ko urtean Frantziko I Franzisko il zanean, beren ama-aitak Gaztelako IIn Felipegaz ezkontzeko egin ebezan diplomazizko alegin guztiak ez eben balio ezertarako be, Frantziko I Franziskoren ondorengoa zan IIn Enrikek, beartu ebalako IIIIn Juana, Borbongo Antoniorekin ezkondu zedin.

1.548ko urtean Gaztelako Igoa eta Alemaniako Vn Karlosek eskutitz baten bidez, au esaten eutson IIn Felipe beren semeari: *Erregiñ-gai ura, ganora ta trebetasun aundikoa, onbidetsu*<sup>(1)</sup>, *zentsuzko eta ondo azikoa zala*.

1.548ko urtean Urrillaren 20an Nafarroako IIIIn Juana, Borbongo Antoniorekin ezkontzen da<sup>(2)</sup>.

Eta I Karloseri eskontza orregaz ezereztu jakozan, Frantziko erregearen aurka ezarpen obiagoa eukiteko, Nafar osoko jabetzaren asmoak.

Ezkontza onen bitartez asten da Borboitarren errege leiñua, eta Nafarroaren armarrarian sartu ziran *Lis lore* orreik, Nafar bide orretatik, sartuko ziran Frantzia ta gaztelaniako armarrietan be.

III Juanaren gaztetasuna derrigorrean ezkondu ta, bere zentzundunezko izaeraren gutzit aurkakoa izan zanaren gazte bategaz, asten da.

1.549ko urtean beren senar Borbontar Antoniogaz batera, euren jabetasunean Bearn´en euki ebazan lurraldeak ikustera joan ziran, ta euren azpiko serbitzuan egon ziranak, onartuak izan zirela esan eban.

1.549ko urtean IIn Enrike´en emazte, Angulemako Margarita il zan.

1.551ko urtean IIIIn Juanak, seme bat euki eban, baiña andik urte bira il zan.

1.553ko urtean Bigarrenez ernaritututa, IIn Enrike bere aitak umea eukiteko, Pabera joateko esan eutson.

Eta bertan jaio zan, gero, Nafarroako IIIIn Enrike eta Frantziako IVna izango zana.

Bost seme/alaba euki ebazan IIIIn Juanak, eta danetatik Enrike, Nafarroako errege izatez gain, Frantziako errege izango zanak, ta Katalina Lorenako dukesea bakarrik bizirik iraungo eben.

1.555eko Lorailaren 25ean il zan Nafarroako IIn Enrike erregea, eta ondorengo lez, bere alaba IIIIn Juana egin eben erregeña.

(1) Onbidetsu = virtuosa. (2) Emen asten da Borboi´tarren leiñua errege lez.

## 1. 9. *Frantziko errege I Franzisko.*

1.494ko urtean Iraillaren 12an, Frantziaren Txarentako lurraldearen Koñak'eko errian jaio zan Frantziko errege, I Franzisko au, bere aita Angulemako Karlos eta ama, Saboyako Luisa, Kapetoren leiñukoak ziranaren bidetik.

Eta 1.547ko urtean Epaillaren 31n, Frantziaren Ybelineseko lurraldean Rambouillet'eko errian, gaur egunean Frantziko lendakariak udea-igarotzeko, joaten diran jauretxean, il zan.

Ele-ederraren Guraso ta Berritzaille lez ezagutzen zan.

Bai Ongi-Ikasitako errege, eta Gudalari-Errege lez.

1.515eko urtean Urtarrillaren 25ean eta Frantziko errege XIIIn Luis bere aita-ren lengusua zanak, ondorengo barik il zan lez, Frantziaren Txanpañako lurraldearen erri-aldean eta Besle<sup>(1)</sup> ibaiaren ondoan dauan Reimseko eleiz-nagusian koroatu eben 20 urteko I Franzisko au, bere eriotzerarte Frantziko errege lez ekin ebana.

1.515eko urtean Otsaillaren 15ean, bere ezaupide edo ikur-buru lez, arrubi edo ur-andra<sup>(2)</sup> eukinda, Parisen sartu zanean zillarrezko jantzi margoagaz eta bitxi-eder-rak berari josita, baita bere zaldi gaiñetik diru-txanponak jendeari botaten, bere erre-gezaren jarduera edo kutsua agertuko eban<sup>(3)</sup>.

Guda arloan, borroka ta eztabaida ugariko erregea izan zan, Gaztelako errege I Karlosegaz, aurkari aundi bat euki ebena, eta Ingalaterrako VIIIIn Enrikeren diplomazizko laguntza bear ebenak, naita au beragaz eta I Karlosegaz bardin ibili, beren onurak lortzeko.

Zabaltzen egon ziran eraberrizko<sup>(4)</sup> eginkizun eritzi barriak, I Franzisko errege lez aukira igon ordukoak ziran, eta bera izango zan orren bultzagille aundienetariko bat.

Idazteun<sup>(5)</sup>, elerti edo ele-eder<sup>(6)</sup> ta margo-erti'ren<sup>(7)</sup> lagun eta zabaltzalle gartsua izanez gaiñ, Da Bintzi'tar Leonardoren<sup>(8)</sup> lagun aundia be izan zan.

1.515eko urtean I Franziskoren atzeritarrezko erri-jaurgo edo politikea, Ajsburgotarren aurka egon zan geien mugatuta, euren lurraldeak inguratu egiten ebazalako bere jabetasunezko lurraldeak.



*Frantziko I Franzisko erregea*

(1) Besle ibaia = Txanpañako lurraldean dagoena. (2) Arrubi edo ur-andra = salamandra. Musker baten antza daukan igelkia. (3) Beren jarduera edo kutsua erakutsi eban emen = marcò el tono, o estilo en el que se hiba a caracterizar su manarquía. (4) Eraberrizko eginkizun = actos renacentistas. (5) Idazteun = letras divinas. (6) Elerti edo ele-eder = letras humanas, literatura. (7) Margo-ertiren = pintura. (8) Da Bintzi'tar Leonardo = 1.452ko urtean jaio zan, eta 1.519ko urtean Loraillaren 2an, Pariseko Ipar-Mendebalaren Loira ibaiaren ondean dauan Amboiseko erria Kloux'eko (gaur Klos Luze dana) gazteluan il zan.

Eta Europako nagusitasuna lortzeko naian, Italia artzeko alegiñean asi zan Suizo-ren aurka, Milanesado guztiagaz geratuta.

1.519ko urtean Epailaren 31n, Frantziko I Franziskoaren gortea, Layeko Saint-Germainean egon zan eta bertan euki eben laugarren semea, gero Frantziko II n Enrike erregea izango zana.

### 1. 10. *I Franziskoren, atzerritarrezko gudak.*

Milaneko egoaldean dauan Marijnanko errira joan zan 40.000 gudariekin, garrantzizko guda irabazita, ta Suizako Kantoiaren mugak tinkotu ebazan, 1.792ko urterarte iraun ebenak.

Ekintza onetan, nai Milanesadoko lurraldeak lortu, Europako indarraren orekak apurtu ebazan, gero Italiako lurraldearen orekarako, Gaztelako I Karlosen bearra izanaz.



*Frantziko errege I Franziskoren lurreratzea Balentziako kaian.  
1.876ko urtean Pinazotar Inazio margoztu ebana.*

1.520ko urtean asi ziran Frantziko errege I Franzisko, eta Gaztelako errege I Karlosen arteko gudak, bai Ingalaterrako VIII n Enrike be artean dala, onek ainbesteko garrantzirik euki ez arren.

Eleiza katolikuak bere batasunezko aberrikuntza lortzeko, Europako erregeen buru gaiñean dangilizka ipinita eukan: *“Erromatar-Jermanikoaren Sakratuzko Kaisertzaren domiña”* euren artetik indartsuenak, izen-buru lez eroan egian alegiñez.

1.522-1.524ko urte bitartean Frantziko errege I Franziskok Europako nausitasuna lortu naian, eta 36.000 gudariekin Alpesak aldatuz, Milaneko dukaterria artu eban.

I Karlosen gudari edo aldeko Leibatar Antonio nafarrak, aurre egin eutson Pabiako lurraldean 7.000 gudariekin, eta borroka orren aurkako denboran, Peskarako markesaren aginduan, beste 15.000 gudari geiagoakaz sendotu zan I Karlosen gudaloztea, Pabiako borrokari atek zabalduz.

1.525eko urtean I Franziskok, Pabiako borroka galdu eban I Karlosen aurka, Urbietatar Juan bizkaitarrak I Franzisko erregea atrapau ebalako, onek bere zaldiaren azpitik ezin ebalako ankea askatu, bere gudaloztea etsaimenduta.

10.000 frantzez gudari il ziran borroka orreitan, eta beste 3.000 atxilotuta geratu ziran, artean Nafarroako II n Enrike ta I Franzisko zirala.

I Karlosek, errege biak atxilotu ebazan Lujaneseke dorrean eta gero gazteluan. 1.808ko urtean Epaillaren 31rarte egon zan I Franziskoren ezpatea Madrillen, arik eta 283ko urte beranduago Zeballos ta Gerra´tar Pedrok, Napoleoneri emon arte.

1.526ko urtean, menperatua lez, Madrilleko egiune edo elkargoa sinatu bear izan eban, bertan Italiako Milan, Jenova eta Napoles´eko lurraldeak galduta, eta baita bere lurraldearen mugako ondoan Borgoña, Artois, Tournai eta Flandeseke lurraldeak.

1.526ko urtean elkargo ori ebanjeliozko liburuari ziñ eginda eta sinatuz, bere seme bi nagusienak itxi bear izan ebazan baituran, bera Frantzira itzultzeko, alkargo orren baldintzak bideratzeko.

Franzisko seme nagusia, bere ondorengoa zanak, 9 urte euki ebazan, eta II In Enrike, gero Frantziko erregea izando zanak 8, eta euren aita I Franziskok ez ebezalako bete Madrillen sinatu eben alkargoko baldintzak, lau urte baiño geiago egon ziran atxilotu lez bere seme biak eroan eben geiengo lagun taldeakaz, leenengo Billalba de los Alcores´eko dorrean, eta azkenez Pedrazako gazteluan amaitzeko.

1.529ko urtean eta borroka barri baten ostean, barriz izenpetu ziran bakeak Kanbraien.

Andreen bakea be deitu eutsoenai, I Franziskoren ama Saboyako Luisa eta bere izeba Austriako Margarita ta bai eukezan erregearen maitale Txateaubriand´eko konde-andrea, Poitierseko Diana, ta Etanpeseko Dukesaren artean zuzendu ebazalako ango eztabaidaren arazoak.

I Franzisko alargunduta egoan lez, sinatu ziran bake orren arteko baldintzatan, Austriako Artxidukesa-Andre Leonorregaz ezkontzea zan, bera Portugaleko erregeengandik alargun egon zalako.

1.530eko urtean Dagonillaren 5ean ospatu zan ezkontza au, eta Madrilleko egiunetik I Karlosek, lau urte baiño geiagoan baituta euki ebazan I Frantziskoren seme biak askatu ondoren, Borgoñako lurraldearen ordeztu I Karloseri, urrezko milloi bi ezkut´ezko<sup>(1)</sup> txanpoiak dirutan ordaindu bear izan eutsoezan, espainiako I Karlosek geien bear ebena, dirua zalako.

1.538ko urtean Frantziako I Franzisko eta espainiako I Karlosen artean, Nizako bake-une edo gudu-arteko une-bat sinatu zan.

1.539ko urtean Latiñezko izkuntza baztartuz, Frantzez mintzoera ezarri eban Frantziko lurralde osoan izkuntz nagusi lez, eta ukalarien aurka ibili zan, katolikotasunaren elizarekin ondo ibili zan bitartean edo beren laguntza bear eban bitartean.

1.544ko urtean azkenez, Frantziko errege I Franzisko eta Gaztelako errege I Karlosen artean Baloiseke lurraldean, Krey´ko bakea siñatu eben, azkeneko guda izan zanan amaituz.

Frantziako I Franzisko onek, erregetzaren agintaritzan al-osokerien zale lez, orokorrezko agintea ezarri eban bere erregetzan, eta eder-zale lez, natur-jakintzaren babesle izanda, Frantziko elkarte<sup>(2)</sup> ta erregetzaren irarkola sortuz, Loubreko jauregiari asiera emon eutson, Frantziko erregetzaren lurraldea, bere Orokorrezko-Laterriaren agintez-kanpo<sup>(3)</sup> jaurkituta.

Bere erregetzan eta Gaztelako I Karlosen aurka euki zituzen guda gaiñetik, katoliko erlijioaren aldetik, ukalari<sup>(4)</sup> eritziaren aurkako jasan-eziña<sup>(5)</sup> agertu ondoren,

(1) Urrezko ezkut = (dinero) escudos de oro. (2) Elkarte – colegio. (3) Orokorrezko Laterriaren agintez-kanpo jaurkituta = gobernando sin la convocatoria, o fuera de la competencia, o del mandato que tenían los Estados-Generales. (4) Ukalarien = protestantes. (5) Jasan-eziña = intrasigencia, intolerancia, intolerabilidad.



erlijiosko guda gogorak sortu ziran, urrengoko amarkadatan, Frantziko lurraldeak suntsituz<sup>(1)</sup>, su ta odolez margoztuko ebazanak.

Frantziako I Franziskok, lau guda nagusi egin ebazan I Karlosen aurka.

1.521-1.526ko urte bitartean lenengo gudan, Milanésado bereganatzeko, eta Nafarroako II In Enrikeri laguntzen, 1.512ko urtean galdu ebazan Nafar lurraldeak berez-kuratu egiezen.

1.526-1.529ko urte artean I Franziskok, I Karlosen aurka egin ebezan bigarren guda talderako, Kogñak edo Klementinako alkartasuna sortu eban, Benezia, Florenzia, Milan, Ingalaterra ta VII In Klemente Aita Santuagaz batera, Aita Santuak baiña, I Karlosen gudalozteak Erromako lapur edo arrapaketa egin ondoren eta bera arrapaketa ortatik iges eginda Sant´Anjeloko gazteluan ostonduta, I Franziskok, itzi bear izan eban Italiako borroka, Kanbray edo Andrearen bakea euki ebalako ziñatzeko len.

1.530eko urtean eta I Karlosek, urteak betetan ebazan egunean, VII In Klemente Aita Santuak koroatu eban Erromako kaisar sakratuaren nagusi lez, Frantziko borrokari, asiera emonda.

1.536-1.538ko urte bitartean egin eben irugarren guda, Gaztelako I Karlosek Milan artu ebalako, I Franziskok Saboya erasotuta Aleman eta ukalarien laguntzagaz, Nizako gudu arteko bakeak siñiatu arte, gudalozte talde bikoak, leerrenak eginda, edo plost eginda egon ziralako.

1.542-1.544ko urte bitartean egin zan laugarren guda, Frantziako I Franziskok, Suezia, Dinamarca ta Turko kaisertzaren laguntzagaz, eta Gaztelako I Karlosek, Ingalaterrako VIII In Enrikeen laguntzagaz.

1.544ko urtean Loraillaren 21an I Karlosen gudalosteak, ia Pariseraíño joan ziran, I Franziskok baiña, Italiako lurraldeetan Zerisoleseko errian eta bere gudalozteak Enghien dukearen aginduan eukezala, I Karlosen gudalozteak Basto´ko markesaren agindupean egon ziranai, astindu ederra emonda, Krepy´ko egiune beartu eban, eta or amaitu ziran lau borroka aundi orreik.

1.547ko urtean Epaillaren 31ko egunean Ranbouillet´en il zan I Franzisko, eta bere ondorengo<sup>(2)</sup> semea 1.536ko urtean il zan ezker, II In Enrike beren bigarren seme igon eban Frantziren erregetzazko aulkira, onek, aurrera egin bear izanda borroka orreikaz, Gaztelako I Karlos eta bai bere seme II In Felipeen aurka.

### 1. 11. *Gaztelako I Karlos erregea.*

1.500eko Otsaillaren 24an, Beljikkako lurraldean, Flandeseko Ekialdearen Uri nagusi dan Ganteko errian gabeko iruterdietan, eta bere ama Prinsenhof printzearen jauregiko dantzaldian larritasunean agertuz komunera joanda, iñoren laguntza barik jaio zan Gaztelako Ia ta Vna Erromatar-Jermaniko Kaisertza Sakratuan izango zan, Austriako Absburgotar Karlos au.

Absburgotar I Felipe Ederra, esaten eutsoen Austriako Artxidukeari eta errege katolikoen alaba Juana, Zoroa esaten eutsen bidetik.

1.500eko urtean Epaillaren 7an bateatu eban Tournaieko gotzai Kik´tar Pierrek, San Baboneko eleiz nagusian. 1.447ko urtean Nanziko borrokan il zan beren bir-aitite Karlos Ausartaren<sup>(3)</sup> izenakin.

(1) Suntsituz = devastar. (2) Ondorengo = el Delfin de Francia. (3) Karlos Ausartaren izenakin = con el nombre de su bisabuelo Karlos el Temerario.

Bateatuko eleizkizun orreitan, I Karlosen aita Felipe Ederraren arreba ta Juan printzearen alarguna zan Austriako Margarita, Karlos Ausartaren alarguna York'eko Margarita, eta Tximay'eko printzea Kroytar Karlos Bergaseko jauna, aitabitxi amabitxiak izan ziran.

1.558ko urtean Iraillaren 21ean, Kazereseko lurraldean, Kuakos de Yusteko errian il zan I Karlos au.

### 1. 12. *I Karlosen azkuntza.*

1.500eko urtean Epaillaren 7an San Baboneko eleiz-nagusian bateatu eban Kik'tar Pierre Tournaieko gotzaiñaren ostetik, York'eko Margarita bere birramama eta Utrexeko Adriano kardinala, gero VI In Adriano Aita Santua izango zanak, arduratuko ziran bere azkuntzagaz.

1.501eko urtean Azaroaren 16an etorri ziran Felipe ta Juana erdiugarte onetara, errege ondorengo lez izendatu egiezen, euren seme Karlos York'eko Margaritaren zainpean itzita.

Eta I Felipe ta I Juana, Frantziko lurraldeetatik aldatzen egon ziranean, XII In Luis Frantziko erregeagaz alkartuta, I Karlos, onen alaba Klaudiagaz ezkontzea erabagi eben. Gero Bloiseko egiunean baieztuko zana.

1.506ko urtean eta Isabel katolikea il zan ostean, I Felipe ta I Juana etorri ziran ostera, erregetzazko koroia eskatzera.

I Felipe il zan baiña, eta II In Fernando katolikua bere alabea zoratuta egoala esanda, Tordesillaseko lekaimetxean sartu eban, berak eginda erregearen ordezkioak ortik aurrera.

1.506ko urtean I Karlosek, bere aita I Felipe Ederra il zanean, Olanda, Luxemburgo, Artois eta Frankoen konderria artu ebazan, gero, bere aitite II In Fernando il da artuko ebazan.



*Espaniako I Karlos 1.532-1-533eko urte bitartean Tizianok egineko argazkia.*

Aragoi, Nafarroa, Gaztela, Napoles, Sizilia, Zerdeña, eta Indias edo Ameriketean agertzen ziran lurralde ta ugarteak.

1.509ko urtean, gero aita santua izango zan Utrexeko Adriano kardinala izendatuko eben I Karlosen maisua, Lobainako ikastexe nagusian.

1.515eko urtean Urtarrillaren 5ean, Kroy'eko Gillermok lortu eban I Karlos nagusi lez izendatzea, eta Bekaldeko Erriaren jaun izendatu eben.

### 1. 13. *Ondorengo lez, I Karlosek artu ebazan izen-buruak.*

Erroma-Jermano Sakratutar kaisar erregetza, Senper Augustoren kaisar-izenagaz.

Gaztela, Leon, Aragoi, alde-bietako Sizilia, Jerusalén, Nafarroa, Granada, Toledo, Balentzia, Galicia, Mallorca, Sebilla, Zerdeña, Kordoba, Korzega, Murzia, Jaen, de los Algarbes, Aljezira, Gibraltar, Kanariaseko ugarteak, Indiano ugarteak, eta Itsas-Aundiko lur guztiarenak.

Bartzelonako konderrria.

Bizkaiko ta Molinako jauntzak.

Neopatria ta Atenaseko dukea.

Zerdeña eta Ruyselloneko kondea.

Gorziano ta Oristaneko Markesa.

Austriako artxidukea.

Borgoña ta Brabanteko dukea.

1.516ko urtean Urtarrillaren 22an Aragoiko II In Fernando katolikuak, bere azkeneko agiria agertuko eban I Karlosen alde, Gaztela ta Leongo erregetzak jaurkitu egiezan, bere alaba Juana zoroak, ezin ebalako ezer jaurkitu bere ustean.

Bai bere aldeko ondorengoek, ama Juanaren orde z jaurkitu egiezen.

Juana bizirik egoala, bera zalako izen-buru orre in eskubidekoa.

1.516ko urtean Urtarrillaren 23an il zan Fernando katolikua, ortik aurrera I Karlosek, erregezko izen buru ori artuta.

Eta emendik aurrera asi zan I Karlos oldozten, euki ebazan flamenkoen aolkulari bidetik, bere amak euki ebazan erregezko izen buru orreik bereganatzeko.

I Karlosen erabagi au, ez zan ondo ikusten Gaztelako gortean, semeak amari, ospe ta goi-mallako agintaritzta kentzea lez artzen ebalako.

Naita amar egun barru, II In Fernandoren eleizkizunak amaituta: Vivan los católicos reyes doña Juana y don Carlos su hijo. Vivo es el rey, vivo es el rey, vivo es el rey'eko deadarrez amaituta.

Eta 1.516ko urtean Epaillaren 4an Gaztelako aolkularitzak, eskutitz bat bialdu eutson I Karloseri, ama Juanak tituluduna izan arren, bere izen-buruakaz aurrera egian.

1.516ko urtean Epaillaren 21ean I Karlosek, eskutitz bat bialdu eban Gaztelako gortera, berak andik aurrera, erregearen izenagaz jaurkituko ebala esaten.

1.516ko urtean Jorraillaren 3an aolkularitzaren batzarrean itunketa eta ikerketa luze ondoren, Zisneros kardinalak, erregetzazko alkarte in aurkeztu eben I Karlosen erabagia.

Dana dala, korapillo aundiko denborak ziran erregetzazko izen-buruarenak, erregeak euren artekaritzazko jaurbidetik, al-osokerizko jaurbidera aldatzea gura eben zantzagaitik, baita Napoles eta Siziliako erregetzan be.

Eta 1.516ko urtean Jorraiaren 13an I Juana eta bere seme I Karlosek euki ebazan izen buru guztiak aurkeztuz.

1.516ko Loraillan Manrike de Larako Antonio Nafar errege ordeak deituta, Nafararren erregetzazko iru batzarrak batu ebazan, eta I Karlos artu eben euren berezko errege ta jaun lez, naita oraindiño Nafarroaren jabe borrokak amaitu barik egon 1.524ko urterarte.

*Ikusten dan lez, Espainiako itzak, ez eben euki denbora onetan inungo nortasunik, erabagi ori, 1.823ko urterarte ez zalako siñatu konstituzioren agiririk, VIIIn Fernandok siñatu arte. I Karlos eta osteko errege guztiak, ziñ egin bear ebazalako, lurralde bakotzaren Foruak, arik eta Espartero ta katoliko kideak, guda bidez menperatu arte.*

Bitartean, Aragoiko erregetzaren egoera naste-borraste edo naspilletasunezkoa zan, Aragoiko zuzen-eragilleak<sup>(1)</sup>, Aragoiko Alonso artx-apezpikuari ez eutsolako izaten ezer jaurkitu egien, Aragoiko erregetzan ardura orreik, erregetzazko ondorengorenak ziralako.

Aragoiko erregetzaren auzitegiak, arrazoa emon eutson Aragoiko zuzen-egilleari, beren erabagia baiña, I Juana erregeñaren sendagille lez jaurkitu leikela zan.

Aragoiko zuzen-eragillearen erantzuna gogorra izan zan, I Juana ez eukala ezeren ondorengotasunik esanda, Juanaren ziñezpen orreitan baldintza bat eukelako IIIn Fernandok semeen bat eukiten ba eban, eta 1.509ko urtean IIIn Fernandok, seme bat euki eban lez Foixeko Jermanarekin, nai ordu gitxi barru il arren, bera izan zalako Aragoiko erregetzan azkeneko ondorengotasun euki ebana.

1.516ko urtearen Loraillako 13an I Karlosek, onartu ebazan artx-apezpikuaren almenak I Juana erregeñaren sendagille lez.

Aragoitarrak baiña ez eben onartu eta ez eutsoen ziñezpenik egin.

Aragoiko erregetzaren aldundiak bestaldetik, onartu eban Aragoien erregetzarako, I Juanaren ondorengotasuna, gaxoa zan lez baiña, aldendu bear zan Aragoiko jaurbidetik, bere seme I Karlosek zuzendu egien, naita Aragoiko erakunde guztietatik onartu ez I Karlosen jaurbidea, arik eta Aragoiko Foruen askatasunezko legeai, ziñez itz emon arte.

1.516-1.556ko urte bitartean, bere amagaz batera, I Juana izenduna zalako, baita I Karlosek bere izenakin jaurkitu ebazan euren agindupeko eta jauntzazko lurraldeak.

Erregetza onetan, Gaztela-Aragoi batera jaurkitu ziran eta baleiteke Nafarroa be.

1.517ko urtean Jorraiaren 1ean, Xn Leon Aita Santuak bialdutako buldari esker<sup>(2)</sup>, lortu eban I Karlosek erregetzaren izen burua.

1.517ko urtean Iraillaren 8an eta goizeko bostetan urten eban I Karlosek, Olandako lurraldean, Zelandiako erri-alde edo lurraldearen egoaldean Eskalda ibai bokale agoan dagon Waltxeren ugarteko Flesingako kaiatik Santanderrera.

(1) Zuzen-Eragillea = ministro de justicia. (2) Aita Santuaren bulda = Pacificus et eternum éko idaz-burua eukena.

1.517ko urtean Iraillaren 19ko zapatuan, Itsasoan egon zirala, ekaitz gogor batek, bidetik atara ebazan, eta Billabiziosako kaiaren aurrera elduta, 40ko guda-ontzidi aundi ortik, zalantzazko denboragaitik bertan lurreratu ziran, Santoñara joan barik.

1.517ko urtean Azaroaren 4an I Karlos, Billabiziosatik Tordesillasera joan zan bere ama Juana ikustera, eta bide batez, Txiebresek, bere ama Juanari sinatuazo eutson, I Karloseri Gaztela Leongo erregetzak jaurlitzeko baimentzen eban eskutitza artzeko, Gaztelako gortectan bere erregetasunari, legezko antz-bat emon al izateko.

Eta Balladolizen egoala jakin eban, Zisneros kardinala il zala.

1.518ko urtean Otsaillaren 9an I Karlos Balladolizen egoala, Gaztelako gorteak batu ebazan, eta bertan izendatu eben I Karlos errege lez, bere ama Juanagaz batera, baldintza onekin:

*Gaztelerea ikasteko bearra.*

*Gortetarako, atzerritarren izenpetzeak amaitzea.*

*Gaztelako lurraldeetatik, zaldi, urre-gorri, arri-bizi edo ta arri-bitxien urteerak geratzea.*

*Eta Tordesillaseko jauregian zokoratuta egon zan bere ama Juana, arrera edo begirun obeagoagaz eukitea.*

Balladolizeko orokorrezko batzar onek baiño ariñago I Karlosek, ez ebalako eza-gutzen gaztelatarren oitura, izkuntz eta lege aldetik gauza gitzitik kanpo baiño ezer, Beko Erri aldetik ekarri ebazan borgoñesai, andikien izen-buru ta diruak agindu eutsezan, gaztelarrak guztiz minduta asarratuz, eta Balladolizeko batzar oneitan, I Karloseri esan eutsiena entzun bear izan eban, naita berak, jaramon eginbage itzi.

1.518ko urtean Lorailaren 9an I Karlos, Zaragozara eldu zan.

1.518ko urtean Lorailaren 20an Aragoiko gorteak batuta, eta azterketa gogorren ostean, I Juana bere ama eta bera be, Aragoiko errege lez onartu eben, bere ama Juanari 20.000 azta edo libera emonda, naita bere izen buru guztiak, izenezkoetan itzita, euren ustez, bera ezalako gai ezer zuzentzeko.

1.518ko urtean II In Enrikek, itzarmen bidez Erault'eko lurraldean Montpellierreko erriaren egoala, Gaztelako I Karlosekin ostera saiatu zan Nafarroaren ego-aldea askatu egian, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.



*I. Karlosen espainako armaria, bera kaiserra egin orduko.*

1.519ko urtean Urtarrillaren 12an Alemaniako kaisar Maximiliano, Karlosen aitite il zan.

1.519ko urtean Otsaillaren 15ean I Karlos Bartzelonan sartzen da eta urrengo egunean gorteak batuta, Jorraillaren 16an bere ama Juanagaz batera, onartuak izan ziran errege lez.

Eta 1.519ko urtean Ekaiñaren 28an Alemaniako lurraldearen Maineko Frankfurren, I Karlos, Erroma-Jermaniko Sakratuaren kaiserra izateko artu eben, Vn Karlosen izenakin, aginte orreitarako aukeratzen ziran zazpi printzeari, diru-mordo aundiak emonda gero.

1.519ko urtean Azaroaren 7an, Komuneroak Toledoko uritik, eskutitz bat bialdu outsoen gaztelaniako berezko uri ta kolonizazioz erritu ziran uri guztiari esaten, ez ebela onartzen I Karlosek eskatzen ebazan diru guztiekin, Alemaniara joan ta Erromano-jermanikoen kaiserra izendatzeko, eurok ainbesteko bearra eukinda, eurak ziralako leenak Karlosen jaurbidean.

Zalantza orren artean, erregearen al-osokerizkoen alde egon ziranak, *“Errege bateg, ez eukela inñori zetan ezer entzun”*.

Erritar-zentzunezko Dabalos´tar Ernandozek, bereala erantzunda: *“Ez dala erregea, erregetza egiten dauenak, erriak baiño”*.

Eztabaida oneik, gaztelaniako erri txikerreraño elduta, danak artegatu ebezan.

1.519ko urtean, Ugarterdi onen sortaldeko artean<sup>(1)</sup>, jermaniren<sup>(2)</sup> alkartekoak artegatu ziran eztabaida oneikaz, eta larritasunezko denboretarako In Fernando katolikuen bidetik, baimena euki eben lez guda-taldeak sortzeko, I Karlosek baimena emon ostean, Lloret´tar Juanen agindutara ipini ebazan, sortutako guda-talde orreik.

1.520ko urtean eta diruaren eztabaida orreik luzatu egin ziralako, Gaztelako gorteak 300.000 azta edo libera I Karloseri emotea erabagi eben.

1.520ko otsaillan, I Karlos eta komuneroen arteko arremanak gogortzen joan ziran, I Karlosek Padillatar Juan eta Dabalostar Ernando, bere aurrera joan zitezen aginduta, argitu egiezan zeren atzean ibili ziran, edo eurak beragaz euki ebezan asarreak, adierazi egiezan, erabagi batera eltzeko.

I Karlosen eskaera onek, ia matxinatu ebazan gaztelatarrak, eta gogortzen joango ziran Gaztelar komuneroen aldeko eritziak, I Karlos erregearen, flamenko laguntzaille ta erregeen al-osokerizko alde egon ziran gaztelarrekaz, artean egon ziran diru-eskaerak beste kaisertza baten koroia artzeko, benetako gaztelar erritarrak ez ebalako ulerzen atzerritar jaurkintza ori, euren jaurkintzakin naikoa zala usten ebalako.

1.520ko urtean Epaillaren 20an I Karlos, Erroma ta Jermaniako kaisar Sakratuagaz koroatzeko aukeratua izan zan ondoren, Balentziara euken bidaia ezereztuz, Gaztelako gorteak, Konpostelako Santiagon batzea erabagi eban, bertan dirua batu ta, Alemaniara joateko itxaropenagaz.

Balentziara, Utretxeko Adriano bialdu eban bere ordezko izenean errege lez artu egien, bera gero al izan zediñ Balentziako gorteak batzeko.

Guztiz, legez kanpoko ekiña zan lez, gorteko aundiek ez eben ontzat artu gura, eta gudu ta eleiz-agintaritzaren artean, Jermanien gora beran ez ziralako konpontzen, ez ziran ospatu gorteko batzar orreik.

(1) Sortaldekoen artean = los de el Levante (Balencia). (2) Jermanikoen arteko elkarteak = hermandades de artesanos.



## 1. 14. *Oar txiki bat emen.*

*Emen konturatu zan I Karlos, denborako aurrerakuntz guztiak, ez ziralana naikoak, bere gogoko kaisartzaren al-izantazunezko indar guztia, bere eskuetan gura ba eben euki.*

*Katolikokotasunaren aberkidezko batzangotasun orreik, geiago eskatzen eutzolako, edo berak al eben guztia, katolikotasunak euki ebazan arau sortarako bideratuta egon zalako, erritarren jaurpidea kontuan artu bage.*

*Orregaitik agertzen zan beartuta, al eben diru guztiak batzen, ez ziranak inoiz naikoak izan, katolikotasunezko montio orrek, geiegi bear ebalazako, ezin ditekena lortzen, Jaungoikoak ipini euskuzan legearen aurka, ezin dalako ezer egin.*

*Eta bide ortatik joango da gaurko egunerarte, erdiugarte onen errigizartearen jaurbide guztia, berezko ta ezberdiñeko errigizarteak kontuan euki barik, ezin diralako lortu katolikotasunaren batzangotasunezko aberkuntz orreik, Europa ta mundu guztian ezartzeko.*

*Gauza ederrena baiña, gaztelar komuneroek erakusten eben askatasunezko demokrazia zan.*

*Ez ebelako aztu, euren ariñauko euskal bizitzatik, lortu eben askatasunezko demokrazia, oraindiño, euren baitan euki ebelako ondo oiñarrituz.*

*Txarrena, emendik aurrera ikusiko dogun lez, zentzun aundiaren askatasunezko demokrazi orreik, galduko ebezala komunero-gaztelarrak da, I Karlosek, euren buruak moztuten asi zanetik, aiñ sarraski aundiak eginda, berezko erritar guztien nortasunak kikildu ebazalako.*

1.520ko urtean Jorraillaren 30ean, eta eztabaida orren bitartez matxinatzen asi ziralako, I Karlosek, agiri bat bialdu eutsoen, ziñez itza emongo ebalana, euren Balentzitar Foru Legeak gorde ta zaintzeko.

1.520ko urtean arazo onekaz batera, Gaztelako erkidetasunezkoak<sup>(1)</sup> asarratzen joan ziran.

Medina del Kanpoko asarrea, Gaztela guztitik zabalduta.

Aundikiaren aurka egin ziran matxintasanak, I Karlosen alde ipini ziran, eta matxintasan orreik indarrean makaltzen joan ziran.

1.520ko urte onetan, izurri edo elderria<sup>(2)</sup> zabaldu zan Balentziatik, eta aundikiaren alde egin ebenean izurritik, Utrex'eko Adrianok<sup>(3)</sup>, I Karlosek emon ebazan guda talde orreik ezertuteko aginduaria jaramon egin barik, guda-talde onekaz jabetu zan, Balearreko ugarteetara zabalduz, 1.523ko urterarte iraun ebena.

1.520ko urtean Urrillaren 23an eta Frantziako I Franziskoren aurkako leian, I Karlos Kaisar edo Erromanoaren errege koroatu zan, Akisgraneko eleiz nagusian.

I Franziskoren aurkako leiaketa onek, diru asko balio eutson I Karloseri, berak Gaztelako gorde eta Alemaniako Welsler eta Fugger diru-etxearen jabedunai eskatuta.

1.520ko urtean Urrillaren 26an, iru egun geroago, Romano-Jermaniko kaisar sakratua izendatu eben, ospakizunezko gauza onekaz 1.522ko urterarte lotu ebena, gaztelaniako lurraldeetara joan ezinik.

(1) Erkidetasunezkoak = comunidades o comuneros. (2) Izurri edo elderria = epidemia de peste. (3) Utrex'eko Adriano, gero VI In Adriano Aita Santua izango zana.

1.520-1.558ko urte bitartean, Erroma-Jermanikoen kaisertza sakratuan Vn Karloseri, Zesar deitzen eutsoen, bere aitite Absburgoko I Maximiliano ta amama Borgoñako Mariaren bidetik, Borgoñon ta Austriako lurraldeakaz, baita kaisertzaren aulkian ezartzeko eskubidea eukalako.

Eta errege katolikoen alaba Juanaren bidetik, Gaztela, Aragoi, Nafarroa, Indiak, Napoles, eta Siziliako erregetzak.

1.521eko urtearen Otsaillan I Karlosek, agiri gogor bat agertu eban Komuneroen aurka.

1.521eko urtearen Jorraillako 23an azkenez, Balladolizeko lurraldean eta Billa-larreko erriaren borrokan, Lopez ta Padillatar Juan komuneroen buru zana, Brabotar Juan Segobiako yaurlaria zana<sup>(1)</sup>, eta Maldonadotar Franzisko matxinatuen zuzendaria menperatu ebazan Vn Karlosek, eta berezko errigizartearen askatasunezko demokraziaren aldekoak izateagaitik, euren buruak moztu eutsezenean, amaitu ziran lurraldearen erkidetasunezko matxintasun<sup>(2)</sup> orreik, baita ortik aurrera, gaztelar erritarrak nortasun barik geratzea be.

1.521eko urtean Nafarroako II In Enrikek, Gaztelarren erkidetasunezko matxintasunakin oartuz, Frantziako I Franziskori eskatu eutson laguntzagaz alegindu zan, Be-Nafarroako lurraldeak berrezkuratzen, eta alan egin eban denbora txiki baten beintzat, Nafar jendea pairubage<sup>(3)</sup> agertu zalako, Frantzitarren laguntza auskor edo zatikorra<sup>(4)</sup> zala konturatu zanean, Nafartarrak nazkagarri, zirkiñik be ez ebalako egiten iñoren alde.

1.521eko Bagillaren 10an, II In Enrikek, Foixeko Andresek bideratzen eban Nafartar, Gaskoi ta euskal frantzesakaz osotutako gudaloztea, Donibane Garazitik sartuta, Nafar egoaldeko lurrak asi ziran berrezkuratzen, eta Iruña artu ondoren, Lizarra, Tafalla ta ia Nafar osoa berreskuratuta euki eben.

1.521eko Bagillaren 30eko Igandean, III In Luis Leringo kondeak bideratzeko, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Errioxatarrakaz antolatu zan gudaloztea, asko lagundu eutson Gaztelako Igoa ta Alemaniako Vn Karloseri Elortzibarko ibarraren Noaineko errian, eta Ezkirotz ta Barbataineko zelaietan, 5.000 gudarien gorputzakaz odolezko oiñ-azpiko lez beteta itzi ondoren, ostera galdu eban II In Enrikek aiñ garrantzizko borroka au.

Eta gaztelarren berrezkuratzea, azkar egin zana zan, Nafar erria indarbage egon zanetik.

Kontuan euki, euskaldunen anai guda izan zala au, Euskaldun guztiak, arekaz edo emekoakaz lotuta egon giñelako, bakoitzaren itzarmen bidetik.

1.522ko Uztaillaren 19an, Noainetik 200 gudari Maiako Gaztelura joanda, euren artean, Frantzisko Javier Donearen anaiak zirala, ia urte betean eutsi eutsoen, baiña menperatu ebazan.

1.522ko urtean, Magallanes´tar Fernandok amaitu eban, Sebastián ta Elkanotar Juanek, mundu oneri ingurutzeko asi eban bira.

Urte onetan, Marianas eta Filipinaseko ugartearen erregetzazko aginpidea ezarri zan.

(1) Brabotar Juanek = Beren burua moztutea eskatu eban leen, ez ebelako ikusi gura beren lagunen buruak, zelan moztuten ebazan. (2) Lurraldeko Foruen-erkidetasunezko matxintasunak = reivindicaciones de los territorios comunitarios en sus derechos Forales. (3) Nazkagarrituta, pairubagean geratuta = imposible por estar asqueada de tanta sinrazón. (4) Auskor edo zatikorra zala = que la ayuda esa era muy frágil.

1.523ko urtean I Karlosek bere itzulkeran, ainbat antolamenduzko aldaketak egin ebazan jaurkintzazko agintarien artean, eta batez be, Balladolizeko gorteeetan.

1.524ko Otsaillaren 29an Ondarribi, ia iru urtean inguratuta egonda, Albako du-keak menperatu eban. *Eta emen amaitu ziran Nafartarren gudak, bere egoaldeko lurraldeak berrezkuratzeko.*

1.525eko Otsaillaren 24an, IIen Enrikek Frantziako errege I Franziskori, Pabiako gudan laguntzen egoala Gaztelako I Karlosen aurka, Bizkaitar Urbietatar Juan gudariak, Frantziko errege I Franzisko atrapau eban, ankea zaldiaren azpitik atara eziñik egoala, eta euken guda-loztea menperatuta, errege biak atxilotu ebazan Gaztelako I Karlosek.

1.527ko urtean urte bi beranduago, biak iges egin eben I Karlosen atxilopetik.

1.528ko urtean Loraillaren 16an I Karlos Balentzira joanda, zindu ebazan euren Foru-legeak.

1.528ko urtean Ekaiñaren 1ean I Karlosek Monzonen, orokorrezko batzarrak os-patu ebazan.

Eta lau urte auen ostean, Balentziako ziñezpena kontuan artu barik, I Karlos, Gaz-tela, Aragoi eta Nafarroako errege izendatu eben.

Oraindiño artekaritzazko errege lez, Foruai ziñez itz emon bear eutsoezelako, egoera au laster, menpetasunezko al-osokerira aldatzen joango da, Komuneroekin asi-ta, gaztelerazko erritar ezberdiñen askatasunezko demokrazien eskubide guztiak, eze-reztuarte.

1.530eko urtean Otsaillaren 24an eta I Karlosen urte egunean, VIIen Klementek Bolo-nian, *Katolikotasunaren-aberrikuntzazko-Erroma-Jermaniko kaisar sakratua* izendatu eban, Aita Santua, Frantziko I Franziskoren eritzizko aldetik, I Karlosen eritzizko aldera aldatuz.

Eta emen amaitu edo osotu jakozan I Karloseri, Gaztelako katolikotasunagaz euki ebazan arazoak.

### 1. 15. *Oar txiki bat emen.*

Gaurko espainitarren ametsean eta eurak esaten daben lez, *orduko espaina bat izan zala*, argi agertzen da emen, lurralde bakoitzak bere nortasunezko foruak euki ebezala, eta gaiñera Euskalerrria goian ikusi dogun lez *beste aberri batekoak giñela*.

Orregaitik, *gura izatea ta izateak* emen, ez dira bardiñak, bakotzak euren esku-bideak euki ebazalako, ulermeneko oitura ta izkuntzazko aberrietan bardintasunik ez ebelako euki.

Aberrikuntz ezberdiñak zorro baten sartuteagaz, kakanaste audienetarikoak sor-tzen dira ulermenean, eta orregaitik gaurko premiña ortik urteteko, ulermenez ezin diralako naste orreik iñundik iñora jaurkitu.

Eta I Karlos oraindiño al-osokeriz, erdiugarte onen orokorrezko erregea izan ba-rik, Foru-legez, artekari bat baiño ez zalako izan, arik eta erregezko bide orreitatik katolikotasunean aberritu edo batu ezinik, Frantziko iraultzaren ostean eta berezko erri ta erritarren eskubide guztien aurka, 1.808ko urtean gaztelaniako guda-l-nagusi areik ain zuzen, guda-legez, katolikotasunezko menpekotasun orreik, erdiugarte onen jaurgoko-legeetan biurtu arte<sup>(1)</sup>.

(1) Jaurgo legeetan biurtu arte = convertir la legalidad arbitral por imperativo mitlitar, en leyes cons-titucionales impuestas por las armas.

**1. 16. *I Karlosek euki ebazan borroka nagusiak Frantziako I Franziskoren aurka, Europan aita santuak euren buru gainetan dingilizka ipinten eban kaisartzazko domiña eroateagaitik zan.***

1.521eko urtetik aurrera I Karlosek, lau guda nagusi euki ebazan Frantziako I Franzisko erregearekin, eta 1.556ko urtean, I Franzisko erregearen ondorengoa zan II Enrikegaz, azkenekoa.

***1.521-1.526ko urte bitartean Lenengoa:***

Frantziko I Franziskok, Milanésadoba bereganatu eban, eta Nafarroako II Enrike-ri lagundu eutsen, Nafarroa berrezkuratzen.

1.525eko urtean Pabian borrokatu ziran biak eta I Karlosek, Frantziko I Franzisko ta Nafarroako II Enrike atxilotu ebazan.

1.526ko urtearen Madrilleko egiunean I Karlosek, beartu eban I Franzisko, Milanésadoko jabetasuna ostera berari itzultzen, eta Nafarroako erregeari emoten eutsen laguntza Nafar ego-aldea berrezkuratzeko, geratu.

Naita, illabete batzuk beranduago, I Karlosek indarkeriz beartu ebalako, I Franzisko ostera beren ekintzatan asi, I Karloseri Borgoñako lurraldea emon eta Flandes ta Italiako lurraldeai uko egin eta gero.

***1.526-1.529ko urte bitartean bigarrena:***

I Karlosen gudalozteak, Erroma saskildu eben, eta Koñak'eko alkartasun edo itzarmen ostean I Franziskoren alde egon zan VII Klemente aita santuak, San Anjeloko gazteluan ostondu bear izan eban, Gaztelako I Karlos bere atzean ibili zalako.

Kanbraiko bakearen bidez I Karlosek, Borgoñako lurraldea itzi eban, eta I Franziskok Flandes eta Milaneko lurraldeak, Tournayko uria I Karloseri emonda.

Eta 1.530eko urtean VII Klementek gaztelako I Karlos koroatu arren Erromatar Jermanikoaren kaisar sakratu lez, I Franziskoren aurkako borrokatan iraun eban.

***1.535-1.538ko urte bitartean, irugarrena:***

Absburgoko erregetzagaz alkartuta egon zan Saboyako lurraldea saskildu eban Frantziko I Franziskok, Milaneko lurraldeetara joateko itxaropenagaz.

I Karlosen gudalozteak agertuta baiña, Nizako gud-arteagoagaz amaitu zan borroka au, biok be ezin ebelako, ainbesteko guda-alegiñakin iraun.

***1.542-1.544ko urte bitartean, laugarrena:***

Borroka au amaitu zan, biok be gogaituta egon ziralako ainbesteko guda-alegiñakin, eta baita Alemanian, ukalarien arazoak ostera asi ziralako.

Krespiko bakeagaz amaitu zan, I Karlosek Frantziko Iparraldean euki ebazan Flandes, Berdun ta abarreko lurraldeak galduta.

Eta Frantziko I Franziskok, Italia ta Beko-Erriari uko eginda, Milaneko jabetza zalantza askokoa zalako, Gaztelar ta Frantzeztarren artean egingo zan ezkontza bategaz lotu eben.

## 1. 17. *Luteroen bidez, Gaztelanian agertu ziran erlijiozko arazoak.*

Gaztelako I Karlosen erregetzazko arazoak, Erromatar kaisar sakratuaren buru Vn Karlosen izenarekin izendatu ebenean konpondu ziran, eta beste arduraren artean, Dietas deitu ziran erri-arteke edo Laterri ezberdiñeko batzar aien ardureak artu ebazanean.

Ata guzti, buruko miñ aundiak agertu jakozan I Karloseri erlijioaren bidez, Alemanian agertutako ukalarien eraberrizko zaletasunak, ezin ebazalako inñundik inñora geratu.

1.521eko urtean ukalaritzaren zabalkuntzak, geratu ezinezkoak biurtzen joan ziralako, Alemaniaren kaisartzazko lurraldean eta Renaniako ekialdean egoan Worms'eko urian egin ziran batzarretan<sup>(1)</sup>, I Karlosen anaia Fernando, kaisartzaren ordego lez izendatu eben, artxidukearen izen buruarekin, eta Luterotar Martin atzerriratu, luteranismoak euken indarra geratzeko alegiñetan.

Ekintza orreik ez eben balio, erlijio biak aurkaratzeko baiño besterik, katolikotasunak ez ebelako jakin zelan aurre egin, Lutero aurkeztzen ebazan arrazoiai.

1.523ko urtean I Karlosek, Malta ta Gozo'ko ugarteak eta bai Libiako Tripoli Maltako erakundearen lekaideai<sup>(2)</sup> emon edo arduratuko ebazan, Luteroen eritizizkoak *Ukalarien izena* ontzat artu egien.

1.526ko urtean Espirako batzarretan, ezereztu egin ziran Worms'eko batzarretan erabagi zana.

1.529ko urtean eta bigarren erri-arteke Dieta edo batzarretan, Vn Karlos kaiserraren aurka agertu ziran, Wormseko batzarretan artu ziran erabagiak berriz agindu gura ebazalako.

Erabagi orreik 1.526ko urtean eta Espirako batzarretan kentzea erabagi zan.

1.530eko urtean Vn Karlos Alemaniako kaiserra koroatu ostean, Aujsburgon egin ziran batzarretan, bertan Ukalari ta Katolikuak aurkaritu ziran, Vn Karlosek 1.521eko Worms'eko batzarretan erabagi zan, ukalarien exkomunikatutza, ezarri ebalako ukalariantzat.

Beste ardurara aundi bat be agertu jakon Erromatar kaisar sakratuaren buru izan zan Vn Karloseri, Turko muslimeak<sup>(3)</sup> egiten ebazan bultzakadak geratzeko.

1.531ko urtean ukalariak, aukeratzezko printze<sup>(4)</sup> batzuk alkartu ziralako, *Barriztutako Erakundeen* ordeztogtzako izen barriarekin aurkeztuta Sajoniako Juan Fedrikoren agindura, Esmalkaldako elkartasunari bidea zabalduta erantzun eutsoen, Vn Karlosen erabagiari.

Alkartasun onek gudalozte eta diru-kutxa bategaz sortuta, ukalarien elkartasuna be deitu jakon.

1.545eko urtean Abenduaren 5ean IIIIn Paulo Aita Santuak, onartuta eleizak berrikuntza bat bear ebela, Trentoko eleiz-batzar nagusiak batu ebazan, ukalariak ez ebena ontzat artu.

Trentoko eleiz batzar onen amaiera ez eben ikusi IIIIn Paulo Aita Santuak, ez eta Vn Karlos kaiserrak be.

(1) Batzarrak = Dietas. (2) Maltako erakundeari = Orden de Malta, o, caballeros hospitalarios, que también se denominabam como "San Juan de Jerusalén. Ordenes que fueron reformadas en la Dieta de Espira celebrada en el año 1.529. (3) Muslime Turkoak = Turkos musulmanes. (4) Printzeak = errege edo ta kaisertzazko seme edo gorengo maillako senideak izaten ziranak, eta Erromako Kaisar sakratuaren aulkirako, aukeratu leukiezanak.

1.546ko urtearen Ekaiñan eta ukalarien ezezko erantzuna artu ondoren, Vn Karlosek, gudan asi zan Aita Santuak osotu eben gualozteagaz, Farnesiotar Oktabioren agindupean, beste gualozte bat, Austriako Fernandorekin, eta irugarrena Be-Erriaren gudariek in Buren´eko Kondeagaitik bideratuta egon zana, baita Esmakaldako batzarretik baztertu eben Sajoniako Maurizio´rengaitik.

1.547ko urtean Jorraillaren 24an eta Sajoniako dukerrian dauan Kottbuseko lurraldean Mühlberg´eko erriaren borrokan menperatu ebazan ukalarien elkartekoak, garaipen aundi bat lortuta Vn Karlosek, eta denbora gitxi barru, Alemaniako printzeak etsaimendu jakozan.

1.548ko urtean eta borroka onen ostean baiña, Aujsburgoko eleizaren itzarmentetik zer agertuko ote zan itxaroten egon zirala, kaisertzazko ezkutu edo isilkorrezko erabagi bat agertuko zan katolikoen eleiza jaurkitzeko, Aujsburgoko batzarraren bitarteko bat lez, esagutuko zana.

Barruko erabagi orreitan, ontzat artzen ziran katolikotasunezko erabagiak, baita baimendu egiten ebazan giza-mota bien lekaidetza, eta apaizaren ezkontzak.



***1.547ko urtean, Europako lurraldean Absburgotarrak euki eben, jaurkintzazko ardurea.***

1.552eko urtean eta borroka iraun ebelako, Vn Karlosek Babierako lurraldean Naszauko errian batzartuta, on-artubear izan eban erlijioen mota ezberdineko askatasunak.

1.552ko urtearen Urtarrillan, Txanbord´eko alkartean, Esmalkaldako ukalarien elkartekoak gualozte barri orreik Sajoniako Maurizioengandik bideratuz egon zirenak, askok, Frantziako II In Enrikegaz alkartuko ziran.

Oneri, beren diru ta gudako laguntzagaitik, Metz, Berdun, eta Toul´eko gotzaitegiaren jabetasunak agindu eutsuezan kaisertzaren ordezkoko lez.

Vn Karlosek, printze onein erasozko alegiñagaitik Sajoniako Maurizioaren agindupean, Austriako ego-aldean dauan Karintiako errian babestu bear izan eban, Frantziako II In Enrikek, Metz, Berdun ta Touleko gazteluak menperatuz.

1.552ko urtean Passauko egiunean, Vn Karlosen Fernando anaiak, Romanostarren errege lez, bakearen antolak egin ebazan Vn Karlosen izenean, bertan ukalarien eleizkizunari askatasun osoa emonda.



Ata guzti Vn Karlosek, bakezko garaipen onen ostean, ez eban katoliko ta Lutero-tarren arteko polititikan ta errigizartean alkartzzea lortu.

Vn Karlosen anai Fernando Errmanoen errege lez, eta Frantziagaz guda au ikusita bake billa, Passauko egiunean ukalarietak itzarmendu zan, eta bertan esan eutsoen, zelan: Vn Karlos bere anaiak, baiezten eban ukalarien gurrkintzazko askatasuna<sup>(1)</sup>.

Vn Karlosek, naita berrikuntz onen aurka 50 urteko borroketa garaipen aundiak euki, ez eban lortu, Ukalari ta Katolikotasunaren erlijiozko eritziak alkartu, ta beartuta agertu zan Aujsburgoko Bakearen itzarmenak egiten.

1.555eko urtean Aujsburgon egin ziran Bakezko itzarmenetan, onartu eban Vn Karlosek, Alemanak eskubide osoa euki ebela, erlijiozko ukalari edo nai katolikotasunaren eritzieta ezartzen, eta emen amaitu ziran, 50 urtetan egin ziran berrikuntzaren aurkako<sup>(2)</sup> ekintzakaz.

### 1. 18. *Turkoen aurkako borrokak.*

1.533ko urtean Frantziako I Franzisko Turkoakaz alkartuta, I Karlosen aurka, bildur izan zalako beren aurka agertu zediñ, Jeireddin Bizar-gorria aolkatu eban, gaztelarrak Arjeletik bota egiezan, ta Bizar-gorri edo Barbarroja orrek bere lana bete eban, Soliman turkoagaz alkartu zan, Soleimanek ontzidi osoaren amirala izendatuta.

Eta 1.534ko urtean Bizar-gorri itsas-lasterkari<sup>(3)</sup> orrek, Tunez artu eban.

1.535eko urtean, Turkoak, Lurrarteko Itsasoaren<sup>(4)</sup> bazterretan zabaltzen asi ziralako, I Karlosek Tunez artu bear izan eban Jeireddin Barbarrojaren aurka.

Naita 1.541eko urtean I Karlosek Arjel'en, Bizar-gorriaren aldetik astindurik artu ez, itsasoan agertu zan ekaitzagaz naikoa euki ebalako.

### 1. 19. *Indias edo Ameriketako lurra erri barriekaz kolonizetako, bertan jaiotako odoljariozko menperatzeak, I Karlosen denboran.*

#### *Mexico:*

1.520ko urtean eta Ekaiñaren 25ean, Mexikora egin zan irugarren gud-aldian, eldu ziran Kortes'tar Ernan bere gudari ta lekaideekin lur orretara, eta ortik urrillara uste da menperatu ebazala Moktezumaren mexikarrak, bertan Espaini-Barriko erregeen Ordegotza<sup>(5)</sup> irasita ortik aurrerantzerako.

#### *Guatemala:*

1.523ko urtean Mexikotik, Kortestar Ernandok 300 gudariek, kañoiakaz eta bertoko 300 semeekin bialdu eban Albaradotar Pedro, eta bera izan zan len ikertu ta menperatu ebezanak Guatemalan egon ziran Mayaren lurraldeak, Guatemalako erregetza sortuz.

#### *Peru:*

1.533ko urtean Abenduaren 15an menperatu ebazan Pizarro'tar Franziskok, Ataulpa ta beren Inkaikotar semeen guda-mutillaren taldeak, Perun be, erregearen-ordegotza irasita.

(1) Ukalarien gurrkintzazko askatasuna emoten ebala Vn Karlos bere anaiak = declaraciones de Fernando, dando libertad de culto a los protestantes por mandato de su hermano Karlos V. (2) Berrikuntzaren aurkako ekintzakaz = esfuerzos que se hicieron con la contrarreforma. (3) Itsas-lasterkari = corsario. (4) Lurrarteko Itsasoa = Mar Mediterraneo. (5) Erregeen ordegotza = Virreinato de la nueva España.

**Kolonia:**

1.501eko urtean, Kolontar Kristobalegaz ibiliko Ojeda´tar Alonso izan zan, leen eldu zana lur orretara, gero Kolonen omenez, bere izena ipinita, Kolonbiako ur-mendi-basatsu lur zabal orreri.

Eta 1.525eko urtean Uztaillaren 29an, Bastidastar Rodrigok menperatzeko ekin-tzan asita, betiko irasiko eban leen, Santa Martako uria.

Gero, Quesada ta Jimeneztar Gonzalok, Txibtxas´eko erritarrak menperatuz, Granadako Erregetza-Barria irasi eban.

**Benezuela:**

1.498ko urtean Dagonillaren 5ean eldu zan lenengoz Kolontar Kristobal, Yakuako itsas-kolko antzekora.

Eta 1.525eko urtean Kastellontar Jakomek, menperatzen asi, ta Kordoba Barriko uria irasi eban, gaur Kumana deitzen dana.

1.528ko urtean ta Madrilleko itun edo elkargo bidetik I Karlosek diruaren eske, Aujsburgoko Welser´tar Bartolomius´en<sup>(1)</sup> sendiari akuran edo alokatuaren ordezkutson dirua, bera Erromano-Jermaniko katolikuen kaiserra izendatu egian. Benezuelako lurraldea, Klein Benedij´eko Alemanaren jaurkintzazko talde bateri bideak zabalduta.

**Kito´ko Uria Ekuadorreko lurraldeetan:**

1.534ko urtean Abenduaren 6an, Belalkazartar Sebastianek Kito´ko erria irasi eban, San Franziskoren izenagaz.

Kito´ko erregetzatik urten eben Belalkazartar Sebastián ta Orellanatar Franzisko, euren ametsezko Eldoradoren billa, Belalkazarrek Kitoko uria irasita, eta Orellanak Guayakileko uria irasi ondoren, Amazonaseko basaldean sartuta, Amazonaseko ibaia agertu ebana.

1.534ko urtean Dagonillaren 24an Garzia de Moger´tar Diegok, bigarren gudaldi baten, sillarrezko ibairantza urtetan dau Sorkunde<sup>(2)</sup> itsas-ontziagaz, eta Santiago ugartea, ori-urdiñeko lur-mutur, eta gero Brasiletik igarota, Uruguay eta Parana´ko ibai bitartean Aize-Onaren<sup>(3)</sup> uria irasi eban.

Denbora gitxi geroago Salazartar Juan eta Mendozatar Gonzalok, Asunzioneko Uria irasi eben eta Baldibiako Pedrok Txile´ko Santiago Uria irasiko eban.

1.537ko urtean Otsaillaren 27an I Karlosek itsasoko gudarien taldea irasi eban.

20. *Gaztelako I goa eta Alemaniako Vn Karlos errege ta kaisertzaren utziera*<sup>(4)</sup>, *eriotza, eta beren gorputzeko ondarraren aldatzea.*

Vn Karlosek, bere bizitzaren amaierara elduten egoala jakin ebalako, bere bizitzaren pentsakerazko gogoraldi baten sartu zan, ainbeste borroka eta arazo ostean, beren biziko ekintzak edo bere izatearen giza-bidea<sup>(5)</sup>, Europaren egoera, eta abar, zelagoak izango ote ziran ikertzeko.

XVI gizaldiko erdi onetan, beragaz batera euki ebazan aitzindariak, Europa onen antzokia marrazteko, il ziran:

(1) Welser´tar Bartolomius = 1.488-1.561eko urte bitartean bizi zan Alemaniako diru-etxe baten buru. I Karloser ainbat diru aldikoz itxi eutsonea, I Karlosek 1.528ko urtean ordezkutson Benezuela menperatu ta koloniki sortu edo erriaren baimenagaz emon eutsonea. Welser´tar Bartolomiusen euki eben loba ederenetarikozan zan Filipina 1.530-1.580ko urte bitartean bizi zana, 1.546ko urtean, Alemaniako kaisar I Fernandoren seme, Fernando artxidukearekin ezkondu eban. Diru-etxe au, uste dot oraindik bizirik dagüela. (2) Sorkunde = Concepción. (3) Aize-Onaren uria = ciudad de Buenos Aires. (4) Utziera = abdicación. (5) Bere izatearen giza-bidea ikertzeagaitik = analizar su comportamiento vital.

*1.536ko urtean, Roterdaneko Erasmo´tar Desiderio.*

*1.546ko urtean, Lutero´tar Martin.*

*1.547ko urtean, Ingalaterrako VIIIIn Enrike eta Frantziako I Franzisko.*

*1.549ko urtean, IIIIn Paulo Aita Santua.*

Eta bere bizitzazko ekintzaren garbiketarako egin ebazan ikerketatik, ikusi ebena, ez zan izan aĩn egokizko gauza.

Absburgotarren aginduan euki ebazan Ludi oso onen kaisar-jaurkintzazko ametsak, ez ebalako lortu.

Borgoña berrezkuratzea be, ez ebalako lortu, eta geien, ezin ebalako ukalarien arrazoizko baldintzak ezereztu.

Bere itsas-aundi edo itsas-osteko lur agerketak be aunditu egin ziran ezinbesterarte, baiña bere jaurlariak ezin ebazan ango lurralde eta giza-emeak jaurkitzeko, alango arduradunetzko egitamurik eratu, naita Italiako menpekotasuna, 1.559ko urtean Kambrisis-Kateauko egin zan Bakeagaz, beste 150 urte iraun.

1.555-1.556ko urte bitartean Bruselasein egin ebazan I Karlosek beren azken naiaren utzierazko agirian, bere anai Fernandori itzi eutsan Erromano kaisertzaren jaurkintza, Alemaniaren aukerazko printzeak, 1.558ko urtean Otsaillaren 24ko egunerarte onartu ez, beren erabagi ori.

Eta gaztelako erregetza, Indias edo ta Ameriketako lurak, bere seme IIIn Feliperi.

Vn Karlos, Flandesetik urtenda, Laredora etorri zan itsas-ontziz, beren ankako oin-zainarra<sup>(1)</sup>, Extremadurako lurraldean, La Berako erritxoan osatuteko, andik illabete bat eta iru aste barrura eldu zana.

1.556ko urtearen Azaroko 11tik, Toledoko Albarez ta Figeroatar Fernando, Oropesako kondeak artu eban Vn Karlos bere gazteluan.

1.557ko urtean Otsaillaren 3ko egunerarte euki eban Albarez ta Figeroa´tar Fernandok Vn Karlos bere Oropesako gazteluan, arik eta Yusteko lekaiaretxean, Vn Karlosen jauregiko lanak amaitu arte.

Eta Jauregui orretan egon zan urtebaterdian, Jeronimoko lekaideak, zaindu eben.

Bere azken naietan, 1.545eko urtean Blonberj´eko Barbara emakumeagaz euki eban Austriako Juan semea onartu eban, lenengoz ezagutu ebana Yusteko jauregiaren gelatan.

1.558ko urtean Iraillaren 21ean eta sukar-gaitzak edo inta-sukarrakin<sup>(2)</sup> il zan.

1.573ko urtean bere seme IIIn Felipe erregeak, Vn Karlosen eta Portugaleko erregeña izan zan Austriako Leonorren gorputzak, Eskorialeko lekaidetxera eroatea agindu eban, berton illobiratzeko.

Monroy eta Toledoko Albarez´tar Juan Oropesako kondea izan zan, lan orregaz arduratu zana.

I Karlosen il-kutxa gaur, Eskorialean, Lekaidetxearen lurpean dauan erregearen arrillobi barruan aurkezten da.

## **1. 21. I Karlosek, bere ezkontzagaz euki ebazan alaba-semeak.**

1.525eko urtean I Karlosen arreba Austriako Katalina, Portugaleko IIIIn Juanegaz ezkondu zan, Portugaleko Isabelen arreba zanagaz.

(1) Oin-zainarra = enfermedad dela gota en los pies. (2) Inta-sukarrakin edo sukar-gaitzak = ur geldien euli edo eltxo baten ziztagaz il zan. Con su picadura de un mosquito, al inocularle las Fiebres palúdicas.

1.526ko urtean Epaillaren 11n I Karlos Sebillako errege-jauregian<sup>(1)</sup>, errege katolikuen bir-alaba zan Portugaleko Isabelegaz ezkondu zan, I Karlos eta Portugaleko Isabelek, egin eben ezkontza bidetik, sei alaba- seme euki ebazan:

1.527ko urtean Loraillaren 21ean jaio, ta 1.598ko urtean Iraillaren 13ko urte bitartean bizi zan II In Felipe gaztelako erregea.

1.528ko urtean Ekaiñaren 21ean jaio ta 1.603ko urtean Otsaillaren 26ko urte bitartean bizi zan Austriako Maria. Eta 1.548ko urtean, geroago II In Maximiliano izango zan bere anai-legusuagaz ezkondu, amabost alaba-semeak eukingo ebazanak.

1.529ko urtean Isabel.

1.530eko urtean Fernando.

1.534ko urtean Ekaiñaren 29an, Erregiñaren lenengo aur-seme galtzea.

1.535eko urtean Ekaiñaren 26tik, 1.573ko urtean Iraillaren 7ko egunerarte bizi zan Austriako Juana. 1.552ko urtean Portugaleko printze Juan Manuelegaz ezkondu zana.

1.537ko urtean Urrillaren 19an jaio ta 1.538ko urtean Epaillaren 20ko urte bitartean bizi zan Juan.

1.539ko urtean Jorraillaren 30ean, Juan izeneko beste ume bat. Aurgintza orreitan, Juan seme ori ta ama Isabel erregeña il ziran.

## 1. 22. *Eta ezkontzatik kanpo euki zituzen seme-alabak.*

1.518ko urtean? eta II In Fernando katolikuagaz alargunduta egon zan, Foix'eko Jermanakin, Gaztelako Isabel ?.

1.522ko urtean 28ko Abendutik, 1.586ko urtean Urtarrilleko 18ko egunen bitartean bizi zan Parma edo Austriako Margarita. Ban der Gheest Juanaren alabea izan zana.

1.522-1.530eko urte bitartean bizi zan Austriako Juana, bere ama Nassauko jauregian andre andiki baten alaba izan zana.

1.523 ?-1.562ko urte bitartean bizi zan Austriako Tadea, beren ama Della Penna-ko Orsolina zanagaz euki ebana. Gero di-Kopestxi' tar Sinaldokin ezkondu.

1.547ko urtean Otsaillaren 24tik, 1.578ko urte bitartean bizi zan Austriako Juan, beren ama Blonberj'eko Barbara izan zanagaz.

## 1. 23. *27.gn. Jauna, Bizkaiko Jauntzan.*

1.516ko urtean asi ta 1.556ko urte bitartean, areik eta Yustera baztatu zan arte Gaztelako Ia eta Alemaniako Vn kaisar lez, Karlos izan zan Bizkaiko Jauna.

1.516ko urtean Otsaillaren 14an, Fernando katolikuaren il-otoizketak egin ostean, Bizkaiko Batzarrak I Karlos artu eben Jauntzat, eta agindu be Bizkaiara etorri egiala Fuegoai ziñ egitera.

1.517ko urtean Durangon ainbat ume, gazte, gizon, ta emakume il ziran, zabaldu zan kutsu edo izurrite<sup>(2)</sup> aldi gogor batekin.

(1) Sebillako errege-jauregian = reales alcázares de Sevilla. (2) Kutsu, izurrite = epidemia de peste, o epidemia.

1.518ko urtean Nafarroako errege II In Enrike Montpelierren, Gaztelako I Karlosek in saiatu zan Nafarroaren Ego-aldea askatzeko, eta alperrik zala ikusita, gudarako asi zan antolatzen.

1.520ko urtean kaizertzaren koroia artzeko egoala, berak etorri gura eben fueroai ziñ egitera eta Otsaillaren 17an eskutitz bidez baieztu ebazan Fuegoetan euki genduzan baldintza guztiak.

Ortik aurrera Jaun guztiak, eskutitz bidez sinatuko ebezan zinkunde guzti orreik, gero gure batzarkideak Gernikako aritzpean batuta, irakurri ta baieztuko ebena.

1.521eko urtean Bagillaren 10ean II In Enrikek, Nafar, Gaskoiak eta Frantzesakaz osotutako gualozteagaz, ia Nafar osoa berrezkuratuta euki eban.

1.521eko urtean Bagillaren 30eko Igandean eta Leringo kondeak bideratzeko, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia ta Errioxatarrakaz antolatu zan gualoztea I Karloseri laguntzeko, Nafar lurraldearen Elortzibarko ibarrean Noaineko errian, eta Ezkirotz ta Barbataineko zelaietan 5.000 gudarien gorputzakaz odolezko oiñ-azpiko lez itzi ondoren, I Karlosek ostera menperatu ebazan Nafar errege II In Enrikeen alegiñak.

1.522ko urtean Uztaillaren 19an, Noainetik 200 gudari Maiako gaztelura joanda, artean Frantzisko Jabierren anaiak zirala, ia urte bete eutsi ondoren, I Karlosek menperatu ebazan. Bertan dago oroitarri aundi bak, guk, euren eskeintza gogoan euki dagigun.

1.524ko urtean Otsaillaren 29an Ondarribi, ia iru urtean inguratuta egon ondoren Albako dukeak menperatu eban.

Eta emen amaitu ziran Nafartarren alegiñak.

Kontu aundian eukinda, Euskaldunen arteko borrokak zirala, goian esan dodan lez, Fernando katolikuak egin eban antzera.

1.526ko urtean Jorraillaren 5ean, Gernikako Batzar Nagusiak ospatu ziraneko, asken batzar orreitan, zentzun aundiko erabagi gogor bat artu zan, “1.452ko urtean gure Foru-Liburuan idatzi ziran baldintzatan: *oituratik kanpo, bear ez ziran, ta illun egon ziran arauak, argi ta garbi berriz idatzi zitesela*”, ainbat Euskal Lege-Gizon aukerata lan orretarako.

1.526ko urtean Dagonillaren 31n, arduratuta egon ziran euskal Lege-Gizonak, kontu aundia euki eben, baldintzazko legedi osoa argi guztiagaz agertu zedin, eta batez be *Foru Pasaiaren* baldintzak.

Bere XI In. legeko I idazpuruan au esaten dau: “*Que habian por Fuero, y ley, y franqueza y libertad que cualquiera carta o Provisiòn Real, que el dicho Señor de Vizcaya diere o mandare dar, o proveer, que sea, o ser pueda contra las Leyes o Fueros de Vizkaia, directe o indirecte, que sea obedecida y no cumplida*”.

Bizkaiak, bere konstituziozko erabagi onegaz, mendetzaren-gabetasuna edo menik-eza<sup>(1)</sup> ezarri eban, bizkaitar guztiaren askatasunezko demokraziaren zor-eskubideetan.

1.527ko urtean Jorraillaren 8an, I Karlosek onartu ebazan barriz idatzitako Bizkaitarren Foru Legeak.

(1) Mende-gabetasuna edo menik-eza = desobediencia, inobediencia.

1.527ko urtean Lorailaren 21ean gaztelako I Karlosen semea II Felipe jaio zan, eta Bizkaian, egun berean idatzitako erregetzaren eskutitz bat artu zan, Bizkaiko Jauntzaren ondorengo zala esaten ebana.

1.527ko urtean Bagillaren 1ean I Karlosek, baieztu ebazan barriztutako Bizkaiko Foru Legeak, eta Bagillaren 7an agindu eutsen Bizkaitarrai irarri egiezala.

Eta 1.528ko urtean Uztaillaren 24an Burgoseko Juan de Juntaren irarko-lantegian amaitu ziran, Bizkaitar Foru Legearen irarketak.

1.530eko urteari, izurriteko urtea esan jakon, gogorra izan zalako, eta batez be Bilbon.

Bizkaitarrak emendik aurrera artu-emon asko euki eben I Karlosekin, onek, adeitasun aundia erakutsi ebalako gure Foru Legeakaz.

I Karlosek, asko zor eutsen Bizkaitarrai, eta or agetzen zan beren begirune, gaztelarren gorroto ta bekaizkeriaren gaiñetik.

1.556ko urtean Urtarrillaren 16an I Karlosek, eskutitz-bat bialdu eutsoen Bizkaitarrai, bere mamian au esaten ebana: *“Bera gaixo egon zalako, bere seme II Feliperi aldatzen eutsozala erregetzaren zeregin guztiak, eta beragaz euki gendun uste aundia, berarekin be eukiteko”*.

Gaztelako I Karlos, ez zan etorri Bizkaira Bizkaitar Foruai ziñezko itza emotera, eta ortik aurrera, Jaunak bialdutako eskutitzaren bitartez egiten zan, Gernikako zuaitzpean batzartuta irakurten zana, gero batzarrak onartu egien.

## 1. 24. *Oar txiki bat emen.*

Bizkaitarren 27n Jaun I Karlosegaz, argitu dogu, zelan orokorrezko Europa-katoliku onek bere aberrikuntzazko batzangotasunaren eritzizko eginkizunakaz inguratuz, Euskalerrria lotuta eukela.

Konturatu gaitezen, errege-jaun bakotzakin euki genduzan itzarmenakaz lotuta egonda, euren arteko borrokak, gure anai arteko gudak biurtzen zirala.

Kontuan euki bear dogu, emendik aurrera errege orreik erritarren bear kuntzak zuzendu barik, al-osokerira bideratuta, gero ta gogorrangoak izango dirala euren arteko borrokak, eta neurri orreitan berezko erritarren aurka, sortuko dabezala estutasun gogorrak.

Goazan ba, urrengo bigarren mailla onetan jakiten, zelangoak izan ziran, urrengo errege-jaun taldearen ekintzak.



## 2. ZATIAN.

### 1. *III In Juana, Nafarroako erregiña.*

1.555ko urtean Lorailaren 25ean Nafarroako II In Enrike il zan, eta beren ondorengoa, Albreteko III In Juana bere alaba izan zan.

Albreteko III In Juana Nafarroako erregeiña izateagaitik, Albreteko dukerriagaz lotutako lurralde asko euki ebazan bere jaurtzapean, Foix eta Bigorrako kondetza, Bearne, Marsan, ta Tartaseko konde-ordegotzagaz<sup>(1)</sup> batera.

Ezkontza aldetik Tartas ta Maremneko bizkonderria, Kasteljalous ta Aillaseko kondearen ordekotza, Kondomois´en Nerak eta beste lur batzuen tituludun izango zana.

Bide ortatik Frantzia´ko erregearen feudopeko edo jaunpekoa izan zan.

1.528ko urtean Urtarrillaren 7an, Saint-Germainen Layeko jauretxean jaio zan Nafartar III In Juana.

Eta 1.572ko urtean, Ekaiñaren 9an, 44 urte, 6 illabete eta egun bi zituzela Pariseko jauretxean il.

Nafarroako II In Enrike aita, eta Frantziako I Franziskoren arreba Margarita amaren bidetik jaio zan, bere gazte denbora eta azkuntza, bere osaba Frantziko I Franziskoren gorte edo jauretxean eginda.



*Albreteko III In Juan Nafarroako erregiña*

### 2. 2. *III In Juanaren ezkontza, eta izan ebazan alaba- semeak.*

1.541eko urtean ezkondu eban Frantziko errege bere osaba Frantziskok, Kleberiseko Vn Guillermo dukeagaz, 13 urte ein barik eukezala.

1.546ko urtean, eta ezkontza onetatik ez zalako agertzen ondorengotasunik, eze-reztu egin eben ezkontza ori.

(1) Konde-ordegotza = Vizcondesa.

1.548ko urtean Urrillaren 20ko egunean, eta Frantziko errege I Franzisko bere osabea il zanean, Frantziko errege II In Enrike bere lengusuak Moulins´en, Borbontar Karlos Bendomeko dukea eta bere emazte Alezontar Franziskaren seme Borbontar Antoniogaz ezkondu eban<sup>(1)</sup>.

Bost alaba-seme euki zituzen III In Juanak, Borbontar Antoniogaz:

1.151-1.153ko urte bitartean bizi zan Nafarroako Enrike Beaumontgo dukea.

1.553-1.610ko urte bitartean bizi zan III In Enrike, Nafarroako errege, eta gero Frantziko errege IV In Enrikeren izenagaz.

1.555-1.557ko urte bitartean, Nafarroako Luis Karlos, Marleseko kondea.

1.556- ¿?, Nafarroako Magdalena.

1.559-1.604ko urte bitartean bizi zan, Borbontar Katalina, Albreteko duke-adrea eta Armañak ta Rodeseko konde-andrea, Lorenako duke II In Enrikegaz ezkondu zana.

### 2. 3. *III In Juana Nafar-erregiñaren, erlijiozko gora berak.*

1.555eko urtean bere aita Nafarroako II In Enrike il zanean, III In Juana bere ondo-rengo lez, beste jabetzazko izen-buruekin artu eban Nafarroako erregetza.

III Juanaren ardurapean, Nafarroaren-osoko erregiñaren izena eukinez, Auñamen-diren Iparraldeko Nafarroaren jabetasuna bakarrik artu eban: Zuberora, Biarno, Bigorra, Albret, Foix, Armañak eta beste lurralde batzuk osotzen ebena.

Bere senar Antoniok, Frantziko II Enrike erregearen aldeko politika egiten eban, Biarnoko konderria bere eskuetan artu gura ebalako, erdi aldeko lurraldearen truke.

Baiña bertan itzi bear ebazan asmo orreik, bere emazte III In Juana eta Biarnotarrak, aurka egin ebelako.

III In Juanak, Nafarroako erregetzaren babesa ardura aundian, ta gitxitan ikusten dan eten bageko indar kementsuagaz, Gaztelako II In Felipe, Frantziako I Frantzisko erregeen aurka eta erlijiozko ikurriñagaz mozorrotuta<sup>(2)</sup> etorten ziranai, aurre egin eutsen ezeren bildur barik, Nafarroa euren artean geratzeko euki ebazan asmoak ezereztuteko.

1.559ko urtean, II In Enrike Frantziko erregea, bere alaba Isabel ta gaztelako II In Felipeen ezkontza ospatzen egonda, Montgomeriko kondea Grabielegaz egin eban josta-gudu<sup>(3)</sup> ondoren il zanean, katoliku ta Kalbindar berrikuntza-zaleen<sup>(4)</sup> artean, erlijioaren anaien arteko gudak biztu ta ugaritu ziran.

III In Juana, adimen edo ulerpide aundikoa zan esaten ebanez, eta jakintzan oi-gabekoa<sup>(5)</sup>, izakeran sendoa, asmatzaille aundia eta atsegiñezko sendimendukoa.

1.560ko urtean, III In Juana gogaituta ararte egon ziran Aita Santu eta orduko IV In Paulo Aita Santuagaz, baita eleizaren aldetik Nafarroako erregetzagaz zer sortzen zan ikusi ondoren, Ukalarien erlijioara aldatu zan. Nafarroan eta Bearnen sartuta rlijiozko berrikuntza ori.

III In Juanak Kalbinismoa besarkatu ondoren, beren oroimenezko idazkietan esaten dau: Jaungoikoak beren mesedean, odol-gurkeritik alderatu nau, eta oso pozik nago, bere Eleizan artu naualako.

(1) Borbon´tar Antonio = Borbontar Karlos Bendomeko dukea 1.489-1.537ko urte bitartean bizi zanaren, eta Alezongo Franziskaren semea Borbontar Antonio, 1.518-1.562ko urte bitartean bizi zana, Borbontarrak, ezkontza onegaz igonda erregetzazko leiñuaren aulkira. (2) Fede-zaindi edo inkizizioa eta Jesu-Lagunak. (3) Josta-gudu = torneos que se celebraban entre caballeros. (4) Berrikuntza = reforma. (5) Oi-gabekoa = extraordinaria.

Emen, garrantzi aundiko gauza bat gogoratu bear dogu: Europako edozein late-  
rizko erregeak, eskomikatu edo eleiza katolikotik-kanporatu egiten ebezanean, erre-  
getza ori, orren eleiz debekuan geratuta, edozein printze edo errege katolikoari zabal-  
tzen eutsozela bideak, erregetza ori bere jabetzan geratzeko.

Konturatzen gara orain... Fernando katolikuaren jokoagaz ?.

Gaur, maltzur eta guzurrezko kasketa bardiñakaz dabiz espainol oneik.

## 2. 4. *Lenengo erlijiozko guda.*

IIIIn Juanak, naita bere erregetzan erlijioaren askatasuna ezarri gura arren, erlijio  
katolikuari leku ta eleiza itzita, ukalarien erlijioagaz batera, arduradunetzko erriarrak  
aukeratzen ebazan bitartean.

Aita Santuak, beren katoliku erritar eta agintariai baimenezko buldak bialtzen eu-  
tsoezan, exkomunikatuko erregiñ baten aginduari uko egiela aginduz, eta beren erre-  
giñazko aulkian ezartzeko Aita Santuaren lege ta agindupekoak zirala esanez, errege-  
tzazko aulki orretan ezarri egiezala aginduten eutsoen, agindu ori, bete egiten ebanak  
baiña, ezinezkoa biurtu eben katoliko eta ukalarien alkar-bizitza, eta IIIIn Juanak, de-  
bekatu eban Aita Santuaren katolikotasunetzko erlijioa, Nafarroako lurraldeetan.

1.560ko urtean Urrillaren 31n, Konde<sup>(1)</sup> Borbontar Printzea, atxilotu eta eriotzera zi-  
gortu ebenean, frantzezaren arteko erlijiozko artu emonak, larregian gogortu egin ziran.

1.561eko urtean Uztaillaren 19an IIIIn Juanak, Kalbinoren ukalarizko erlijioa ezar-  
tzen dau bere jaukintzazko lurraldeetan, eta geratu jakozan bere seme bien azkuntza,  
amaren erlijioan beteko dabez.

1.561eko urte orreitan, bere senar Borbontar Antonio eta Borbontar Luis anaia Kon-  
de 'ko printzea bezela, Parisen ospatzen ziran Laterrien orokorrezko batzarretara joan  
ziran, Frantziko ukalarien jazarraldi edo eurak euki zituzen aurkako arrazoiak entzuteko.

Eta 1.562ko urtean Epaillaren 1ean, Parisen inguruko Passy 'ko errian ainbat uka-  
lari il ondoren, gudak ezin besterarte biztu ziran.

1.562ko urtean Ingalaterrako I Isabelek Eleiza katolikotik bananduta, ukalari edo  
Anglikanoen sinismeneko aitorkuntzaren erligioa ezarri eban.

1.562ko urtean Iraillaren 20an, alkartutako ukalariak<sup>(2)</sup>, erasora aldatzeko prestu-  
ten dira, Alemania ta Ingalaterrako laguntzagaz.

1.562ko urtean Zemendiaren 10ean Konde printzea, Dreux 'en aurkintzen zan zi-  
gortuta, eta IIIIn Juanaren senar Borbontar Antonio Bendomeko dukea, Ruanen atzi-  
lotuta egoala, il ebazanean batera, erlijiozko gudak asi ziran basakeri aundi baten.

IIIIn Juanak, naita artean nastuta geratu arren, ez eutson ukorik egin, beren ardu-  
razko erantzun bearrari.

Eta Bearnen ukalarien berrikuntza ezartzeko, neurri batzuen aginduak aldarrikatu  
ebazan.

(1) Konde euskeraz edo Condè gazteleras = Borbòn sendikoak ziranak, XVI gizalditik aurrera eroan  
eben printzezko izen buruak, 1.830eko urterarte, urte onetan ezereztu egin zalako izen-buru ori.  
Euren leiñuaren-sendiko aipatuena, 1.530ko urtean Bendomen jaio zan I Luis, Nafarroako IIIIn En-  
rike ta Frantziako IVn Enrikeen osaba izan zana zan, ta Kalbinoen eritziko Ugonote edo ukalarien  
buru ta agintaria izan zana, eta 1.569ko urtean Anjouko dukeak aginduta il eben arte. (2) *Eidgenosse*  
Alemanes, euskeraz *alkartekoak*, edo gaztelera *confederados*, bardin esan gura dauena eta Alemanes  
*Hugonote* 'ko esan gura dauenetik, agertzen diran lez, Ugonoteak deitzen eutsoen.

1.563ko urtean, Kalbinoren Kristau-ikasbidea Bearneraz idatzi zan.

1.563ko urtean Otsaillaren 16an katolikua, Albreteko Pedro Kommingeseko Gotzaiña eta Juanaren osaba zirikatzen eben, Juana, damuz ostera katolikotasunera aldatu zedin.

Berak baiña, Juanaren arduratan jakinda, beren sinismeneko sendotasuna zelakoa zan, Billaermosako dukeari idatzi eutson eskutitz bat esaten: Bere nagusiengandik asi zirala Juanaren buruan sartzen<sup>(1)</sup>, katolikotasunera ostera itzuli bear zala.

Eta bere erantzunak, arrazoi aundi eta jakin aundiko erantzunak izan dirala.

Ekaiztuneko denbora baltzak ziran XIV, XV, XVI eta XVIIIn gizaldi orreik, danak, eleizako gizonetatik asita: Errege ta errege-ordezkoaren artean; erregeen berezko seme ta sasiko-semeen artean; eta emakumeen artean bardin. Ondamu edo bekaizkeriak eraginda, on-gosetasunaren<sup>(2)</sup> bidetik, nagusitasunaren billa ibili ziralako.

Eta euren garaipenak lortzeko, bardin ibiltan ebezan izkututako pozoitasunak, katoliko eta ukalarien suak, lepo ta anak moztutea, sarrasketak edo edozein maillako guda erabilten ebazan.

IIIIn Juana goian ikusi dogun lez, ez zan edozein jakintsu edo ta arrazoibageko arduradun bat, orduko jakintsuak margotzen eban lez. Eta Berrikuntzaren-zale izateko, konturatu baiño bakarrik ez, beren ama Margaritagaz zer izan zan euren etxea.

1.563ko urtean Epailaren 12an, Loira ibai ondoan dauan Anboiseko erriaren Ba-keagaz amaitu zan Frantzian, egin zan erlijiozko guda ori, Nafarroa ta Bearnekoak egon ez ziranak laterri lez, ez eta Foixeko kondadu edo ta ordezko kondadu txikiagoren ordegorik, lenengo guda orreitan.

## 2. 5. *IIIIn Juana, maisu aundiakaz alkartuta, erlejiozko askatasunaren alde.*

Maixu aundiakaz inguratuta egon zan IIIIn Juana: Del Korrotar Antonio, bere se-meen Gaztelerazko maixua zanagandik asi, eta berak mesedetu egin ebazanakin.

IIIIn Juanak Euskaldun erritarrai Kalbinismoaren siñisbidea erakutsi gurean eta Euskerea indartzeko, Testamentu Barria<sup>(3)</sup> Kalbinoren idazlan batzukaz batera euskeratzea asmatzen dau.

1.564ko urtean Leizarragatar Joanes lekaidea eta beren lanak ikertu bear ebezanai deituta, itzulpen orreik egitea agindu eutsoen.

IIIIn Juanak, itzulpen aukeratu egin eta gero, Pariseko Rotxelan argitaratu ebazan.

1.566ko urtean, Roteseko errian, ukalari jakitun edo maisuen-batzarrea egin zan.

1.566ko urtean be, Eleizarako era-bide edo arau barriaren idazketak egin ziran.

1.566ko urtean Ordez'en ukalarien ikastetxe bat irasi zan.

1.566-1.571ko urte bitartean, eleizarako lege edo era barriak aukeratuta, Saletteko Arnaud'ek, Bearneseko euskereara itzuli ebezan:

1.568ko urtean Arnaud de Salette egin eban "Psautier de Marot" Bearnesera itzuli eban.

1.571ko urtean Lizarraga'tar Joanesek, Testamendu-Berria Euskereara itzuli eban.

(1) Keiñadura ta guzti. (2) On-gosetasunaren bidetik = por medio de la avaricia y el inconformismo. (3) Testamendu Barria = Vulgata: versión latina de la Biblia auténticamente recibida de la iglesia.

Eta 1.571ko urtean, Kalbinoren berrikuntza, Bearnen eta Be-Nafarroa osoan eza-  
rri zan legezko erlijio lez.

1.567ko urtean IIIIn Juanak, Kalbinismoa, berezko erlijio lez edo agintari izendatu  
eban, Vn Pio Aita-Santauaren meatxuari bildurrik bage, bere menpeko lurraldeetan.

Eta erlijioaren odol-jariozko gudan, alde-batetik ez ebalako beste biderik euki, ta  
bestetik beren borondatea alakoa izan zalako, erkide edo bete betean, arazo orreitan  
gutziz arduratuz ibili zan.

## 2. 6. *Erlijiozko bigarren guda.*

1.567ko urtean, Nimes´en katolikuen artean egin ziran sarraski edo ilketagaitik asi  
zan erlijiozko bigarren guda.

1.568ko urtean IIIIn Juanak, Arnaud de Saletteri agintzen dautso, Bearn´era itzuli  
egiela Psautier de Marot.

1.568ko urtean Frantziko IXn Karlos erregeak, IIIIn Juanak euki ebazan laterrien  
baitua<sup>(1)</sup> agindu eban, Bearnen euki ebazan laterri guztiak baituz edo legez-kenduta.

Nafarroako IIIIn Juanak bideratzen ebazan Ukalarien indarrak, eta 15 urte eukazan  
bere semeari, La Rotxeleko Jauregui edo gazteluan, eskua artu egiela agindu eutson.

Eta Bearneko katolikuak, Terridegaitik bideratuz matxinatuta, agintaritzagaz ja-  
betu ba ziran, beste leku batzuetan, Frantziko erregeak bialduta, gudarien laguntzagaz,  
katolikoan aginduak betetan ziran.

IIIIn Juanak, euren Rotxelleko<sup>(2)</sup> babes-tokiaren goitik-berako eginkizun guztiak,  
gudaren arazoak izan ezik, jaurkitzen ebazan.

Eta kontu aundiagaz, euren alde egon ziran arrotasunezko printzearen arrema-  
nak, geien, Konde printzea il zan ostetik.

Eta 1.568ko urtean Epaillaren 23an, Longiumeau´ko bakeagaz amaitu zan biga-  
rren guda au. Naita bereala, irugarren borrokarako prestatzen asi.

1.568ko urtean, gitxi iraungo eban bake ori, Iraillan, barriri asi ziralako erlijioaren  
arteko irugarren guda orreik.

## 2. 7. *Erlijiozko irugarren guda.*

1.569ko urtean Epaillaren 12an Jarnak´en, borrokazko erasoan, Konde ukalarien  
agintari nagusia il zan, eta Juanaren semea IIIIn Enrike izango zana, politikazko ar-  
loetan nagusi izendatu ondoren, guda loztearen nagusi izateko, Kolygni izendatu eben.

1.569ko Epaillan IIIIn Juanak, Konde printzea il ostetik, bere kontrolpean artzen  
dauz beste errien artean, euren kidetasunezkoak ziran printzearen agiri, eta itzarmen  
bidetik eginda eukazan alkarteak babesteko.

1.569ko urtearen Dagonillan IIIIn Juanak, naita Monkotourren astinketa aundia  
artu, berriz berrezkuratzen dau beren jabetza, Montmorenzy´tar Frantzisko dukearen  
gudalozteak, bera laguntzera etorri ziralako.

Ata guzti bere aldekoak, antolak egiezala etsaiarekin, eskatzen eutsen.

(1) Laterrien baitua agindu eban = ordenó la confiscación de sus estados. (2) Euren Rotxelleko =  
baluarte de Juana III de Navarra.

Eta 1.570eko Dagonillaren 8an, Ugonoteen erkidetza, katolikotar usmoaren<sup>(1)</sup> aurka, naita Monkontourreko borroka galduta, gogor jarraitzen eben, eta euren kidea-ren borondatezko aleginduan, Laye´ko lurraldean, Saint Jermain´eko bakea sinatu zan.

1.570eko urtearen amaieran IIIIn Juanak, eskubide guztiak kendu eutsezan katoliku-eri: Eleizkizunak debekatu, eta eleiz-gizonak erbesteratuaz.

1.571ko urtean IIIIn Juanak, beren jabetasunezko lurraldeetara itzuli zan, eta Saint Jermaineko bakeari ezin eutsezelako antolak egin, agirietan aitortuko ebazan beren jazarraldiak, bakearen baldintzak txarto ezartzen zirala esaten.

1.571ko urtean IIIIn Juanak, Kalbinismoaren siñisbideak ezarri eutsezan erritarrai.

Jakin bear dogu, Juana ukalari edo protestante sutsua izan bazan be, bera izan zala erlijioaren askatasuna geien babestu ebana.

IIIIn Juana izango ote zan errudun bakarra ta nagusia ba, katolikuen ustez, Nafarroa, galbidean ezartzeko eta erlijiozko gudatan egin ziran sarraskiarekin ?.

Kontuan euki bear da, lapur ta guzurrezko denborak zirala areik, Gaztelar ta Aragoitarrek ondo baiño obeto ikasi ebezanak, euki eben Aragoiko IIIn Juanen, maltzurrezko maisuen maisu auditik.

Eta kontu aundiagoan, IIIIn Juanaren baitan, bere askatasunezko demokraziaren eskal izaeragaitik, ez zala egon guzurrik, ez lapurretan egiteko baimenik.

## 2. 8. *Leizarraga´tar Joannes.*

Leku berezi eta omengarri bat bear dau idazlan onetan, Leizarragatar Joannesek, Euskalerriarentzako, beren Euskalerriko Ukalarien Edestian 175eko orrialdean Leizaola´tar J. Mariak idatzita esaten dauan lez: Euskerearentzako Leizarraga; Ingeles´entzako Shakespeare; Latin´entzako S. Jeronimo edo ta Aleman´entzako Lutero bezela izan zalako.

1.506ko urtean gitxi gora beran jaio zan, Laburdiko Beraskoitzen, Leizarragatar Joannes.

Leizarragatar Juanek, Euskerea bere izkuntza izanez gaiñ, frantzes, gaztelera, latina eta grekoa ondo ezagutzen ebazan gizona zan.

Eta izkel-jakintza<sup>(2)</sup> onetatik goratuko da beren izena. Euskereak ta Euskaldunak ordaindu ezinezko esker-zor aundian geratuta beragaz.

1.559ko urtearen Bazkoan Leizarragatar Joannesek, Albreteko IIIIn Juanak katolikotarren sinismena bastartuarte, eta Kalbinorena besarkatu ebanean, baliteke apaiza izatea, eta bera be kalbinismora aldatuta egotea. Baitazko miñ aindiaren gaiñetik, atxilotetaren jazarpen asko ekarriko eutsozanak.

1.564ko urtean Paben´eko errian, Kalbindarren eleiz batzarra egin zan eta an artu ziran erabagitarrean bat, Euskalerriko lurraldeetan, Kalbinismoa ezartzea zan.

Bestea, Idazti-Deuna, Kristoren irakastaldi batzuekaz, Euskerara itzultzea.

Orduan eskatu eutson IIIIn Juanak Leizarragatar Joanneseri, Idazti-Deuna<sup>(3)</sup> euskeratzeko, lanaren zuzenketarako lau Irakasle-Nagusien begiraldian.

1.565eko urtearen Loraillan, lana ia amaituta egoan, eta ikustaldi barri edo bigarren azterketak asi ziran.

(1) Usmoa = sagacidad, perspicacia, olfato, clarividencia. (2) Izkel-jakintza = linguística, filología. (3) Idazti-Deuna euskeratzeko = que euskaldunizase la Biblia.



Lau kalbindar maisuaren eritzia: Itzulpen ona zala, izan zan.

Ibili eban euskerea baiña: ez zala Euskalerra osoarena.

Mokokaldi edo eztaibada ori: Euskerazko izkuntzalarien artean argitu ebena.

Eta emen lenengoz, Euskalerra ta Heuscalduney´ren itzak agertzen dira, gaztelatarak edo espainolak, gaurko itzak dirala esan egien, batzuk esaten daben antzera.

Idazti-Deunaren itzulpen au egiteko, Rotterdaneko Erasmok, grekoz atondutako Testamentu Barriaren idazteunetik eginda dago. Luterok ibili ebana alemaneraz itzultzeko.

Leizarragak, Testamentu Barriagaitik euki eban gorengo gogaia Jainkoaren Berbea bezala, beren itzulpenean agertzen da, grekoeraz sortzeko idaztia, ber-bera itzuli ebalako.

Gure laterrien arteko euskerazko izkuntza, danok dakigu ezberdiña dala, orregaitik gogoratzen dira Leizarragaren idaz-lanak, euskera batuaren lenengo gramatikazko oiñarriak lez.

Lenengo idaz-lanaren idazpurua: *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria da.*

Liburu-aurrean Nafarroako erregeñaren armarria margoztuta daukala, idazkuan onegaz: *Haur da ene seme maitea, zinetan un ere atsegin ona baitut, huni beha zakiskiote.*

Eta barruan, erregeñari egiten dautson eskeintzan: *Guzizko Andre Noble Ioanna Albrete Naffarroaco Reguiña Bearnoco Andre gebien Ec, denari, bere zerbitzari gucizco chipiac eta gucizco obedientac.*

Liburua, zeaztasun aundian eginda dago, ezer atzean itzi barik.

Bigarren idaz-lan idazpuruan: *Abc edo Christianoen Instructionea.*

Eta idaz-lan onen mamia, afaltzen datozeanai egin bear jakiezan itaunak ekarten dauz, bai zerrenda bat Kristauak jakin bear dabezan gauza garrantzitzuenakaz.

Irugarren idaz-lan idazpuruan: Kalendrera, Iretargi barriaren gora-beran, Bazkoa noz dan jakiteko.

Idaz lan oneik: Laburditarren euskerazko izkuntzan geien, Nafarroa´ko Euskeran eta Suletarren euskerazko izkuntzan idatzita dagoz.

Gaur egun be, Euskerazko idazlearen eredu dana.

1.567ko urtetik 1.601eko urtean il zan arte, Labastide-Kleirenzeko Parrokian iraun eban Leizarragatar Juanek.

## 2. 9. *III In Juana Nafar erregeñaren bizitza oster artuta.*

1.572ko urtean Bagillaren 9an, III In Juanak, beren seme Nafarroako III In Enrike izango zanakin, Pariseko gortetik urruntzen saiatu zan, eta alperrik edo beste aukerarik ez zalako egon, Frantziako errege IXn Karlosen arreba Baloiseko Margaritagaz<sup>(1)</sup> eskontzekoen itzagaz lotuta geratu ziran, Margaritak katolikotasunean irauteko baldintzagaz.

1.572ko urtean Bagillaren 9an III In Juana, Parisen bere semearen eskontza antolatzaren egoala, bapateko gaitzpel<sup>(2)</sup> edo bularreko gaixoagaz il zala esaten eben.

Egia baiña, Medizis´eko Kataliñak, Frantziko IXn Karlos ta Margaritaren amak aginduta, pozoituta il ebela zan.

(1) Katalina de Medizizen irugarren alaba izan zana. (2) Gaitzpel = tisis-galopante.

1.572ko urtean Dagonillaren 18an ezkondu ziran IIen Enrike eta Mediziseko irugarren alaba Margaritagaz, berau katolikotasunean irauteko balditzagaz.

***IIIen Juana Nafarroako erregeñak euki zituzten izen buruak.***

***Jaiotzez:***

1.555-1.572eko urte bitartean, Nafarroako erregeña.

1.555-1.572eko urte bitartean, Albretoko dukesa.

1.555-1.572eko urte bitartean, Limojeseko kondesa.

1.555-1.572eko urte bitartean, Foixeko kondesa

1.555-1.572eko urte bitartean, Armañak´eko kondesa.

1.555-1-572eko urte bitartean, Bigorrako kondesa.

1.555-1.572eko urte bitartean, Perigord´eko kondesa.

1.555-1.572eko urte bitartean, Bearneko konde ordea.

1.555-1.572eko urte bitartean, Marlaneko konde ordea.

1.555-1.572eko urte bitartean, Tartaseko konde ordea.

***Ezkontza bidetik:***

1.548-1.562eko urte bitartean, Borboneko dukesa.

1.548-1.562eko urte bitartean, Marleko kondesa.

1.550-1.562eko urte bitartean, Bendomengo kondesa.

1.550-1.562eko urte bitartean, Beaumont´eko kondesa.

1.550-1.562eko urte bitartean, Soissonseko kondesa.

**2. 10. *Frantziko IIen Enrike erregea.***



***Frantziko IIen Enrike erregeen argazkia***

1.519ko urtean Epaillaren 31n, Parisen ondoan dauan Saint-Jermainen Laye´ko jauregian, jaio zan IIen Enrike au, bere ama, Ana Bretainako dukesa eta Frantziko XIIen Luis Frantziko erregearen alaba zan, Klaudia Bretainako dukesa, eta bestaldetik I Frantzisko aita, Frantzisko erregearen ezkontzaren bidetik.

1.536ko urtean Bretañako dukea izendatu eben, koroatze bageko baldintzagaz. Eta 1.547ko urtean, bere aita il ostean Reims´en, Frantziko errege koroatu eben. 1.559ko urtean Uztaillaren 10ean, Parisen il zan II In Enrike, Frantziko erregea.

## 2. 11. *II In Enrike, Frantziko errege onen bizi-kondaira.*

1.526ko urtean, bere aita Frantziko I Franzisko erregea, Gaztelako I Karlosek Pabiako borrokan menperatu eta atxilotu eben orduan, II In Enrike au bere Franzisko anai zarragaz baituta euki ebazan I Karlosek, bere aita Franziskok, ziñatu eben Madrilleko elkargoa bete arte.

Eta 1.530eko urtean askatu ebazan anai bi oneik, Gaztelako I Karlosek.

1.536ko urtean bere anai-zar Franzisko, Frantziko erregetzaren ondorengoa<sup>(1)</sup> zana, il zanean, II In Enrikek artu ebazan izen-buru orreik, naita Bretañakoa jaurkitu bage, bere aita I Franzisko, izen buru orren gozamedaria<sup>(2)</sup> bakarrik izan zalako.

1.547ko urtean bere aita il zanean, berak artu eban Frantzez erregetza, eta lenen-goetan katolikotasunezko erlijioaren babesle izanda, ukalarien berrikuntzazko Ugono-teai erasotu ba eutson ezin besterarte, baimendu ebazan gero, Kalbinistarekin alkartuta.

1.551ko urtean, gaitzetsi<sup>(3)</sup> ebazan katolikoak ez ziran liburu guztiak, euren salerosketak debekatuz, eta bakar edo batezko<sup>(4)</sup> elkargo bat Otomanoarekin lortuta, I Karlosen aurka borrokatu zan.

I Karlosen aurkako borrokan eta onen ingurutasunari aurre eginda, Frantziko Mo-selaren lurraldeko uri nagusia dan Metz artu eban, eta Paris babestu eban beren aurka.



## *Medizis´eko Katalina, Frantziko II In Enrike´ren emaztea.*

1.533ko urtean, Mediziseko Katalinagaz ezkondu zan, beragaz 10 alaba-semeak eukinda.

1.536ko urtean eta batera, Poitiers´eko Dianagaz euki eban maitekortasun gogor bat, urte onetan baieztu egin zana.

Poitierseko Diana onek, bitarteko eragite aundia<sup>(5)</sup> euki eban II In Enrikerekin, baita II In Enrikeren uste osoko<sup>(6)</sup> Montmorenzy´tar Anne kondestablea, eta Kolijni´tar Gaspar, d´Andelottar Franzois ta Txatillon de Odet´eko lobarekin be.

1.550eko urtean Ingelesarekin egin ebazan antolak, Boulojne berrezkuratzeko.

1.552ko urtean Txanbord´eko alkargo edo egiune bitartez, eta Vn Karlos kaiser-raren aurka, Alemaniako ukalarien printzearekin lortu eban Frantziaren elkartasuna, baita baimena emon eutsoen, Metz, Toul, eta Berdun artzeko.

(1) Ondorengoa edo urrengo erregea = Frantziko erregetzan (Delfin) esaten eutsoenai. (2) Gozamedari edo gozameduna izan zalako bakarrik = poque tan sòlo fue un usufructuario de ese titulo. (3) Gaitzetsi = juzgar, condenar. (4) Batezko edo bakarrezko elkarte bat lortuta otomanoaren kaiser-tzagaz, I Karlosen aurka borrokatu zan = Kontuan artuta Otomanoak Turkoak izan zirela. (5) Eragite aundia = gran influencia. (6) Usteko = personas de su confianza.

1.552ko urtean Romano-Jermanikoaren kaisertzazko iru gotzaitegi artu ebazan eta ez eben onartu, arik eta 1.648ko urtean Westfaliako Bakean izenpetu arte.

Eta 1.558ko urtean, Gisa dukearen agindupean bialdu eban Frantziko Itsas-ontzi-diagaz, Ingelesak itsas baztarrean euki eben azkeneko lurraldea Kalaisegaz, galdu eben betirako.

1.559ko urtean II In Enrikek, Italia eta Bealdeko Erriaren borrokak galdu ebazan II In Felipe Gaztelako erregearen aurka, eta onartu bear izan eban, Kanbresis-Kateau´ko Bakean, Italian euki ebazan lurraldeai, uko-agiriak izenpetzea.

1.559ko urtean Uztaillaren 10ean Parisen il zan II In Enrike, josta-gudu edo zaldun-gudu<sup>(1)</sup> Montgomeri´ko Gabriel kondearen aurka egoala jokutzen, bere alaba Isabel, Gaztelako errege II In Felipegaz ezkontzen zalako.

Pere´tar Anbroise osagillea baimendu eben, zauri bera, atxilotuta egon ziran gizon batzuetan ostera egitea, gero jakiteko zelan osatu.

Baita Bruselasetik II In Felipek, Besalioatar Andre osagillea bialdu, dana baiña, alpe-rrekiko alegiñean biurtu zan.

## 2. 12. *II In Enrikek, euki ebazan alaba-semeak.*

Medizisko Katalinagaz ezkontuta, 10 seme-alaba oneik euki ebazan:

1.544-1.560ko urte bitartean bizi zan bere ondorengo Franzisko.

1.546-1.568ko urte bitartean bizi zan Isabel, Gaztelako II In Felipegaz ezkontu zana.

1.547-1.575eko urte bitartean bizi zan Klaudia, Lorenako III In Karlosekin ezkontuta.

1.549-1.550ko urte bitartean bizi zan Luis, Orleans´eko dukea.

1.550-1.574ko urte bitartean bizi zan Karlos 1.550-1.560ko urte bitartean Orleanseko dukea, eta 1.560-1.574ko urte bitartean Frantziko errege.

1.551-1.589ko urte bitartean bizi zan Alejandro Eduardo Enrike, 1.551-1.576ko urte bitartean Anjou´ko dukea, 1.560-1.576ko urte bitartean Orleanseko dukea, 1.573-1.574ko urte bitartean Poloniako erregea, eta 1.574-1.589ko urte bitartean Frantziko errege.

1.553-1.615ko urte bitartean bizi zan Margarita, Nafarroako III In Enrikegaz ezkontuta egon zana, eta 1.572ko urtean Frantziko IV In Enrike izango zana.

1.555-1.584ko urte bitartean bizi zan Erkules (Franzisko) Alenzon eta Anjouko dukearen izenagaz.

1.556 Bitoria Juana.

### *Eta Katalinaren ezkontzatik kanpo.*

Oraindiño ondorengo bakarrik izanda, Duzi´tar Felipagaz euki eban alabea.

1.538-1.619ko urte bitartean bizi zan Frantziko Diana, Txatellerault eta Estanpese-ko dukesaren izen buruagaz.

Eta Sabijni´tar Nikole Fontteteko baronesagaz euki eban semea, ez zana legeztu, baiña bai bere aitaren aldetik onartua izan zana.

1.557ko urtean Parisen jaio zan Balois-San-Remi´tar Enrike.

(1) Josta-gudu edo Zaldun-gudu = torneo a caballo.

## 2. 13. *Frantziko II In Franzisko erregearen bizi kondaira.*



*Frantziako II In Franzisko errege, eta bere ezkontzagaitik Eskoziako errege.*

II In Franzisko, Frantziko II In Enrike eta Medizis'eko Katalinaren seme zarrena izan zan, eta Frantziko I Franziskoren billoba.

1.559ko urtean Uztaillaren 10ean Frantziko errege II In Enrike Parisen il zanean, bere semearen artean ondorengoa izan zan, Frantziko II In Franzisko egin eben errege.

1.544ko urtean Urtarrillaren 19an jaio zan II In Franzisko au Fontainebleauko jauretxean. Eta 1.560ko urtean Abenduaren 5ean, Orleansen il.

Bere ilketaren ospakizunak, Frantziaren Pariseko iparraldetik, 10 km'ra Sena ibaiaren eskumako ibar aldean kokatuta dauan Saint Denis'eko lekaretxean egin ziran.

1.558ko urtean Jorrraillaren 24an, bost urte eukazenetik, Lorenako dukearen I Karlosen alaba Estuardotar Maria Eskoziako erregeñagaz ezkontzeko itzemandu, urte-egun onetan ezkondu zan.

1.558ko urte orretatik, erregeñaren bizi lagun lez, Eskoziako errege egin eban.

1.559ko urtean Uztaillaren 10ean bere aita II In Enrike il zanean eta berak 16 urte eukezala, Iraillaren 21ean Koroatu eben errege, Reims'eko eleiz nagusian.

1.559ko urte orretan II In Franziskok, 16 urte euki ebazan, eta adiñetan nagusia izanda zuzenduko eban Frantziko erregetza, bere osasuna baiña, bai gorputz eta bai beren buruaren gogoak makalak izanda, bere emazte ta onen osabeak, ukalareien etsai amorratuak zirenak eraendu edo gidatu eben Frantziko erregetza.

Lorena eta Gisako I Franziskok, Bere emazte Estuardotar Mariaren osabak, bideratzen ebazan Frantziko gudalozteak.

Eta beste osaba Gisako Karlos, Lorenako kardinalak, diru kontu eta eleizaren arazoak.

1.559ko urtean Iraillaren 21ean Reims'eko eleiz nagusian, bere emaztearen osaba Gisatar Karlos kardinalak koroatu ebazanean, Borbontar Antonio Nafarroako erregea eta bere anai Konde'ko printzea, Borbontar I Luisek, urduri ibili ziran, leiñuko sendiaren bidetik, ondorengo ori eurei dagokiolakoan. Eta geiago, Gisatarrek, arrotzak izanda, eurak bideratzen ebalako Frantziko erregetzaren jaurpidetza.

Frantziko IIIn Franziskoren erregetza, erlijiozko arazoetatik ezagutzenda geien, Gisatar Katolikuak buru zirela euren gudalozteakaz, eta ukalariak, Borbontar Antonio Nafar errege, bere anai Konde´ko I Luis Borbontarra eta Kolyjniko Gasparregaitik bideratzen ebazala ukalarien gudalozteak, prest egon ziralako euren erlijiozko gora beragaitik borrokan egiteko.

1.560ko urtearen Epailan, ukalarien gudalozteak, La-Renaudie agintariagaitik bideratuta, Amboiseko Erkidetza antolatu eben, eta bertan Frantziko IIIn Franzisko baieztu ta erabagi eban, Gisatarren eragipenetik askatzea, eta Frantziko erregetzaren agintaritza, Konde´ko Borbontar I Luiseri emotea.

Abellaneseko Pierrek baiña, saldukeria egin eutsoen, eta danak atxilotuta, buruak moztu eutsezan, Konde´ko printzearena izan ezik.

1.560ko urtean Abenduaren 5ean, IIIn Franzisko il zan, zornatu edo opildu jakon belarriko miñagaz<sup>(1)</sup>.

Peretar Ambroisek egin eban burzulatze ori, baiña, ez zan egon sendatzeko aukerarik.

IIIn Franzisko ilda, bere emazte Estuardo´tar Maria, ostera joan zan Eskoziara.

Eta alaba- seme barik il zalako, bere ondorengoa Orleanseko Karlos dukea izango zan Frantziako urrengo errege, IXn Karlosen izenagaz.

## 2. 14. *Frantziko IXn Karlos´en bizi kondaira.*

1.550eko urtean Bagillaren 27an jaio zan, Frantziko IXn Karlos Maximiliano au, Layeko Saint-Jermain´eko jauregian.

Eta 1.574ko urtean Loraillaren 30ean Binzeneseko jauregian il.

Kapetoren leiñuan, Balois-Angulemako laugarren erregea izan zan IX Karlos au.

1.560-1.574ko urte artean, Frantziko erregetza zuzendu eban.

Frantziko IIIn Enrike eta Mediziseko Katalinak euki ebezan 10 alaba- semeetatik, semeen artean irugarrena izan zana, eta bostgarrena anai-arrebaren zerrendatik.

Bere Frantziko jaurpidetza, ariñagotik etorten ziran erlijiozko gudagaitik egon zan inguratuta, eta aukera orreitan artu eban Frantziko jaurlaritza bere anaiaren ondorengotasun labor bidetik.



*IXn Karlos Frantziko errege.*

(1) Zornatu edo opilduta sortu jakon belarri barruaren miñagaz = por el dolor que le produjo la formación de un absceso en interior del oído.



Bere ama Mediziseko Katalinak, seme au gazte izan zalako, 10 urteko epean Artuko eban Frantziko erregearen-ordegotza, eta berak izendatuko eban Borbontar Antonio Nafarroako erregea, Frantziko erregetzaren ordego lez<sup>(1)</sup>.

1.560ko urtean IIen Franziskoren aurka matxinatu ziran Ugonoteak, Loira ibaiaren ibarrean dauan Amboiseko errian.

1.560ko urtearen Abenduko 13tik, 1.561eko Urtarrillaren 31ko illabete orren artean, orokorrezko laterriak batuko ziran Orleans´en, autespenak beteteko.

1.561eko urtean Loraillaren 15ean eta Reimseko eleiz nagusian koroatuko eban IXn Karlos Frantziko errege.

L´Ospitaleko Mitxel kantzillerrak, Katalina aolkotu eban, Anboisen matxinatuta, eta espetxean egon ziran ukalariak askatu egiazan.

Eta 1.561eko urtean Iraillaren 9an Poissyko eleiz batzarrean, erregearen ama Katalinak, alde bietako bakeak lortu gurean, katolikuen taldea Lorenako kardinalagaitik bideratuta egon zana, eta ukalarien taldea Bezeko Teodorok bideratzen ebana, alkartu ebazan baiña, ez zan bakezko erabagirik agertu.

1.561eko urtean Azaroaren 16an, berrikuntzazko aldekoak Kondetar Luis Printzeagaitik bideratuta, ez eban onartzen katolikotasunakaz iñungo edo ezelango urbiltasunik, eta Kahorseko errian, katolikuek 30 ukalariakaz egin eban sarraskien ostetik, gitxiago.

1.562ko urtean Urtarrillaren 1ean Katalinak, Sena ibaiaren ezker aldean dagon Pariseko erri-bazter Layeko Saint-Jermainen, argira atara eban lege bat esaten: debekatuta dagozela IIen Enrikek agindu ebazan jarraiketarak berrikuntzaren aurka. Ukalariak, baimena emonda ibar eta erri-bazterretan euren sinismeneko eleiz-oiturak ospatzen.

1.562ko urtean Epaillaren 1ean Bassy´ko errian, katolikuek, ukalariekin osterak egin eban sarraskiagaz, ukalariak, gudarako prestau ziran, Konde printzeak bideratzen ebazala, eta garaipen batzuk lortuta, 1.562ko urtean Abenduaren 19an Dreux´en, Gisako dukeak menperatu ebazan.

Eta katolikuek Kondetar Luis atrapau ta atxilotu ba eban, ukalariak, katolikuek bideratzen eban Montmorenzy atrapau eban.

1.563ko urtean Otsaillaren 4an Gisako dukeak, Orleanseko erria inguratu eban, eta 24ko Otsaillan il zan, iru tiro lepoan sartu eutsozanean.

1.563ko urtean Epaillaren 19an Amboisen bakezko batzarrean, egiune makal bat lortu zan lenengoz.

1.563ko urtean Dagonillaren 19an, IXn Karlos koroatu eban Frantziko errege lez, naita bere ama Kataliñak, oraindiño berak zuzendu Frantziko erregetza.

1.566ko urtean IXn Karlosen erregetzan, L´Ospitaltar Mitxelek, aurkeztu eban Moulinseko araudia baiestu zan, erregearen ondorengotasuna eta onen saldu eziñ edo emon eziña, adierazten ebana.

L´Ospitaltar Mitxel printze onek, Amyot´tar Jakkes´en ikasketak artu ebazan, eta jakituna izanez gain, idazkera euki eban bere gogoko.

1.567ko urtean, Montmorenzy kondestablearen katoliko indarrak, Saint Deniseko Jarnaken menperatu ebazan ukalariak, eta Monkotourren, Anjouko dukeak.

(1) Frantziko erregetzaren ordego lez = teniente general del reino de Francia.

1.570eko urtean, Saint-Jermaineko errian izenpetu ziran bakezko agiriak, Mediziseko Kataliñak onartuta, ukalariak erriko jaurkintzan edo erriko banakaritzetan osterala egien, baita onartu be, ukalarien erlijiozko otoizketak eskutuan egiezen.

1.570eko urtean Frantziko IXn Karlos, IIIn Maximiliano<sup>(1)</sup> ta Austriako Maria-ren<sup>(2)</sup> alaba, Austriako Isabel<sup>(3)</sup> alabeagaz ezkondu zan.

1.572ko urtean Dagonillaren 18an, Nafarroako IIIIn Enrike, Baloiseko Margari-tagaz ezkondu zan.

Ezkontza onen bitartez, Frantziko Maria-Elisabet<sup>(4)</sup> alabea jαιο jakien, gazterik ilko zana.

1.572ko urtean Dagonillaren 22an, katolikoek, Koligny amirala<sup>(5)</sup> iltzeko saioan porrot eginda ondoren, katoliko oneik, baimena lortu eben IXn Karlosengandik, ilketak egiteko.

1.572ko urtean Dagonillaren 23-24ko gauan Parisen, Frantzia eta Nafarroako lurralde guztian, Urrillararte iraun ebana, San Bartolomeko sarraski edo erailtzak egin ziran.

Mediziseko Kataliñ ama zirikatzaile eta Gisako dukea antolatzaile zirala, katolikoek ertzerarteko alderdikideak eraginda, ukalarien edo Ugonotearen aurkako sarraskia asi zan, egun batzuk geroago, ikaragarritzko triskantzak eginez<sup>(6)</sup>.

Eta Nafarroako IIIIn Enrike, beren emazteari esker, une bategaitik ez eben eldu, beren billa be joan zirelako.

Frantziko Laterriaren lurraldetan, ukalariak alkartu egin ziran Kalbinoren batasunean, IXn Karlos erregearen zintzotasunetik edo leialtasunetik kanpo geratzen zirala.

IXn Karlosek, ukalarien askatasuna agindu eban, Rotzelle, Kojnak, Montauban ta Parisen izan ezik.

1.573ko urtean ezkontzatik kanpo euki ebazan semeak Frantziko IXn Karlos errege onek, Bellebileko andre Toutxeteko Mariarekin<sup>(7)</sup> maitaleagaz:

1.573-1.650ko urte bitartean bizi zan, Baloiseko ta Angulemako Karlos semea izan zan.

Izen buru oneik euki ebazanek: 1.589-1.619 Auberneko kondea. Eta 1.619ko urtean Angulemako Dukea.

Bai ta, nai legebageko ezkontza bat Portugaleko kondearen alabeagaz egin, Ranjeleko Isabelegaz beste seme bi.

Erregiñazko zeregiñaren bizitza egiten ebana Frantziko gortean, Ranjeleko Isabel onek.

IXn Karlosen arreba Margarita, Nafarroako errege ukalarien seme Enrikegaz ezkondua egon zana, adizkidetasunaren asiera bat ekarri ebala Frantziko gortera, esan leike.

Ezkontzaren egun batzuk geroago katolikuek, Kolijnitar Gaspar ugonotearen gidariai, txarkeri edo gaiztakeri<sup>(8)</sup> bat egin eutsoen.

Eta matxintasun bat dalakoan IXn Karlosek, bere ama Katalinari aolkua eskatuz, ukalarien buru guztiak moztu ebazan, Nafarroako Enrike ta Konde, erregeen odolezko printzearenak izan ezik.

(1) 1.554-1.592ko urte bitartean bizi zan Erroma-Jermanikoaren kaiserraren alabeagaz. (2) Austriako Maria = 1.528-1.603ko urte bitartean bizi zana. (3) Austriako Isabel = 1.528-1.603ko urte bitartean bizi zana. (4) Frantziko Maria Elisabet = 1.572-1.578ko urte bitartean bizi zana. (5) Kolijni amirala 1.519-1.572eko urte bitartean bizi zana = Almirante Coligny. (6) Parisen 3.000tik gora il ebazan eta laterriko lurraldeetan ?. (7) 1.549.1.638ko urte bitartean bizi zana. (8) Txarkeri edo gaiztakeri = atentado.

Eta 1.573ko urtearen Uztaillan, ekintza onek, erlijiozko laugarren borroka sortuko eban, urte onetan Boulojnien bakeak izenpetuta.

Eginkizun onek, erregearen izen ona edo ospea zikinduko eban, eta Europako jendea, urte askotan euki eben Frantziako errege IXn Karlos, ilketak bultzatu egiten eban itsutasunezko errege bat lez, bera be Loubreko leioetatik tiroka ibiltzen zala ukalarien aurkako, surmurrua zabalduta.

IXn Karlos au, makala izan zan osasunez, eta eginkizun onekaz txarragotu zan lez, azpikeri bat agertu zan bera eta beren amaren aurka, bere anai Alezoneko Franzua, bere ordez ipinteko erregetzaren aulkian, Medizis´eko Kataliñ amak igarri ebena.

Eginkizun oneik geiago makaldu eben IXn Karlos, odol izurtzeak gorantza joan ziralako, eta Binzeneseko gaztelu edo jauregira eroan eben.

1.574ko urtean Loraillaren 30ean il zan IXn Karlos, eta pozoituta il ebela surmurrak geratzeko, Peritar Ambroisek egin eutson gorputz ebaketaren ostean, saiets-miñ edo anderraia<sup>(1)</sup>, bularretako gaitxepel edo birigatxera<sup>(2)</sup> aldatuta il zala, esan eban.

## 2. 15. *III In Enrike, Frantziko erregea.*

1.551ko urtean Iraillaren 19an, Frantziko Sena ibaiaren ibarrean eta Marmeko bitartean dauan Fontainebleauko erriaren jauretxean, jaio zan III In Enrike au.

Eta 1.589ko urtean Dagonillaren 2an, Pariseko kanpo aldean, Sena ibaiaren goi aldeko lurraldeetan dauan Saint Kloud´eko jauretxean il.

I In Enrike eta Mediziseko Katalinaren seigarren semea zan, ta laugarrena mutillen artean, Alejandro Eduardoren izenagaz bateatu ebena.

1.573-1.574ko urte bitartean Poloniako errege izan zan, Walezytar Henryk´en polako izenagaz esagutu zana.

1.574-1.589ko urte bitartean Frantziako errege izan zan.



*Frantziako III In Enrike, Poloniako errege lez*

1.560ko urtean II In Franzisko il zanean eta IXn Karlos igon ebanean erregetzazko aulkira, III In Enrike au. Frantziko ondorengo lez agertu zan, Orleanseko dukearen izenagaz.

(1) Saiets-miñ edo anderrai´agaz = pleuresía. (2) Bularretako gaitxepel edo birigatxera aldatuta = derivada de una pleuresía a una neumonía tuberculosa.

1.564ko urtean Epaillaren 17an, katoliko erlijioaren sendotzea<sup>(1)</sup> artu ebenean, bere aita II n Enrikeen izena artu eban.

1.566ko urtean Anjouko dukearen izen burua ipini eutsoen.

1.573ko urtean Loraillaren 11n, Poloniako errege egin eben, Lituaniako duke aundiaren izen buruagaz.

1.574ko urtean Urtarrillaren 24an artuko eban Poloniako agintaritzza, eta Ekaiñaren 18an amaitu Poloniako errege izatea, Frantziko erregetza artu bear izan ebalako.

## 2. 16. *Frantziko III n Enrike, Poloniako errege lez.*

1.573ko urtean eta Augusto Jagellontar II n Sejismundo il zanean, Monluk´tar Jean bialdu eben frantzezak Poloniara ordezeko lez: Enriken erregetzaren zuzemenak<sup>(2)</sup> egiteko, Rusiaren aurka babesteko laguntzan, eta Otomano kaisertzagaz euki ebazan diplomazizko trebetasun eta diru laguntza emotekoen truke.

1.573ko urtean Loraillaren 11n Poloniako aundikiak batzartuta, Frantziko Enrike artuko eben Poloniarentzat, aukeratuko errege lez, Lituaniako dukadoaren izenagaz, eta aberri bien errepublikako errege izendatu eben, naita Lituano aundikiak autapen oneri baitu edo boikota egin, Lituano dukearen batzarrari itzita, autezpen onen baikuntza.

Eta erabagi onegaz artu eben Frantzezak Poloniako erregetza, Absburgotarrak baztartzuz, Otomanoen kaisertzagaz urbillago egoteko, euren artu emonak sendotuta.

Eta bai Frantziko, Polonia, eta otamanoen arremanak sendotzeko, polakoak, guzti orreik lortu ebazalako joko orregaz.

1.573ko urtean Iraillaren 13an, Parisen egin zan arauzko batzar baten, Polakoen ordaingoak, Polonia-Lituaniako erregetzaren aulkian ezartzeko baimenaren agiria emon eutsoen Enrikeri.

1.574ko urteko Urtarrillaren illerarte, Enrike ez zan eldu Poloniara.

1.574ko urtean Otsaillaren 21ean ospatu zan, Enrike onen koroatzea.

1.574ko urtean Ekaiñaren ille erdian baiña, Enrikek, agurtu bear izan ebazan Polakoak, bere anai Frantziko errege, IX n Karlos il zalako.

1.575eko urtean Loraillaren 12an polakoak, larri-une baten sartuta euren jaurketako zuzenbidearen arazoetan, ezkutitz baten bidez, jakinean ipini eban Enrike, egun onen baiño ariñago Frantzitik ez bazan eltzen Poloniara, bere erregetzazko aulkitik kenduko ebela.

Krakobiako errege jauregian Enrikek, egin eban denbora laburrean, Polonian, topo edo gatazka<sup>(3)</sup> bat sortu eban, Frantziko eta Poloniako jendekuntz bien artean.

Enrike erregea eta bere lagunak arrituta geratu ziralako, Polakoak egiten ebazan gauza batzuekaz, eta etsi-arazita<sup>(4)</sup> be, geratu ziran, Polakoen onbearragaz ta baita an egon zan egu giro otzakin.

(1) Katoliko erlijioan sendotzea = sacramento de la confirmaciòn. (2) Zuzemenak = diligencias, preparaciòn, gestiòn, etc. (3) Gatazka = pleito, disputa, contienda, pendencia. (4) Etsi-arazita geratu = quedar decepcionados.

Enrike guztiz arduratuta egoalako ango jaurkintzagaz, Polakoak euren artean itan-duta, ia frantzez guztiak egon ba ziran arduratuta, euren erregea egoan beste.

Ata guzti Enrikek, Poloniatik ekarri ebena, osasunerako gauza ona izan zan, usted zuloen<sup>(1)</sup> ezarkiak<sup>(2)</sup>, zikinkeri guzti orreik, gazteluen kanpo aldera atarata, Loubren eta beste jauregui batzuetan be bardiñ eginda, eta baita garbi-gelatan ur otz, epel ta beroan neurritako ureztaldiak<sup>(3)</sup> egiteko ekarrita.

## 2. 17. *III In Enrike, Frantziko errege lez.*

1.575eko urtean Otsaillaren 13ko egunean, III In Enrike koroatu eben Frantziko errege, Reimseko eleiz nagusian.

1.575ko urtean Otsaillaren 14an, naita frantzezak Lorenatar Luisagaz ezkondata seme alaben bat itxaron arren, oneik ez eban euki alaba semerik.

1.576ko urtean III In Enrikek Beaulieuko agindua izenpetu eban, ugonoteeri bai-men ugari emonda.

Ekintza onek, Gisatar Enrike katolikoek kide sutsua ipini eban lanean, eta katolikuen alkartasun santua irasi eban.

Eta III In Enrikek esan-erantzuneko arremen askoren bitartez, ugonote edo ukalari-emon eutsozan eskatasunezko lege askok, atzeratu bear izan ebazan.

1.584ko urtean, bere anai eta ondorengoa izan zan Anjoutar Franzisko il zan, eta onek be ez ebalako ondorengorik euki, Frantziko erregetzaren ondorengotasuna, Nafarroako III In Enrike, bere lengusu Ugonotearengana joan zan.

Arrizku aundiko autespen onek, benetako ondorengotasunaren arazoa agertu eban, eta iru Enrikeren guda sortu eban, Frantziko errege Enrike bera, Nafarroako III In Enrike, eta Gisako Enrike dukearena.

1.588ko urtean Lorailaren 12an, Frantziko edestian kupelen egunagaz ezagutuko zana, katolikoek alkarte izkilludun santua matxinatuko zan, III In Enrikeri, Parisetik iges egitea galazo eutsona, eta Txartresen babestuta, Bloisen Orokorrezko Laterriak<sup>(4)</sup> batu ebazan, bertan epailleari baieztu bear izanda, Frantziko lurraldeetatik ukalari guztiak botako zituzela.

Eta 1.588ko Abenduan Bloisen egon zala, III In Enrikek au ikusita, katolikoek gidaria zan Gisatar Enrike dukea, iltzea agindu eban.

1.589ko urtean Dagonillaren 1ean, III In Enrikeri zelata<sup>(5)</sup> baten, dominokoaren lekaide Klement' tar Jakkes katolikoek alkarte santuaren itsuak<sup>(6)</sup>, iru bider sartu eutson labana edo aiztoa paparrean.

1.589ko urtean Dagonillaren 2ko urrengo egunean, il zan Frantziko III In Enrike erregea.

Eta Frantziko erregearen ondorengoa, Nafarroako III In Enrike izan lez, Frantziko erregearen aulkira igon eban Frantziko IV n Enrikeen izenagaz.

Edestilari batzuk esaten dabe, Frantziko erregea, andere antzeko, maritxu, edo sekusko bat izan zala.

(1) Ustel-zuloak = komunak. (2) Ezarkiak = instalaciones septicas. (3) Ureztaldiak egiteko = baños de aseo. (4) Orokorrezko Laterriak batu = reunir o convocar los Estados Generales del reino. (5) Zelata baten = emboskada. (6) Itsua = fanático.

Eta Txanpiontar Pier, Txebaliertar Pier, edo ta Le Rouxtar Nikolasek esaten dabe: esan orreik, Ukalari edo Ugonote ta katolikuen arteko leiaren gauzak zirela, batak bestearek laidotzeko. Beste frogapenik ez dagoelako.

1.328ko urtetik 1.589ko urteraino erotan eben Baloiseko leiñukoak Frantziko erregetza, azkena, III In Enrike izanekuagaz izanda.



*Frantziko III In Enrikek bere ogetik ilten egoala  
Nafarroako III In Enrike izendatzen Frantziko urrengo errege lez*

## 2. 18. *Nafarroako III In Enrike erregea.*

1.553ko urtean Abenduaren 13an, Gabe<sup>(1)</sup> ibaiaren ondoan dauan Pauko erriaren jauregian jaio zan gure Nafarroako III In Enrike au, Borbontarren leiñutik, lenengoa izango zana.



*Nafarroako III In Enrike eta Frantziko IV na. Beren Frantzia eta Nafarroako armariagaz.*

1.610eko urtean Loraillaren 14an eta Parisen kale arteko zelata<sup>(2)</sup> baten, Rabai-llak´tar Franzuak katoliko itsu<sup>(3)</sup> batek il eban.

(1) Gabe ibai onen urak, Adur Ibadan daukie euren urten bidea. (2) Parisen, kale arteko zelata baten il ebena = asesinado en Paris, fruto de una emboscada entre calles. (3) Itsu batek ilda = asesinado por un fanático katòliko.



1.572-1.589ko urte bitartean Nafarroako errege izan zan.

1.589-1.610ko urte bitartean, Nafarroa eta Frantziako erregea, Frantziako erritarren artean IVn Enrike Aundiaren izenagaz ezagutu zana.

Eta 1.572ko urtetik 1.610eko urteraino, Errege-Aundi edo On au, beste Andorra printze batez batera, Andorrako Printzea.

1.572ko urtean IIIIn Enrike, Borbontar Antonio Bendomeko dukearen eta Albreteko IIIIn Juanaren semea zana, Nafarroako errege egin eben.

1.576ko urtean Otsaillaren 5ean Enrikek, bere bizitza galbidetik alderatzeko, agintari danez edo ofizialki, katolikotasunera aldatu bear izan eban bere sinismena.

Arik eta urte orren amaieran, Frantziako gortetik iges egitea lortu arte, bere Kalbismoen sinismenagaz, ukalarien gudalozteak bideratzeko.

1.584ko urtean IIIIn Enrikeen, Frantziako erregearen anaia Alenzongo dukea Franzisko il zanean, IIIIn Enrike Nafarroako erregea geratu zan leen, Frantziako erregeen ondorengo zerrendan.

1.585eko urtean Nafarroako IIIIn Enrikek, katolikotasunen alkargokoak aurka egiten eutsielako konturatu zan, Frantziako jabetasuna, guda bidez artu bear ebal, eta iru Enrikeren guda asi zan: Frantziako errege seme Baloiseko IIIIn Enrike; Aita-Santua ta IIIn Felipegaz alkartuta egon zan Lorenako Enrike Gisako dukea; eta Nafarroako IIIIn Enrike.

1.587ko urtean Koutrasenko gudan, lenengo eraso-aldian lortu eban garaipena.

1.587ko urtean Nafarroako IIIIn Enrikek, bere emazte Margarita lasaikerizko maitakeri ugarietan ibili zalako, Ussongo gazteluan atxilotu eban, eta biziera edo jokabide ori neurri aundian gaitz eragille edo galbidetsua<sup>(1)</sup> izan zalako, maitale guztien izenak esanazo ondoren, bertan giltzapetu eban. Baiña baitegi zaiñagaz maite-minduz, ez eben espetxeko bizitzarik egin.

1.589ko urtean Jorraillaren 30an, Nafarroako IIIIn Enrike, adiskidetu egiten da Frantziako IIIIn Enrikegaz, eta onek beren ondorengo izatea onartzen dau.

1.589ko urtean Dagonillaren 2an Frantziako errege IIIIn Enrike, Jakobo lekaideak il ebenean, Frantziako erregetza, Nafarroako IIIIn Enrikeen eskuetan, ondorengoz jausi zan.

Errege lez baiña, Ugonoteakaitik bakarrik onartua izan zan.

Vn Sixto Aita Santuak eta Gaztelako errege IIIn Felipek, katolikotasunaren alkargo sakratua bideratzen ebenak, ukalaria izatea gaitik, ez ebelako on artzen.

Baita oneik, Borbontar Karlos Kardinala aurreratu ebelako, Frantziako errege izan zedin.

1.589ko urtean IIIIn Enrikek Arkesen, alkargo katolikuari, bigarreneko eraso aldiz irabazi eutson.

1.590ko urtean IIIIn Enrikek, katolikotasunaren alkarteari Ibryn, irugarreneko eraso aldiz irabazi eutson.

Ata guzti baiña, ez eban Parisen sartzerik lortu, aurrean, Gaztelako IIIn Felipeen gudalozteak, Farnesiotar Alejandrok bideratzen ebazanak euki ebalako.

Gaztelako IIIn Felipe Frantziako zeregiñetan sartuta, IIIIn Enrikeri mesede aundia egin eutson gura izan barik, bere alaba Isabel Klara Eujenia gura ebalako Frantziako aukian ezarri zedin.

Onek baiña, katolikotasunaren alkargoa banandu eban, eta ortik agertu jakon Enrikeri paregabeko aukera, Frantziako erregetzagaz jabetzeko.

(1) Galbidetsua = escandaloso.

## 2. 19. *Nafarroako IIIIn Enrike erregea, Frantziko IVn Enrike lez.*

Frantzezak sarritan esaten eben beragaitik, Frantziak bere edesti guztian euki dauan errege onena izan zala, euren erriaren jaurkintzan, beti ibili zalako, zelan obetu bere erritarren bizitzak.

Esaldi au berari ezarrita: Domeka guztietan, ollasko bat Frantziko baserritar guztien lapikoetan.

Frantziko errege zale guztiak, elburu lez daukie, eta urte guztietan ospatzen dabe Pariseko zubi barrian, bere irudia dauan lekuan, goratzarre eder bat eginda.

Frantzezak, abesti bat be atara eutsoen, Frantziko errege zaleen artean ereserki baten antzera biurtu zana, eta gaur be frantzezaren artean ezaguna dana.



*Enrike ta Baloiseko Margarita Nafarroako erregeak.*

IIIIn Enrike, Albriteko IIIIn Juana Nafarroako erregiña eta Borbontar Antonio, Bendomeko dukearen semea izan zan.

Katolikotasunezko erlijioan bateatu eben, naita bere ama IIIIn Juanak, Kalbinoren erlijioan bere azkuntza bete.

1.562ko urtean il zan bere aita Antonio, eta Enrike ondorengo lez artu eban erregetzako ardurea, Borbon eta Bendomeko dukearen izenagaz.

1.570eko urtean eta Saint-Jermaineko bakeagaz amaitu zan irugarreneko erlijiozko gudan, Ugonote edo ukalarien alderdiak borrokatu ziranen bakeak sendotzeko, bakearen ikur orregaz erabagitu zan, IIIIn Enrike, Frantziko IXn Karlosen arreba Baloiseko Margaritagaz ezkontzea, bion aurkako naia izan arren.

1.572ko urtean Dagonillaren 18an ezkondu ziran, eta urte onetan egin eben Enrike Nafarroako errege, bere ama IIIIn Juaneren ondorengo zalako.

Bere ama IIIIn Juanak ez ebena ikusi, Parisera doiela bere semearen koroatzera, pozoituta il ebelako Mediziseko Mariaren aginduz.



*San Bartolomeko gauan, katolikuak egin eben sarrazkia.*

Ezkontza au, ez zan ezkonduen naigabea bakarrik, XIIIen Gregorio aita santuarena be ez zalako izan, ezkontza onetarako berak, ez ebalako baimenik emon, eta frantzez erritarrentzat be, ez zalako izan.

Pariseko erritarrak, egunetan ibili ziran matxinatuta, jaurlari edo agintariak alde egin bear izanda. Eta Kolijnytar Gaspar gidari katolikua il ebanean, katolikuak guztiz matxinatu ziran.

1.572ko urtean Dagonillaren 24an aste bat beranduago, bakezko itzarmen guztiak apurte ebezan katolikuek, ta ikaragarrizko sarrazkiak egin ebezan katolikuek, ukalari edo ugonoteen artean, San Bartolomeko gaua deitu zanean.

Sarrazki au, Mediziseko Katalinak agindu ebala esaten dabe, berak agindu eutselako bere seme IXn Karloseri, ukalari gidarien buruak moztu egiazala, Nafarroako IIIen Enrike eta Konde 'ko printze I Enrike izan ezik.

Baita ia illabete ariñago, Pariseko bidean joan zan IIIen Juana bere semearen ko-roatzera, pozoituta il ebalako. Katalina bera izan zalako, katoliko-iltzaille arein gidari ibili zana.

Dagonillaren 24ko gau onetan, Loubren egon ziran zaldunezko ukalariak, kalera atara ebazan, eta kalean il ebazan ezeren damu barik.

Ilketa oneik, Frantziko errietatik zear zabaldu ziran egun aietan.

Eta 1.576ko urtean Otsaillaren 5ean, Nafarroako Enrike, bere bizia babesteko, katolikoan erlijioa besarkatu bear izan eban, gortean, danon zainpean egonda.

Geroago, ziñ ori ukatuz, erlijiozko laugarren gudan, bera ukalarien buru izanda.

Frantziko IXn Karlos erregea il zanean, IIIen Enrike katolikua igon eban erregetzara.

1.584ko urte onen aurretik, Frantziko IXn Karlos il zanean, berelako katolikoa izan zan anai IIIen Enrikek artu eban Frantziko erregetza. Erregearen anaia ta ondorengo izan zan Alezoneko Franzisko il zanean baiña, IIIen Enrike Nafarroako erregea geratu zan ondorengo lez urte onetan, Franziskoren arrebak, kalean geratzen ziralako Salikako legeakaz.



*Nafarroako IIIen Enrike, Frantziko errege IVn Enrike lez biurtuta, Mediziseko Mariagaz ezkondu zanean.*

Eta 1.589ko urtean Jorraillaren 30ean Enrikek, lengusu biekaz adizkidetuta, Frantziko errege IIn Franziskok, bere ondorengo lez artu eban, Frantziko erregetzan, bera errege izan zedin.

Nafarroako Enrikeen ukalaritzak Frantzian, iru Enrikeen borroka sortu eban, I Gisako Enrike katolikua, ez ebalako onartzen, Frantziko jaupidetza ukalarien agindupean egon zedin, Nafarroako IIIIn Enrikek euki eben almen aundiagaz, ilteko agindua emonda.

Eta 1.589ko urtean Dagonillaren 2an, Gisako Enrike il ebelako, Frantziko IIIIn Enrike be il eben, eta aukera orreitan artu eban Nafarroako IIIIn Enrikek Frantziko koroia, ospakizun orreitaran ugonoteak bakarrik joanda.

Katolikuen elkarte sakratukoak Vn Sixto Aita Santua, eta Gaztelako IIn Felipe erregeak, onartu ez ebena, Enrike ugonote edo ukalaria izan zalako, oneik, Borbontar Karlos kardinala aurkeztuta, Xn Karlosen izenagaz errege lez, Frantzia gidatu edo zuzendu egien.

Katolikua Gaztelarren laguntza eukinda, beartu eben Enrike bere Nafar-etxera joan zedin, Enrikeri oartuazota, gudaloztearen indarragaz artu bear ebela egokitzen jakon Frantziko agintaritza ori.

Eta ukalariak, 1.587ko urtean Koutras, 1.589ko urtean Arkes, eta 1.590eko urtean Ibryn´en garaipen ederrak artu ba ebezan, Enrikek ezin eban Parisen sartu, Farnesiotar Alejandro gaztelarra egon zalako Paris babesten.

Gaztelako IIn Felipek baiña, ukalarien aurkako etsai sutsu bat izan arren, bere alaba Isabel Klara Eujenia sartu gura eban Frantziko gortean, au Frantziko IIn Enrikeen billoba izanez gaiñ, IIn Franzisko eta IIIIn Enrikeren lobeia izan zalako, eta katolikua-  
ren alkatetakoak banandu edo zatikatu ebazanean, Nafarroako IIIIn Enrikeri zabaldu eutsoezan bideak Frantziko errege izan zedin, naita ukalari edo ugonotearen erlijioa ukatzeko baldintzagaz izan.

Eta 1.593ko urtean Uztaillaren 25ean, Nafarroako IIIIn Enrike ez zalako gai Parisen sartzeko, ukalaritza ukatuz, katolikotasuna besarkatu eban.

1.593ko urtean Uztaillaren 25an baiña, paregabeko aukera ori, baldintza bategaz agertu jakon, Kalbinoren ukalaritzatik alde edo ukatu egian eta katolikotasuna besarkatu.

Une oneri leporatzen dautsoe esaera ospetsu au: *ondo merezi dauela meza bat Parisek.*

Naita IIIIn Enrikeren agotik, esaera au sekula urten ez, bera ilda gero agertu zalako argitaratu zan, antzerkiko lan baten.

1.594ko urtean Otsaillaren 27an Frantziako errege koroatu eben IVn Enrike ize-nagaz, Parisen sartuta. Urte onetan Txatel´tar Joaneke txarkeriz, il gura izan eban.

1.598ko urterarte borrokan iraun bear eban baiña, katolikotasunaren alkatetako asken bakarrezko taldeak, eta espainolaren erasoak baztartzeko.

1.598ko urtean Loraillaren 2an, Gaztelako IIn Felipek ukatu eban Frantziako zeregiñetan sartzea, eta Berbisen<sup>(1)</sup> bakezko egiunea ziñatu ondoren, ontzat artu eban IIn Felipek Enrikeren erregetza, borrokak amaituz.

1.598ko urtean Jorraillaren 13an Nafarroako IIIIna eta Frantziko IVn Enrikek, Nanteseke agindua argitaratu eban bidetik, Frantziako laterriaren katolikotasuna erlijio lez izendatu, erlijioaren askatasuna emon, eta Frantziko lurralde guztien gizartea, lege bardiñakaz ezarri ebazanean, ordaiñezko<sup>(2)</sup> ta garbi aldi debekuan<sup>(3)</sup> ezarri ebazan.

(1) Berbizen = Reims´etik 70 kilometrorra duana. (2) Ordaiñezko = desquite. (3) Garbi-aldi debekuan = prohibición a toda depuración.

1.598ko urte onetatik Frantziko IVn Enrike onek, ez eban artuko lenego ministrurik, eta Orokorrezko Laterriak batzartzeko deiak alboratuz, lege-biltzarraren eragipena gutxitu eban, gorteko bideak bere kontrolpean izteko, eta banaketako diruaren eragintza bere ardurapean ipini ostean, jaurkipidetzan era barriak artu ebazan, bere erritarren bizitzak obetzeko.

Bide orretatik, eta erritarren atsegintasunagaz, ospe aundia artuko eban.

Diru kontuetan be, aurrerakuntz aundiak artu ebazan Frantziak, bere lurraldeko mugetatik atzerrira zabaldu zirenak.

Duguatar Pier, Sieur de Mons ta Txanplintar Samuelen ipar-Ameriketarako txaubideak<sup>(1)</sup> be antolatu ebazan.

Bere erregetzan, Ameriketaren lurraldeko Kanadan irasi ziran, lenengo kolonizatu frantzez erri barriak.

Eta bere erregetzan izendatuko eban, edesti guztian izango dan Atzerrirako len Ministrua, Rebol'tar Louis ipinteagaz ardura orreitan.

1.600eko urtean Abenduaren 17an, bigarrenez ezkondu zan Mediziseko Maria-gaz, onek, sei alaba seme emongo eutsozan.

Nafarroako IIIIn Enrike, ta Frantziko IVn Enrike lez errege au, onartua izan zan erritarren aldetik, naita erlijioaren gora beran, etsai ugari euki.

Bera ilteko ainbat gaiztakeri euki ebezan:

1.594ko urtean Txantel Jeanen eskutik, bezelakoa.

IVn Enrike il orduko, Josu-Lagunak euki ebazan aipatuta bere iltzaille lez, bere oroimenezko idazkietan, gauza oneik esaten ebazalako:

Ez dozue oldozten, Josu-Lagunen aurrean, obendu edo amore eman bear dogula ?.

Al dozue bearbada, nire bizitza bermatu ?.

Ondo dakit, nere bizitza gure dabela, baten baiño sarritan, nere bizitzaren zelatan ibili diralako.

Badaukaz neure gorputzan orren ikusiak, neure gorputzaren azalotutako zaurien erakutsiagaz.

Ez dau zetan geiago eurak asarre-arazi, ez eta geiago zirikatu, gogorrezko ekintzeta joan ez daitezkan.

Onartzen dot euren barkamena, naita nere ustezko gogamen gaiñetik izan, eta baita bearrezkoa dalako.



*Nafarroako IIIIn Enrike eta Frantziko IVn Enrikeren ilketa*

(1) Txaubideak = inversiones en las tierras de America.

Eta 1.610eko urtean Loraillaren 14an, katolikotasunezko sutsu Rabailak´tar Franzoisek egin eutsonea, diruaren arloan bere ministrua Sully gaisorik egonda ikustera joanda, zaldi gurdiak asko ibili ziralako, kale estu batetik sartuta ta beste zaldi-gurdi bi ostopoa aurkituz, batetik gizon bat urtenda, aizto edo labankada bi barruraino sartu eutsoneagaz il zanean.

Nafarroako IIIIn eta Frantziko IVn Enrike il ebenean, Mediziko Mariagaz euki eben seme XIIIIn Luisek igon eban Frantziko erregetzara.

## ***2. 20. Nafarroako IIIIna eta Frantziko IVn Enrike onek, euki ebazan alaba semeak.***

1.572ko urtean, Baloiseko Margaritagaz ezkontuta, ez bata ez bestea izan ziran zorionezkoak, ta 1.589ko urtean Enrike errege izan orduko banandu ziran, alaba-seme barik.

1.599ko urtean geratu zan ezereztuta eleizaren aldetik ezkontza au, eleizea bera izan zan eskubide bakarra euki ebana, legeen gora berako agintaritzan.

***1.600eko urtean Abenduaren 17an ezkondu zan Medizikotar Mariagaz 1.573-1.642ko urte bitartean bizi zana, eta sei alaba seme auek euki zituzen:***

1.601eko urtean Iraillaren 27an, XIIIIn Luis, Frantzia eta Nafarroako erregea, 1.615eko urtean Austriako Anagaz ezkondu zana, eta 1.643ko urtean Loraillaren 14an il zana.

1.603ko urtean Frantziko errege-alaba Isabel, 1.615ean Gaztelako errege izan zan IVn Felipegaz ezkondu zana, eta 1.644ko urtean Urrillaren 6an il zana.

1.606ko urtean Kristina Maria errege-alaba, 1.619ko urtean Saboyatar Bitor Amadeo dukeagaz ezkondu zana, eta 1.663ko urtean Abenduaren 27an il zana.

1.607ko urtean Jorraillaren 16an, Nikolas Enrike Orleanseko dukea, 1.611ko urtean Azaroaren 17an il zana.

1.608ko urtean Jorrailleko 25ean Gaston Orleanseko dukea, Borbontar Maria Monpensierreko dukesarekin ezkontuta lenengoz, ta bigarrenez, Lorenako Margaritagaz, 1.660ko urtean Otsaillaren 2an il zana.

1.609ko urtean Azaroaren 25ean, Enriketa Maria errege-alaba, Ingalaterrako I Karlosekin ezkondu zana, eta 1.669ko urtean Iraillaren 10ean il zana.

***Eta ezkontzatik kanpo gitzendiz, 11 seme-alaba euki zituzen:***

***D'Estreestar Gabriellegaz:***

1.594ko urtean Borbontar Zesar Bendomeko dukea, 1.596ko urtean legezko seme lez artua, eta 1.665eko urtean il zana.

1.596ko urtean, Borbontar Enriketa Katalina, 1.598ko urtean, legezko alaba lez onartua izan zana, eta Elboeuf´eko IIIn Karlos dukeagaz ezkontuta, 1.663ko urtean il zana.

1.598ko urtean, Txebalier Bendometar Alejandro, 1.599ko urtean legezko seme lez onartua, eta 1.629ko urtean il zana.

***Balzak d'Entragestar Katalina Enriketaz:***



1.601eko urtean, Gaston Enrike Berneuleko dukea, 1.603ko urtean, legezko seme lez onartua, eta 1.682ko urtean il zana.

1.603ko urtean, Gabriela Anjelika Berneuleko Andrea, 1.627ko urtean il zana.

***Bueil'eko Jakeline Moreteko dukesakaz (1.580-1.651ko urte bitartean bizi zana):***

1.607ko urtean, Antonio Moreteko kondea, 1.608ko urtean, legezko seme lez onartua, eta San Estebaneko abata izanda 1.632ko urtean il zana.

***Essarts'tar Karlota Romorantineko kondesakaz:***

1.608ko urtean, Juana Bautista, 1.608ko urtean legezko alaba lez onartua, Fontebrauteko abat-andrea izanda, 1.670ko urtean il zana.

1.609ko urtean, Maria Enriketa, Txelleseko abat-andrea izanda 1.629ko urtean il zana.

## ***2. 21. Frantziko Iraultzaren ondorioz, erregeen gorputzakaz egin ebena.***

1.610eko urtean Nafarroan IIIIna eta Frantziko erregetzan IVn Enrike il ebenetik lau urtera, giz-irudi bat egin eutsoen Parisen jarri zana.

Frantziko Iraultzan apurtu ebena.

1.818ko urtean leenengoz barriztu zana.

Bere izenean bizkortu zan Frantziko lurraldean, erregetzakako erakundea, ta berari atara eutsoen ***IVn Enrike Bizi dan*** abestia, ereserki lez ibili ebena frantzezak, Borboitarren berregintzan.

1.793ko urtean, Saint Deniseko eleizaren edestian, bertan obiratu ziran, errege erregeñ, printze, zaldunezko ta aundiki gizon emakumeak, Frantziko iraultz orreitan, danak atara ebazan euren il kutxetatik, eta danak illobi baten osteratu lurperatu.

IVn Enrikeen gorputza, ***a la Italiana*** illobiratuta egon zan lez, erritarrak moztuta ikusi egien, ebakaldi edo moztaldi asko egin eutsoen, eta artean buruarena.

1.817ko urtean XVIIIIn Luisek, eleiz orren otoiz-tokiak berriztu ebazan, gorputz guzti orreik euren illobitan sartzeko baiña, IVn Enrikeen gorputzari, ez jakon agertzen burua.

1.919ko urterarte, iñork ez eban jakin nun aurkezten zan IVn Enrikeen buru ori, arik eta Bourdais'tar Joseph Emillek, norgeiagoko saltzaro baten iru frankoagaitik erosi arte.

Iñork ez eutson sinistu, ez eta ***Loubreko-Erakustokikoak be***, eta Bourdaistarren arrebak gorde eban, arik eta 5.000 frankoagaitik, Bellanger'tar Jakeseri saldu arte, onek bere etxean gorde egin ebena.

Kazetari batzuk, ***IVn Enrike alkartearen lendakari zana*** Babelon'tar Jean Pierre-gaz batera, zar sarian sartuta egon zan Bellanger'eri atzemon emonda, onek baimena emon eutsoen, jakin bideko azterkuntza bat egiteko buru orreri, eta or jakin eben, Nafarroako IIIIna eta Frantziko IVn Enrikeen burua zala, XVIIn Luisen gorputzagaz berdinkatu ebenean.

Gaur egun buru ori, Pariseko inguruan, diru-etxe baten dago itxaroten, ia Saint-Deniseko eleizan, berriz noz illobiratu arte.

## 2. 22. *Gaztelako II In Felipe erregea.*



*Gaztelako II In Felipe “Zentzun edo Burudun” erregea.*

1.527ko urtean Lorailaren 21ean Balladolizeko jauretxean jaio zan, I Karlos bere aita eta Portugaleko Isabel bere amaren bidetik.

1.598ko urtean Iraillaren 13an Eskorialeko San Lorentzon il zan 71 urte euki ebazala.

1.554ko urtetik Napoles eta Siziliako errege izan zan.

1.554ko urtetik 1.558ko urterarte, Ingalaterrako Mariaregaz ezkondata, Ingalaterrako ta Irlandako errege be izan zan.

1.556ko urtetik aurrera Gaztelako edo espainiako errege izan zan, bera il zan arte.

Eta 1.580ko urtetik Portugal eta Algarbeseko errege I Felipe ´en izenarekin.

## 2. 23. *II In Felipe, Milaneko dukea.*

1.535ko urtean, eta azkeneko Sforza il zanean, Milaneko dukadoa agintari bage geratuta, eta Frantziko erregeak Biskonti familiagaz sendituta egon zan lez, I Franzisko Frantziko erregeak, Milaneko dukadoa eskatu eban berentzat, eta bereala asi eban irugarren guda I Karlosen aurka, 1.538ko urtean amaitu zana Nizeako gudarte bategaz.

1.540ko urtean Milango dukado orrek, agintari bage aurkezten zan, eta I Karlos bera, Erromatar Jermaniko kaisar lez eta Milaneko dukadoa, kaisertza orren feudopekoa izanda, bere izenean artu gura eban, azkenez izen buru ori, II In Felipeen izenean ipinita.

1.540ko urtean Urrillaren 11n, izkutuko eleizkizun baten izendatu eben II In Felipe dukado orren agintari, aukeratutako printzeari ezer esan bage, euren bidetik ez zedin Aberri edo nazioen arteko arazorik sortu.

1.542ko urtean, beste borroka bat sortu zan Frantzia eta espainitarren artean.

Eta 1.544ko urtean amaitu zanean borroka au Krepiko bakearekin, baldintza artean egon zan agindua, Frantziko I Franzisko erregearen seme Orleanseko dukea, I Karlosen alaba Absburgoko Mariarekin ezkontzea zan, Bealdeko Erriak eta Franko konderrria, ezkontzako sari lez emonda.

Edo ta bestela, I Franzisko Orleanseko duke ori, I Karlosen anai, Romanoseko errege Fernandoren alabea, Absburgoko Anagaz ezkontzea, sari lez Milaneko dukadoa emonda.

1.545eko urtean Orleanseko dukea il zanean, erabagi orreik ezerezean geratu ziran.

1.546ko urtean Uztaillaren 5ean ta ostera be izkuturik, IIn Felipe izendatu eben Milaneko dukea.

1.550eko urtean zabaldu eben IIn Felipeen agintaritza.

Eta 1.550eko urtean Otsaillaren 10ean baieztu zan IIn Felipeen agintaritza, Gonzaga´tar Ferrantek, Milaneko jaurlari lez, ziñez itz emonda erritar ta bere aldetik IIn Feliperi.

## 2. 24. *IIn Felipe, Napoleseko errege.*

1.553ko urtearen azkenetan, IIn Felipeen ezkontza aldarrikatu eben, bere bigarren maillako izekoa zan, Ingalaterrako I Mariarekin.

Eta sortu zan arazoa: IIn Felipe, printzea baiño besterik ez zala izan, eta ustebageko burutaldia<sup>(1)</sup>, erregeña, bera baiño mailla bekoago bategaz ezkontzea zan.

I Karlosen erabagia, Napoleseko erregetza bere seme IIn Feliperi emotea zan, arazo ori konpontzeko.

1.554ko urtean Uztaillaren 24an eldu zan Ingalaterrara, I Karlosek bialdutako Fige-roa´tar Juan, Napoleseko errege-ordea zana, zelan IIn Felipe izan zala Milango dukea ta Napoleseko erregeen agiriekin. Eta urrengo egunean, Uztaillaren 25ean ezkondu ziran.

## 2. 25. *IIn Felipe, Ingalaterra ta Irlandako errege.*

1.553ko urtearen azkenetan, bere bigarren izeko Ingalaterrako I Mariarekin anto-latu eutsoen ezkontza IIn Feliperi, eta bera erregeseme ta dukea bakarrik izanda, ortik sortu jakon arazoa, erregeña bategaz ezin zala ezkondu, orduko urtetan ustegabeko burutaldia<sup>(1bis)</sup> izan zalako, euren agintaritzazko mailla orreik.

Orretarako bere aita Gaztelako I Karlosek, Napoleseko erregetzari uko egin eutson bere seme Feliperen alde, eta orain bai antolatu bear izan eben ezkontza au.

1.554ko urtean Uztaillaren 24an joan zan Figeoatar Juan I Karlosen ordezeko lez, eta Napoleseko errege ordezeko lez Ingalaterrako arduradunai esaten, Felipe Napoleseko errege ta Milaneko dukea zala.

1.554ko urtean Uztaillaren 25ean ezkondu ziran IIn Felipe eta Ingalaterra ta Irlandako I. Maria erregeña, elizkizunaren amaieran, errege lez artuta erritarren aldetik.

Ingalaterraren jabetasunezko askatasuna bere lekuan izteko, ezkontza onetarako ezarri ziran baldintzak oso gogorrak izan ziran.

-IIn Felipek, Ingalaterrako erritarren eskubideak lotsa aundian edo begiramenez artu bear izan ebazala.

-Gaztelako gortek ezin eban Ingalaterraren gorteari diru edo gudaloztearen la-guntzarik eskatu.

-Garbi geratuta, etenbageko bakeak eukitea Frantziarekin.

-Ezkontza onek semerik eukiten ba eban, Ingalaterra, Bealdeko Errien, eta Bor-goñako ondorengoa izendatuko ebala.

(1) Uste-gabeko burutaldia = impensable ocurrencia.

-Maria ama ilten bazan umea txikerra izanda, bere azkuntza Ingalaterran edo Ingelesak egingo ebela.

-Felipe ilten bazan, Maria bere emazteak urtero, 60.000 libera artuko ebazala, eta Maria izaten bazan lenengo ilten zana, Felipek alde egin bear ebela Ingalaterratik, Ingalaterrako erregetzagaz euki ebazan eskubide guztiari uko eginda.

IIn Felipek, agiriak izenpetu ebazan erako legean bete ebezan bere egiteko guztiak, ata guzti baiña, aurkako eraso gogorrek artu izan bear ebazan ingelesen gorteko eta biltzarreko arduradunen bidetik.

*Eurak euki zituzen izen buruak.*

*Jainkoari esker: Ingalaterra, Francia, Napoles, Jerusalem, Irlanda, eta katolikotasun sinismenaren babesle.*

*Espainia, Sizilia, eta Austriaren artxidukeak.*

*Milan, Borgoña, eta Brabantearen dukeak.*

*Absburgo, Flandes eta Tiroleko kondeak,* euren erregetzazko leen eta bigarren urtean.

1.555eko urtearen Epailan, Westminsterreko batzarrean, IIn Felipe ilteko egon zan gaztakeri bat ezereztu ebela esan eben.

Gaiztakeri orren eraso, gortearen biltzarreko ordezkari ta ukalariak aurka euki ebazala zan.

IIn Felipek bere zentzun on bitartez, I Mariaren aurka egin ebezan matxintasun eta zaratagaitik, Londreseko dorrean egon ziran atxilotutako zaldun edo ta ospedunak askatu ebazan. Bai bere alegiñetan, Ingalaterrako erritarrak eleiz katolikura ostera aldatu zitezen be ibili zan.

Eta ingelez batzuk, ez ebelako onartzen euren eleiz gora berako kontuetan ibili zediñ, agertu jakon aurkakotasun ori.

1.556ko urtetik aurrera denbora baten, Ingalaterratik kanpo ibili bear izan eban, bere aita I Karlosek, Sizilia eta Zerdeñako erregetzak bere ardurapean ipini ebazalako.

IIn Felipek, Bealdeko Errietara joan zanean, ainbat mezu edo eskutitz bialtzen eutsoen Ingalaterrako gortekoak, a edo ta besteak, zer ote diran edo zelan egin bear diran, eurak erabagi bat artzeko, izen aundia artzen joanda.

1.557ko urtean Azaroaren 17an, IIn Felipe Bealdeko Errietan egoala, Tudor'eko I Maria bere emaztea il zan, seme alabarik euki bage, I Maria aurgite orretan il zalako.

Eta bere aizpa I Isabel ezarri zan Ingalaterrako erregetzaren aulkian. IIn Felipek onartu ebana.

1.554-1.558ko urte bitartean izan zan Gaztelako IIn Felipe Ingalaterra ta Irlandako erregea.

## **2. 26. *Gaztelako Igoa eta Alemaniako kaiserraren Vn Karlosek, bere seme IIn Felipeari apur apurka, euki ebazan erregetzazko jabetzak emoten.***

1.555eko urtean, I Karlos adiñetan sartuta eta beren oin-zainarreko gaisoagaz nekatuta, gero ta lur geiagoren jaurpidetza joan zan izten Iigarrengo Felipeen arduratan.

1.555eko urtean Urrillaren 22an I Karlosek, Bruselaren egoala, Gudularien Ikasle Nagusitasunaren<sup>(1)</sup> izen buru lez euki eban guda-erakundeko Urrezko Toisona, bere seme II In Felipeen arduratan itzi eban.

1.555eko urtean Urrillaren 25ean iru egun beranduago, eta batzar aundi baten Absburgotarrak erooten eban Bealdeko Erriaren jaurpidetza, bere seme II In Felipei aldatu eutson.

1.556ko urtean Urtarrillaren 15ean II In Felipe egin eban Gaztelako errege, eta or iraun eban bere eriotzerarte.

1.556ko urtean Urtarrillaren 16an I Karlosek, bere bakarreko gelatan egoala, eze- ren arau barik emon eutsoezan II In Felipei, erdiugarte onetan euki ebazan ardurak, Sizilia ta Indiasekoakaz batera.

Eta 1.556ko urtean Ekaiñaren 10ean, Borgoñako konderrria be, Felipeen arduratan itziko eban.

1.556ko urtetik aurrera, sarri urtetan eban Ingalaterratik II In Felipek, bere aita Gaztelako errege I Karlosek gaisorik, beren ardurapean utzi ebazalako Gaztela, Sizilia, eta Zerdeñako jaurpidetzak.

1.556ko urtean egin eban Gaztelako errege II In Felipe, eta ortik aurrera, Madrilgo erria artuko eban, bere bizi leku lez.

## 2. 27. *Frantziren aurkako gudak.*

1.557ko urtean Dagonillaren 10ean, ta Frantzezak flamenkoari laguntzen eutsoelako, San Lorentzoren bezperan II In Felipek, San Kintineko borrokan garaipendun urtenda, Frantzezak menperatu ebazalako, bere oroimenez Eskorialeko San Lorentzoren lekaidetza irasi eban.

1.558ko urtean eta frantzesaren aurka, Grabelinaseko borroka euki eban.

1.558ko urtean, flamenko ugonote edo ukalariei, frantzez ugonoteak emoten eutsoen laguntzagaz, ostera larritu ziran Frantzia ta Gaztelako gortearen arremanak.

1.558ko urtean Azaroaren 17an, Felipe Bealdeko Errietan egoala il zan I Tudor ´tar Maria seme alaba euki barik, eta Felipe berak onartu eban bere koñata I Isabel Ingalaterrako errege aulkian ezarri zedin.

1.559ko urtean eta gaztelarrak lortu eban garaipen onen ostean, Kateau-Kanbrensis ´eko Bakea izenpetu zanean, Frantzesak, Gaztelako nausitasuna onartu ondoren baiezteko, II In Felipe Frantziko Isabelegaz ezkonduko zan.

1.559ko urtean eta Italiako borrokak amaituta, Austriarrak kaisertzazko indarke- riagaz, leenengo lekuan ezarri ziran, frantzesaren kalte.

## 2. 28. *Gaztelako II In Felipe, Bealdeko Erriaren errege ta Borgoñako dukea izateko euki ebazan arazoak. Eta II In Felipe, Gaztela, Sizilia eta Indiaseko errege.*

1.559ko urtearen ezkeroztik gaztelarrak, II In Felipeen arreba Parmako Margaritaren agindupean zuzenduz, erregetzako zaldun edo aundikieri aurre egin eutson, auek

(1) Urrezko Toison erakundearen Gudularien Ikasle Nagusia = mestre de la orden del Toison de Oro.

askatasun geiago eskatzen eutsoelako, eta ukalariei, begirun geiago eskatzen eutsoelako euren erlijioagaitik, ekintza onegaz, 80 urteko borroka bateri asiera emongo jakon.

II In Felipe baiña, beste erabatekoa izan zan, berak 1.545eko urtetik aurrera Trenton egin zan Eleiz Batzar Nagusian, eta berton artu ziran erabagiak ipini gura ebazalako, Mediziseko Mariari eskatuta, zaldun edo gorteko ugonote edo ukalari nagusiei aurre egiteko.

Eta Beko Errialdekoak jakin ebenean joko ori, matxintasunezko zurmuru bat asi zan, billakari edo inkisiziozkoaren epaiketazko erabakiari uko eginda.

1.560ko urtetik aurrera II In Felipek, Beko Erritarrei laguntzarren, Ingalaterraren aurka borrokatu zan, erlijiozko arloaren gora beran.

Eta Karibe aldean Ingelesaren itsasontziak, Gaztelako itsasontzieri ostu edo lapurketan egiten eutselako, borroka nagusi orreñ ikustegi edo antzoki biurtu ziran Karibe-ko inguru orreik Atlantiko itsasoan.

Otomanoen kaisertza edo Turkoak, len be borrokatu ziran Gaztelako I Karlosen aurka, eta oraingoan II In Felipe aurkari daukiela.

1.560ko urtean Turkoen itsasontzidia aundia izan zan, eta garaille urten eban, Los Gelbeseko borrokan.

1.561eko urtean II In Felipek, Balladolizetik Madrillera aldatu eban bere gortea, eta ortik aurrera errege guztiaren zilborrezko Uria izango zan, 1.601-1.606ko urte bitartean, III In Felipe renak izan ezik.

1.565ko urtean baiña, Turkoen itsasontziak, Maltari egin eutsoen ingurutasun gogorrean uts egin eben, eta alde egin bear izan eben orko inguruetatik.

1.566ko urtean Urtarrillaren 16an I Karlos bere gelan gaisorik egoala eta Feliperi deituta, ugarteerdi<sup>(1)</sup> onetan euki ebazan jabetasun eta Jauntzak artekari lez, Sizilia eta Indiasekin batera, bere arduratan ipini ebazan.

Naita Felipek, jaurpidetza orreik, 1.544ko urtetik ikastaro lez eroan.

1.566ko urtean zaldunak edo gorteko andikiak, Bruselazeko jaurlari edo gobernariaren etxe aurrean batu ziran eskari, eta eskale edo eskatzaille lez bialduko ebazan.

Bealdeko Erriaren Brabanteko lurraldean dauan Bredako errian, antolatzailezko lanak egiten ebazan Montmorency´tar Floris, eta Montyjniko Baroia bialdu ebazan Madrillera, geroago Berjehes be bai bialduta, ez ziranak geiago Bredara joango.

Parmako Margarita agintariak, Oranjeko Guillermo printzeari eskatu eutson, ba-keak egizan.

Oranjeko printzea, Eymont´go kondea, eta Horn´eko kondeak osteria eskatu eutsoen II In Feliperen arreba Parmako Margaritari, askatasun geiago emon egiela, onek, bere anai II In Feliperi esanda. Eta II In Felipe onek, ez ebalako aldatzen eritzirik, aita santuari zer egingo eban, itandu barik:

*“Podéis asegurar a Su Santidad que antes de sufrir la menor cosa en perjuicio de la religión o del servicio de Dios, perdería todos mis Estados y cien vidas que tuviese, pues no pienso, ni quiero ser señor de herejes”.*

1.566ko urtean Dagonillaren 14an, eta berri auek etorri orduko, Kalbinotarren talde bat matxinatu zan, eta Omer Saint´eko eleizea erasotu eban.

Gero, Ypres, Kourtral, Balenziennes, Tournai eta Amberesetik zabaldu zan.

(1) Ugarteerdi = península ibérica.



IIn Felipek Montynjiri deitu eutson bere bulegora, Orokorrezko Laterriak batuko ebazala esateko.

1.566ko urtean, diru kontuan be egin ziran berrikuntza aundiak, urrezko-diru txanponari balio aundiagoak emoteko, eta beste zillarkerizko diru xe'ari be, bai.

IIn Felipek, bere aita I Karlosen antzera, al osokerian zuzendu ebazan euren ardurapeko lurraldeak, Bizkaiko jauntzan izan ezik, Bizkaitarren aldetik, danetarako artzen eban laguntzagaz, Foruzko lege auek ondo zaindu ebezalako Austria'tar guztiek.

1.566ko urtean Urrillaren 29an, IIn Felipek, bere begiko aolkulariak batu ebazan: Eboli, Alba, Feria, Espinosa kardinala, Manriketar Juan ta Txintxon kondeak, eta baita laterriaren ixil-gordari edo idazkari Pereztar Antonio eta Zayastar Gabriel. Eta IIn Felipek danon eritzi orreik artuta, indarra erabiltzea erabagi eban.

Orrela erabagi zan, Albako Dukea bialtzea matxintasun orreik menperatzera.

Karlos, IIn Felipe erregearen semeak, bere ardurazko gauzatan sartzen zalako Albako dukeari aurre eginda.

1.567ko urtean Dezako Pedro Granadako erregetzaren kanzillerrak, moruen erlijio, izkuntza eta euren jendekuntzazko askatasunak debekatuteko, agiri bat zabaldu eban.

Moruek matxinatu ziran, eta alan iraun eben, arik eta Austriako Juanek, 1.579ko urtean guda indarrez, menperatu ebazan arte.

1.567ko urtean IIn Felipek, Kastro eta Zuritatar Jeronimori agindu eutson, gaztelar agiriakaz batera ipinteko, Aragoi ta Italiako laterriaren agiri guztiak batu egiezala, eta Simankaseko gaztelura eroan ebazanean, alan sortu zan, orduko agiritegi nagusienetariko bat.

I Karlosek ezarri eban aolkularitzazko jaurkintza lurralde guztietarako, erregea, batzar orren lendakaria izan zedin, IIn Feliperen denboran be, erdiugarte onetako laterri osoaren jaurbidea izan zan.

Sei lurralde izan ziran, aolkularitzazko batzarraren lurraldeak, lege-agintean, auzi-lanean, eta egilletasunezko arloetan lan egiten ebezanak: Gaztelanian, Aragoien, Portugal, Indias, Italian, eta Bealdeko-Errietan.

IIn Felipek, beti arduratu zan aolkulari onenetarikoak bere ondoan eukiten be, adibidez: Rekesenstar Luis, Albako dukea, Idiakeztar Juan euskalduna, Granbelako Perrenot'tar Antonio borgoñes kardinala, Silbako Gomeztar Ruy eta de Mouratar Kristobal portugesak, Ezberdiñeko bulegoetan egon ziranak, laterrizko batzarraren kideak izanda batera.

IIn Felipegaz, ixil-gordari, edo ta idazkariaren lanari be, emon jakon ardurua aundia, eta bere idazkari onen artean: Pereztar Gonzalo, onen seme Pereztar Antonio, Grabelatar kardinala, eta Bazkez de Leka'tar Mateo izan ziran.

1.567ko urtean Dagonillaren 28an eldu zan Bruselasea, Albako duke ori, eta aurkeztu eutsoen gudoletzeari astiñdu ederrak emonda, aurkari euki ebazan agintari guztiai buruak moztu eutsezan. Bealdeko Erriaren jaurlari izan zan Parmako Margarita IIn Felipe erregearen arrebak, zuzentzeko euki eben aginteari bertan itzi eutson, bere anai IIn Felipek onartu ebana.

1.567ko urtean Iraillaren 9an atrapau ebazan Ejmont eta Horn agintariak.

## 2. 29. *IIn Felipek, bere Karlos semeagaz euki ebazan arazoak.*

1.545ko urtean, IIn Felipe ta Portugaleko Mariaren bidetik jaiο jakien Karlos seme au, Maria ama, jaiokera orreitan ilda.

Karlos printze au, ez zan gauza aundirik osasunez, burutik ondo ibiliez gaiñ, gorputzez be makal antzeko bat izan zalako<sup>(1)</sup>.

Alkalako Ikastetxe Nagusian ezi eben, bere ugaz-osaba Austriako Juanegaz, Karlos baiño urte bi gazteago izan zana.

Karlos onek, Flandestar matxinatuekin alkartu zan bere aita IIn Felipeen aurka, ta galbide ortatik ebillela, Albako dukea be aitzokatu gura eban danon aurrean, bere gauzatan sartzen zalako, IIn Felipek, seme ori auzipetu eta bere gelatan atxilotu ebena.

1.568ko urtean, Arebaloko gaztelura eroan eben atxilotuta, eta bertan il zan, ez ebalako jan gura ezer.

## 2. 30. *1.568-1.571ko urte bitartean, Alpujarrasko matxintasuna.*

1.567ko urtean Granadaren erregetzazko kanzillerrak Dezako Pedrok, agiri bat zabaldu ebalako, moruen erlijio, izkuntza eta euren jendekuntzazko askatasunak debekatzen, moruek matxinatu ziran, eta alan iraun eben, arik eta Austriako Juanek, guda indarrez menperatu ebazan arte.

Eta 1.568ko urtean Ekaiñaren 5ean Ejmont eta Horn il ebazan.

IIn Felipek, jaurkintzan sortu jakozan utsunei irtenbideak topetan, Rekesenstar Luis, Austriako Juan, ta Farnesiotar Alejandro izendatuta bete ebazan, azkeneko onek Arraseko Elkartearen egoaldean egon ziran katolikoak, menperatzea lortuta.

Eta ukalariak au ikusita, Utretxt'eko alkartasuna osotu eben.

1.568ko urtean, Baloiseko Isabel bere emazte ta bere seme Karlos bere ondorengo ilda, mutil edo gizonbageko ondorengotasunean geratu zan.

Urte gogorra zan IIn Feliperentzat:

- Bere bigarren ezkontza Ingalaterrako I Mariarekin ez ebalako euki seme-alabarik.
- Bere Baloistar Isabelegaz irugarren ezkontzatik, alaba bi eukinda.
- Eta urte onetan Baloiseko Isabel ilda, IIn Felipe 41eko urte eukezanakaz alargunduta, ondorengotasunezko seme barik agertu zan.
- Batera Flandes ta Alpujarrak matxinatuta euki ebazan.
- Baita Frantzian eta Europa erdian, etenbageko aurrerakuntza egiten ebena, Kalbinistatar ukalariak.
- Moruen itsasoko-lapurtza.
- Eta Maltaren ingurutasuna kale eginda.
- Otomanoen keiñaduragaz.
- Eta baita Soliman Aundia il zanean.

Erregetzan, IIn Feliperi agertzen jakozan arazoekin, ekaitz baltzaren itxaropenak aurkeztu jakozan aurrean.

(1) Alan diño e edestilari batzuk.

## Oar txiki bat emen.

*Argi agertzen dira emen, berezko legearen aurka, aztura bidez edo lojikazko ekin-tzan egiten doguzanak, itaun onegaz: “Zelan betirako menperatu...., arrazoibageko guda indarragaz menperatzen dana?”.*

*Bizitz onen legea, beti txarto, oker, edo apurtzen doguzanen asierara itzultzea da, Jaungoikuak beti, garbitasunetik asi gaitexan berriz, aukerea emoten dauzkulako, sortzen doguzan okerrak zuzentzeko.*

*Jaungoikuak bakez bizitzeko, aukera berri orreik emonten dauzkuzalako beti.*

*Eta gaur lez, buru gogortasun orreik agertu ziran errege guztiekin, Nizeatik artu ziran katolikotanezko aberkuntzan batzangotzeko okerrezko erabagitik, sekula ez gare-lako aldendu, edo asierazko aukeretara aldatu, bakez bizitzeko.*

*Irañ edo erronka<sup>(1)</sup> bat da gaur, gaurko Omosapienseri, arrazoi edo adimenduneko dala esatea, “asto uts bat bakarrik dalako”.*

1.570eko urtean II In Felipe laugarrenez, Alemaniako II In Maximiliano kaiserraren alaba, eta bere lengusña izan zan Austriako Anarekin ezkonduko zan, beragaz lau seme-alaba eukinda.

Danetatik, III In Felipe elduko zan nausitasunezko adiñetara.

1.570ko urtean eta bakezko urte batzuen ostean, ostera asi ziran Turkoak erasotzen Lurrarteko itsasoaren ekialdea, Beneziako kaietatik ibilita ondoren, Benezia ta Txipre artzen dabe 300 ontziekaz, gero Nikosia inguratuta.

Beneziatarrak, katolikuerei eskatu eutsoen laguntza, baiña Vn Pio Aita Santuak bakarrik erantzun eutsoen.

V.n Pio Aita Santuak, II In Felipe Gaztelako erregeari eskatzen dautso, berak be lagundu egien, eta ontzidi sendo bat antolatu eban Turkoen aurka joateko.

Kretako Kandia ugartean, Suda 'ko kaian batu zan itsas-ontzidiko elkarte au, “Al-karte Santua”ren izenagaz, Turkoen aurka joateko.

1.571ko urtean Urrillaren 7an II In Felipek, Aita Santu, Benezia, ta Jenobestarren itsas ontzidiagaitik lagunduta, Austriako Juanen agindupean, Ali-Baja Turkoa menperatu eben Lepanto edo Korintoko golkoan, egin zan itsas-guda orreitan.

Katolikuak urre-gorri asko eta gudarako bear ziran tresnerietan, altxor aundiak atrapau ebezan, eta baita Turkoak baituta euki ebazan 12.000 atxilotuak askatu, Ali Baja bera borroka orreitan ilda.

Borroka onen ostean otomano edo Turkoak, ostera arduratu ziran euren itsas-ontzidi ori berrezkuratzen, eta Lur-arteko itsasoaren berberisko itsas-lapurraz alkartuta, ia urte bi ibili ziran borroka aundi bat antolatzen.

1.573ko urtean II In Felipeen anai Austriako Juanek, Tunez ta La Goletako kaiak artu ebazan, II In Selim, Soliman Aundiaren ondorengoa zanak, 300 gudarako ontzi eta 100.000 gudari bialduta, Tunez ta Goletako kaia ostera berrezkuratzen.

II In Selim 'ek naita borroka ori irabazi, 30.000 gudari galdu ebazan borroka orreitan. Azkeneko itsas-borroka aundia izan zan, Lurrarteko itsas orreitan.

(1) Irañ edo erronka = Irañ: ultraje, injuria, ofensa. Erronka = clase social, rengu, posición, calidad, etc.

Ata guzti, gudakaz ez zana lortu, erri arteko alkarriketak eta giza-legeen bidetik lortu zan.

IIn Felipek, Flandeseko borrokak aundiagotzen euki ebazalako aurrean, eta IIn Selim´ek Persiako borrokari aurre egin bear eutsolako, biak egon ziran euren mugado lurraldeak babesten, indar geiago euki barik, euren arteko borrokak aurrera eroateko. Lau urteko epean beintzat.

## 2. 31. *IIn Felipe, Portugaleko errege lez.*

1.578ko urtean Dagonillaren 4an, eta Portugaleko I Sebastián erregea, Marrueko-seko lurraldean Alkazarkibirreko borrokan il zanean ondorengo barik, Portugaleko erregetza, erregearen aiton-osaba zan Portugaleko I Enrike kardinalaren eskuetan, jausi zan.

Onen erregetzan IIn Felipe, Portugaleko I Isabelen semea lez, Portugaleko erregetzaren ondorengo biurtu zan, Portugaleko erregetzan I Manuel ta Austriako I Katalina<sup>(1)</sup> Portugaleko erregeñaren billoba, baita Saboya ta Parmako dukearena, Krato´ko lekaretxearen Antonio lekaidabagaz<sup>(2)</sup> batera.

IIn Felipek, Portugaleko aundikien eta eleizako agintarien laguntza eukinda, eta Kratoko Antonio lekaideak, erritarrena.

1.578ko urtean il zan Austriako Juan.

1.579ko urterarte izan zan IIn Felipe erregearen idazkaria Aragoiko Pereztar Antoniok, Eskobedotar Juan, Austriako Juanen uste osoko gizona il ebelako, eta baita erregearen usteagaz geikeriak egiten ebazalako, atxilotu eban.

IIn Feliperi gorteko aundikiak eta eleiztarrak laguntzen eutsoen, Kratorrek baña, erritar geienak euki ebazan bere alde.

1.580ko urtean Austriako Ana laugarren emazte au il jakonean eta bere ondorengotasuna baieztuta euki eban lez, ez zan ezkondu aurrerantzean.

Alaba seme auetatik, IIn Felipe izango zana bakarrik bizi zan 1.578ko urtean Jorraillaren 14an jaio zana eta 1.621eko urtean Epaillaren 31raño bizi zana.

1.580ko urtean Uztaillaren 24an Portugaleko errege I Enrike il zanean, Krato´tar Antonio lekaidaba izendatu zan Portugaleko errege, eta Gaztelako IIn Felipek bere Portugaleko eskubideak babesteko, Albaraz de Toledo ta Pimenteltar Fernando<sup>(3)</sup> bialdu eban gudalozte sendo bategaz Krato lekaidabaren aurka.

Kazerezeko lurraldean Tajo ibaiaren gaiña dauan Alkantarako errian aurkitu ziran gudalozte biak, eta Kratok astindu ederra artu ondoren, Azoreseko ugarteetan ostondu zan.

1.580ko urtean Iraillaren 12an eta Lisboa artu ondoren, IIn Felipe, Portugaleko errege egin eban, Portugaleko I Feliperen izenarekin.

Or euki eben gaztelarrak lenengoz erdiugarte<sup>(4)</sup> au, errege baten jaurkintzapean.

Eta 1.581eko urtean Jorraillaren 15ean Portugaleko gorteak batuta, ontzat artu eben I Feliperen erregetza.

(1) Portugaleko I Katalina = Felipe Ederria eta Juana Zoroak euiki eben azkeneko neskatilla zan. (2) Lekaidaba = prior de un convento. (3) Albaraz de Toledo ta Pimenteltar Fernando = Albako dukea. (4) Erdiugarte = península ibérica.

1.581eko urtean Uztaillaren 26an, Brabante, Güeldres, Zutpjen, Olanda, Zelanda, Frisia, Malinas eta Utrex'eko lurraldeak, egin eben Orokorrezko Laterrien batzar bidez, ziñ ukatzeko agiria agertu ebenean, IIn Felipe Gaztelako erregeagaz euki ebazan arreman guztiak ezereztu ebezan, euren errege lez, Anjoutar Franzisko artuta.

IIn Felipek baiña, ez eban onartu erabagi ori, eta Bealdeko Errien jaurlari Farnesiotar Alejandrok, erasoan asita euren aurka, ia lurralde geienak berrezkuratu ebazan, eta geiago Anbereseri egin eutson ingurutasun bidetik.

1.582ko urtean Bazantar Albarok, frantzezaren itsas-lasterkariak<sup>(1)</sup>, ontzidi bat menperatu eban Terziako ugartearen borrokan, eta bertan ibili ziran lenengoz, orretarako irasi ziran oiñezko itsas-gudarien gudalozteak<sup>(2)</sup>.

1.583ko urtean, Gurutze Santuko Markesa, Albaro de Bazan Gaztelarren itsas-ontzidiaren nagusiak Azorezko Ugarte orreitarara joanda, eta Irugarrengo Ugartean<sup>(3)</sup> aurkituta, bertatik atara eban Bazan'ek, Krato'tar Antonio lekaidaba.

Gaztelan IIna eta Portugaleko I Felipek, Madrilletik zuzendu eban Portugaleko erregetza, bertara, kondestable edo ta errege ordezeko izenakaz, Alvarez de Toledotar Fernando bialduz, Felipe erregearen aginduak bertotik beteteko.

*Aita-amabako espainol ameslariak esaten dabe, or batu zirala lenengoz erdiugarte onen erri ezberdiñak errege baten azpian, gero katolikotasunean aberrikuntzatuz, España deitzeko.*

*Euskalerrria, Kataluña eta Galicia, IIn Felipe erregearen gaztelar jauntzapekoak zirala, zenbatu ezkerro, ez ?.*

*Ortik urriñ dago egia baiña, erdiugarte onen berezko erriak, nor izanez gain, milla urte askotako aita-ama eta izenak daukiezelako, eta batez be, Euskalerrriko alaba-semeak.*

IIn Felipeen erregetzan, Gaztelarren barruko arazo larriak aipatu leikez, eta batez be, bere seme Karlosena, ixil-gordarien arduradunarena, edo ta Pereztar Antonio idazkariarena, eta Alpujarraseko guda.

Baita, zelan amaitu eban erdiugarte onetako Balladoliz ta Sebillan egon ziran ukalariakaz.

Nassauko Mauriziok egin eben erasoagaz Flandesen, IIn Felipek, ostera galdu ebazan lurralde geienak.

1.585eko urtean Farnesiotar Alejandrok, European eta Beko Errialdeetan aberaztena zan Ambereseko uria inguratzen egoala, ta Europa guztia begira, ia nor geratzen zan borroka orren garaille, Farnesiok, Eskalda ibaiaren gainean, bere izena eroaten dauan zubi ospatsua eraiki eban, eta garaille urten ondoren, IIn Felipek galdu ebazan erri geienak, barrezkuratu ebazan.

1.586ko urtean Batzar Aundiko izenagaz sortu eban erakundea, lanezko agintaria-kaz<sup>(4)</sup> osotzen zan, eta idazkarien ardureagaz kontrolatuta egonda, onen zainpean, beste batzar auek egon ziran: gudari-mutillena, errizaiñak, gortekoak, lendakari, ta zergarenak.

Bealdeko Erri orreik, Frantzia eta Ingalaterrakaitik lagunduta, laster biurtuko ziran guda zelai aundi baten.

(1) Itsas-lasterkari = corsarios del mar alas órdenes de los reyes, a diferencia de los piratas o ladrones del mar = itsas-lapurra zana. (2) Oiñezko itsas-gudarien gudalozteak = aquí se formò la infantería de marina. (3) Irugarrengo Ugarte = Isla Terceira, que con la isla Graciosa y San Jorge, forman el distrito insular de las Azores portuguesas. (4) Lanezko agintariekaz = oficiales.



***Borgoñako ikurriña Gaztela edo espainiaren irugarrenko guda taldeak<sup>(1)</sup> eroaten ebena.***

1.588ko urtetik Aragoiko agintariak, Gaztelako erregetzagaz euki ebazan artu emonak ordezko errege arrotzaren gora beran, oso txarrak izan ziran, eta Ribagorzako konderriaren gudu antzeko arazoak gaiñeratukoagaitik, be bai.

Eta Pereztar Antonio Zaragozara iges egin ebanean, Aragoiko Foruakaz babesteko<sup>(2)</sup>, IIn Felipek, inkiziziozko auzitegiagaz gura eban epaitu, eta Zaragozako erritarrak matxinatuta, IIn Felipek gudaloztearen indarragaz menperatu ebazan.

IIn Felipek, bere aita I Karlosen antzera, al-osokerizko eran zuzendu ebazan euren ardurapeko lurraldeak, Bizkaiaren jauntzazkoak izan ezik, Foruzko lege auek ondo zainduten ebazalako.

Ez eban urtetan bere lurraldeak ikusten edo jaurkitzera, eta orren ordeak beteteko, ainbat errege-orde ta agintari zabaldu ebazan.

Diru kontu guztiak Gaztelatik egiten ebazalako, Gaztelako lurralde orreik, guztiz txirotu ebazan, ainbat bider.

I Karlos eta IIn Felipeen denboran, aurrerakuntz aundiak egon ziran izkillu ta itsas ontziren arloetan, gero ta obetoago antolatuta egon ziranak, etsaiari sarrazki aundiak egiteko, ta batera, lanezko tresnerietan ugaritasun azko aukeratuta.

Baita itsas-ontziren kañoi ta aiz-oialetan<sup>(3)</sup> be, gudak lurretik itsasoetara zabaltzeko.

Geroago agertuko ziran egazkiñak.

-Errez ikustenda emen, indarkerizko gauza oneik, ez zirela orduko gorte auek erregearen borondateetan, erritarrak demokrazian jaurkintzeko.

-Al osokerizko aunditasunera bideratuta baizik, kaisartzazko aundikerietan sartuta, ez ziralako naikoak aurrerakuntza guztiak, mercantil, diru, eta katolikotasunezko norkeriaren gero ta aundiagoko egarri-gosean, euren gogoko-naiak beteteko.

Eta gero ta gogortasunez keiñatzeko bear ziran inkisizioaren azterkuntzazko alegiñak ta zigorrezko premiñak, erritarren lepoak gero ta bearkuntzazko pillo aundiagoak arduratuz, guztiz neketako bidean ezartzen ebazan.

Guzurra dala ezanlei, eta jaurpidetzazko arloetan gatz sineztekoa: 325eko urtean Nizean, katolikotasunezko aberkidetzan batzangotzeko, ziñeskintzatu<sup>(4)</sup> egin zan bide

(1) Irugarrenko guda-taldeak eroaten eben ikurriña = la bandera màs utilizada por los tercios españoles, a los que tanto les gustaba Flandes, Os suena de algo “Una Pika en Flandes”?, Franco, la falange i los carlistas eran amantes de esa. Guda talde oneik onenak izan ziran, orduan ezagutzen ziran Europako guda talde guztietatik, baita euren gidariak be Toledoko Albaraz eta Pimenteltar Fernando Tormes de Albako IIIIn dukea, Farnesiotar Fernando Parmako dukea, Bazaneko Albaro eta Austriako Juan bezela. (2) Kontuan euki bearda, Aragoiko zuzenbidearen Arduradun Nagusia, erregezko agindutik kanpo edo askatasunezkoa zala. (3) Aiz-oialak = velamen movable de los barcos. (4) Ziñeskintzatu = dogmatizar.



ortatik, edestiaren denbora guztiko erregeak, *Nafar-Euskaldun erregeak izan ezik*, sekula ez dabela jaurkipidetu euren errigizartearen bizitzarako, bizitzazko bearkuntzak eskatzen eben guztia, *bete ezin dan katolikotasunezko aberkuntzaren gaizto amets ori elikatzen bear zalako, eta gaur lez, dirua ta katolikotasuna urrezko sasi-jainko txekor lez gurtzeko*.

-Orregaitik, menperatuz-gaiñ baztarten dabez, berezko errigizartearen eskubide guztiak, katolikotasunezko aberkuntza orren aitzakiakin, batzuk, diru zaletasunean bizitzeko.

-Frantzisko Aita Santuak be esaten dau: *Dirua artu dogula sasi-jainko lez*.

-Eta orko bidetik, gizakiak egiten dabezana alegiñ guztiak, *ke* biurtzen dira, errigizarte guztientzat.

Ameriketatik ekarten zan urre-gorria eta nekazarien lan guztiak, gaztelu ta munduan egon ziran zelatarizko gizon-sare aundienak eukiteko ziran, borrokazko garaipenak ugaritzeko.

Eta danak, bardiña gura eban lez edo ta dabelako, naita kaisertzazko aunditasun ori batentzako bakarrik izan, goitik berako agintaritzaz orregaz ikusten dozue, zelan egin leiken norkerizko lokatzarte aundi bat, gaur arte luzatzen dana.

Orduko zelatarientzat egin eben, ikusi ez zan egiten idazturra<sup>(1)</sup> edo idaztur, eta baita idaz txikerra edo mikroskopikoa, baita ilketa ugari, Oranjeko Gillermoren bezalakoak.

1.588ko urtean, Eskoziako erregiña Estuardotar Mariaren burua moztu edo il ebanen:

-Iñoiz ez zan ezagutu itsas-ontzidi aundiagorik, IIn Felipek bialdu ebana baiño, Medinasidoniako dukearen agindupean Ingalaterraren aurka bialdu eban.

-Eta ikaragarritzko porrota egin eban lez, porrotaren ostean, *“azpiratu ezin zan itsas ontzidia”* deitu eutsoen.

-Blaustada orrek, Ingeles eta Olandesaren ontzieri emon eutsen askatasun geiago, merkantillezko gauzatan ibililteko.

-Eta bai Gaztelako kaiari geigizko erasoak ugaritu, guda-ontzien gabezean geratu zalako.

## 2. 32. 1.590-1.591ko urte bitartean, Aragoiko larri-une ta Perez'tar Antonio.

1.590eko urtean Gaztelako gorteetan *Milloien zerga* batzea erabagi zan, beste itsasontzidi barri bat egiteko, Bizkaiko Jauntzara be etorri zirenak orren ordaiña ezkatzen, naita emendik ariñ urten bear izanda, gero Bizkaiko jauntzan agertuko dan lez.

Gorteko kirkillerien gaiñetik, diru asko zan ameskeriko kaisertza orreik, erlijio, erriarteko ta etxeko matxintasunak bear izan ebazan gudak, eta baita gero laterri-katoliko auek, dirutan bear izan ebana.

Eta gero ta geiago gura eban lez, buru-zalekeri edo norberkeri orren amiltegitiko zor zulo ori, iñoiz ez ebana euki betetako aukerarik, errigizarteko leenengo maillan bete bear ziranai, guztiz uko egiten eutsoen.

IIn Felipek eukezan zergak, oneik izan ziran:

(1) ikusi ez zana egiten idaztur = tinta invisible.

*Alkabala*, mugado zergak.

*Guruxadakoak*, eleizaren zergak.

*Laguntzazkoak*, saleros zergak, lantegi-zergak eta abar.

*Erregeen irugarrena*, militarren zergak.

*El Excusado, ez ebena ordaintzen ezer*, eleiz edo parrokien zergak.

*IIn Felipek eleizatik*, erregetzaren menpean egon ziran % 'tik, 20<sup>a</sup> batzen eban.

1.590eko urtean eta katolikotasunezko Elkarte Santuaren aldetik, Frantziako errege Borbontar kardinala il zanean, Gaztelako IIn Felipek, Frantziagaz ibili zan erlijiozko gudatan IVn Enrikeren aurka.

1.590eko urtetik Gaztelako ontzidiak Indiaseko ibilbidetatik ondo antolatuta egon ziran lez, Francis Drake, Martin Frobisher eta John Hawkins itsas-lapurrak, banan banan izan ziran ondo astinduak.

1.591ko urtean IIn Felipek, ostera indartzen dau bere itsas-ontzidia, eta Bazan 'tar Alonsoren agindupean 55eko ontzi oialekaz, Thomas Howard 'en aurka joanda, muturme eta mutur baltzaren bitartean arrapau ondoren, ingelesak iges egin eben Rebenje itsasontzi ederra atrapauta.

1.593ko urtean eta orokorrezko Laterriak batuta, IVn Enrikeren aurkakoa izan zan Mayeneko dukeak, IIn Felipeen alaba Isabel Klara Eugenia, ez eben erregeña lez onartzen, eta unetxo ori izan zan Nafar-Frantziko errege IVn Enrikek aukeratu ebena, katolikotasunera aldatzeko.

1.595eko urtean Ingelesak, 28ko itxas-ontziko ontzidi eder bat antolatu eben, Drakeen agindupean ipini ebena Panamako kai bat artzeko, baiña ez jakien ondo joan itsas-lapur orrei, eta bertan il zan sir Franzis Drake, beste alegiñ ondoren, Ingalaterrara joanda geratzen jakien zortzi ontziekaz.

1.596ko urtean Ingelesak Kadizeko kaia sarraskitu eben.

1.598ko urtean, IIn Feliperen itxaropenak ezereztu ziran, arik eta urte onetan Berbins 'eko bakeak ospatu arte.

1.598ko urtean Loraillaren 6an, eta IIn Felipe il orduko, Bealdeko Erriaren 17 lurralde orreik, IIn Feliperen alaba Isabel Klara ta bere senar Austriako Fernandoren eskuetara aldatu ziran, IIn Felipeen urte ta egun onen utzierazko agirian, agertzen dan lez.

### 2. 33. *Oar txiki bat emen.*

Emen argi konturatu geinke, erritarren eskubidearentzako ez dala agertzen ezer, onentzat dana izan zalako, bearkizunaren-izana, iñoren zorrak ordaintzea eta abar, barkarik.

IIn Feliperen erregetzan diru kontuko arloetan, naita Ameriketatik urre asko eka-ri, iru ondamen aundiak egon ziran: 1.557, 1.575, eta 1.596ko urteetan.

Gudaren bearkuntzagaitik geien, bere aita I Karlosen aldetik 20.000.000 dukadoen zorrak artuta, eta berak bere ondorengoari 100.000.000 dukado-zor itzita. Gaur, 1.300.000.000 euro diranak ?

Dan diru guzti au, naita erritarrak, guda-mutil, ta kirkilleri-zergakin<sup>(1)</sup> atsegabetuta egon arren, gortearen kirkillikeriak<sup>(2)</sup>, gudad eta kaisertza orrek, bere aundikerirako bear ebazanak ziran, eta ortik kanpo erritarrentzat ez zan egon ezer, nekea baiño besterik.

(1) Kirkillerizko- zergakin = impuestos suntuosos. (2) Kirkillekeriak = lujo excesivo.

Artxo edo bildots bezelakoak giñela entzun dogu sarri edestitik zear, eta 325eko urtean Nizeako eleiz batzarrean I Konstantino ta I Silbestre aita santuak, berba orren esangureakaz, gure sinispidetzan ezarri ebazan katolikotasunezko siñezkintzak, esan orren zentzuz jokatu ziran, baita gaur bardiñ egiñ eta esaten dabela ikusten dogu, an-diki orrein bidetik.

Esan orrek, itaun bat bakarrik agertzen dau, zelako oldozketak daukiezan or goien ezartzen diranak, errigizarte edo ta Jainkoak bereztutako bizi onen gaitik.

Eta jakin gura neuke, zeren serbitzura bizi ote garan, Jainkoak beren legeagaz bereztuta daukan Izadi onetan, norkerien aukeratik kanpo, ez badago zeregiñik, edo zeregiñ txarra baiño besterik ez, Jainkoaren lege-kanpotik, ikusten dogun lez.

## 2. 34. *IIn Feliperen edestia ostera artuta, izan ebazan alaba semeak.*

*IIn Felipe lenengoz, bere arreba-lengusu Portugaleko Maria de Manuelagaz 1.527-1.545eko urte bitartean bizi zana, eta 1.543ko urtean Azaroaren 15ean ezkonduta:*

1.545eko urtean jaio zan Austriako Karlos, Asturiaseko printzea eta seme bakarra izan zana, 1.568ko urtean il zana.

-1.554ko urtean Uztaillaren 25ean bigarrenez, bere aita I Karlosen arreba-lengusua zan Ingalaterrako I Maria erregiña, 1.516-1.558ko urte bitartean bizi zanagaz, eta urte onetan Wintxesterren ezkonduta, ez eben euki seme-alabarik.

*1.559ko urtean Ekaiñaren 22an Baloiseko Isabelegaz 1.545-1.568ko urte bitartean bizi zanakin irugarrenez ezkonduta:*

-1.566ko urtean jaio zan Isabel Klara Eugenia 1.566ko urtetik 1.633urteraiño bizi zana bere anai-lengusuagaz Austriako Alberto artxidukeagaz ezkonduta.

-1.567ko urtean jaio zan Katalina Mikaela, Saboyako duke I Karlos Manuelegaz ezkonduta, 1.597ko urterarte bizi zana.

Eta 1.568ko urtean Urrillaren 3an Juana, jaio barri il zana.

*1.570eko urtean Azaroaren 14an eta laugarrenez, bere legusu Absburgoko IIn Maximiliano eta bere arreba Portugaleko Austriatar Mariaren alabeagaz ezkonduta, lau seme eta alaba bat euki eben:*

-1.571eko urtean Abenduaren 4an, Fernando Asturiaseko printzea jaio jakien, 1.578ko urtean Urrillaren 18an il zana.

-1.573ko urtean Dagonillaren 12an Karlos Lorentzo, 1.575eko urtean Ekaiñaren 30ean urte bi egin barik il jakiena.

-1.575ko urtean Dagonillaren 15ean Diego Felix Asturiaseko printzea, 1.582ko urtean Azaroaren 21ean il zana.

-1.578ko urtean Jorraillaren 14an jaio zan Felipe Asturiaseko printzea eta errege izango zana IIIIn Felipeen izenarekin, 1.621eko urtean Epaillaren 31n il zana.

-1.580ko urtean Otsaillaren 14an Maria, 1.583ko urtean Dagonillaren 5ean il zana.

*Eta legezko ezkontzatik kanpo:* Gero IIn Feliperen arreba nagusiaren laguntzaille izango zan, Osorioko Isabelegaz euki ebazan maitaketak.

## 2. 35. *II In Feliperen eriotza.*

II In Felipe osasunez, beti izan zan makala, eta gaiso askoakaz bizi zan gizona, asken baten ezueriagaz<sup>(1)</sup> ogeratuta geratu zan, eskuko kiragragaz<sup>(2)</sup> be, idatzi ezinik.

1.598ko urtean Iraillaren 13an goizeko bostetan il zan II In Felipe, 71urte eukazala Eskorialeko lekaretxean.

## 2. 36. *28garrengo Jauna, Bizkaiko Jauntzan.*

1.556ko urtean Urtarrillaren 16an, Gernikako Batzarrak, I Karlosen eskutitza artu ta Gernikako Zuaitzpean irakurri ondoren, izendatu eben II Felipe<sup>(3)</sup> Bizkaiko jaun lez.

Bizkaitarrak ondo konpondu ziran beti II In Felipegaz, baiña Felipe Balladolizeko gortetik kanpo ibiltan zanean, beti agertzen jakun zeozeren bat, Foruen aurka egiten ebana.

1.558ko urtean Iraillaren 30ean, II In Felipe Portugalen egoala, bere gortekoak agertu ziran, Bilboko portu edo kaitik, Flandes, Frantzia, edo ta Italiara urtetan eben artillezko saldu-gaiagaitik, zergak ordaindu bear genduzela ta.

Bizkaitarrak, jazarraldi aundia egin eben, agindu orreik Foruen aurka izanez gain, Gaztelako mugak Bizkaiko itsasoaren ertzera aldatzen ziralako, gauza orreik baiña, ostera joan ziran bere legezko jabe lekura.

Eta 1.581eko urtean, Gatzaren zergakaz bardiñ sortu zan.

II In Felipe Lisboan egoala, beren ministru edo ordezko zerbitzariak, Bizkaiko gatza zergapetu gura eben, eta II In Felipeen ezauntzara eldu zanean, bereala agindu eban Bizkaitik zerga orreik kentzeko.



*1.634-1.635eko urte bitartean*

*Belazkez tar Diegok margoztu eban zaldiz, III In Felipeen irudia*

(1) Ezueriagaz = enfermedad de la gota. (2) Kiragra = enfermedad dela gota en las manos, y podagra de los pies. (3) II In Felipe = 1.527ko urtetik, 1.598ko urterarte bizi zan.

1.590ko urtean Bizkaitarrakin bai erakusten dau beren begirun aundi ta zentzutasuna, Espainiako lurraldea *Servicio de millones'ekin* zergapetu gure ebanean: *Zerga orreik Espainiako errege lez ipini ebazala, ez Bizkaiako Jaun lez* esanda.

Kontu aundian euki ebazan IIIn Felipek Bizkaitarrak, ainbat lan itsasontzi eta abarretan egiten ebazalako Euskalerrian eta erdiugarte onen gaztelar kai guztietatik.

IIIn Felipek, orduko Munduren laterri-geografikoan bere ugaritasunaren borroketarako, Bizkaitar ta Euskaldunetik laguntza aundi ta leiala artzen eban, ondo jakin ebalako edo zuurtasun aundikoa izan zalako, zelako eskubideak eukezan espainiako errege lez eta Bizkaiko Jaun lez.

1.598ko urtean Iraillaren 13an goizeko bostetan il zan IIIn Felipe, eta Bizkaitar Jauntzan bere ondorengoa IIIIn Felipe izan zan lez, bera izendatu eben Bizkaiko 29n jaun lez.

## 2. 37. *IIIIn Felipe, Gaztelako errege.*

1.578ko urtean Jorraillaren 14an jaiotako IIIIn Felipe Asturiaseko printze au.

1.598ko urtean Iraillaren 13ko egunetik aurrera, Gaztela edo Espainia ta Portugalako errege izan zan, bere eriotzerarte.

IIIn Felipe eta Austriako Anaren<sup>(1)</sup> seme ta ondorengoa izan zan.

1.598ko urtean Balentzian, Austria-Estiriako Margarita artxidukezagaz ezkondu zan. Estiriako IIIn Karlos eta Babierako Maria Anaren alabea izan zanarekin, eta orregaitik Maria Ana, I Fernando Alemaniako Kaisarren alabaso edo bir alaba, ta IIIn Felipearen aitite loba zan. Bere erregetzan, zabaldu ziran geien, Espainiako kaisertzaren lurraldeak.

1.618ko urtean IIIIn Felipe onek, margo-erti, antzerti ta eizketeagaz poz bizi zan, erregeen zeregiñak Lermako dukearen eskuetan itzita, gero Uzedako dukeagaitik aldatu ebena, oneri, bere zeregiñetan murriztuta.

1.619ko urtean IIIIn Felipek Portugalera joanda, bere seme IVIn Felipe ondorengo lez artu egien, Portugaletik itzultzen egoala gaixotu zan.

Eta 1.621eko urtean il zan Madrillen, sukar eta disipula edo su-azalegaz<sup>(2)</sup>.

## 2. 38. *IIIIn Felipek euki zituzten izen buruak.*

IIIIn Felipe Jainkoari esker, esaten dabe, edo Jaungoikuaren agindua izan bazan bezela esaten dabena:

Gaztela, Leon, Aragoi, Sizilia biak, Jerusalem, Portugal, Nafarroa, Granada, Toledo, Balenzia, Galicia, Mallorca, Sebilla, Zerdeña, Kordoba, Korzega, Murzia, Jaen, Alarbekoa, Aljezirasekoa, Jibaltarrekoa, Kanariaseko ugarteak, Ekialde eta Mendebaleko Indiak, eta itsas-zabalean aurkitzen ziran Ugarte eta lur zabalaren erregea.

Austriako artxidukea.

Borgoña, Brabante eta Lermako dukea.

Absburgo, Flandes, Tirol eta Bartzelonako kondea.

Eta Bizkaia ta Molinako jauna.

1.599ko urtean Deniako markesa izan zan Sandobaltar Franzisko, ta urte onetan Lermako dukea egin eben eskuetan itzi ebazan IIIIn Felipek, bere erregetzazko zeregiñ guztiak.

(1) Austriako Ana = 1.549-1.580ko urte bitartean bizi zan. (2) Disipula edo suazalegaz = erisipela.

Eta Lermako duke onek ez eban jaurkitzen, zeregiñ orreitan arduraduna zalako, IIIIn Felipek beragaz euki eban uste edo sinismenagaz baizik<sup>(1)</sup>.

Lermako duke onek erregetzazko zeregiñetan, bera aberastuz gaiñ, erri-arteke ba-keak eta erdiugarte onetatik, moruek bota edo atzerriratzten arduratu zan geien.

Erljioaren arduratan Josu Lagunei<sup>(2)</sup>, amaibako lekaretxe egiten lagunduta, IIn Felipe bere errege denboran, ez ebena ondo ikusten.

IIIIn Felipe onen erregetzan, erregearen jaurkintzazkoen alpertasunagaitik, gero ta geiago beartu ebazan gorteak batzartzera, bata bestearen atzean edo edozer gauzatara-ko, sarri batu bear ebazanak.

Diru arloak, nai oso txarto zuzendu ta ganora barik ibili arren, ez eben euki dirua-ren ardura aundirik, Ameriketatik urre-gorri lar ekarten ebelako.

1.599ko urtean IIIIn Felipek, erregetzazko aulkira igon ebanean, Ingalaterrako bo-rrokagaz irauten eban, eta 50 itsasontzi bialdu ebazan Padillatar Martinen agindupean euren aurka, ukalarien itsasbazterrak erasotzeko. 1.595eko urtean IIn Felipek, Kornua-llesegaz bialdu ebazan gudalozteen beste, ia garaipentzen ba ziran.

Azorezko ugarteetara eldu baiño ariñaño baiña, agertu zan ekaitz gogorragaz eze-reztu zan ontzidi aundi ori.

1.601eko urtean IIIIn Felipek, gudaldi bat bialdu eban, Irlandako katolikuak askatu egiezen Ingalaterraren eragipenetik, Kinjsaleko borrokan euren indarrak neurtuta.

1.601eko urtean eta Lermako dukearen eragipenagaitik, Madrilleko gortea bere Balladolizeko etxe ondora eroan eban, berak euken ardura guztiagaz, etxe, jauregui, lur eta Balladolizeko inguru guztietan aurkitzen eban guztia lau txakurgaitik erosten ibilita, Madrilletik etorten ziran gorte edo jaurkintzazko arduradunai saltzeko.

Madrilleko lur, etxe, jauretze ta bizitzeko lekuak utzik geratu ziralako, ostera saiatu zan Madrilleko bizi leku orreik erosten.

1.603ko urtean, I Jacobo Ingalaterrako erregetzaren aulkian ezarri zanean, kide aundi bat lez agertu zan IIIIn Feliperena.

1.604ko urtean Londreseko bakeak sinatu ziran, merkantillezko artu emonak, obetuta.

I Jakobok, ezkondu gura eban bere seme Karlos espainiako erregearen alaba Maria Anarekin, Ingalaterran laguntza asko euki ebena ministru ta diplomazizko kideen artean.

Ingeleseko gorte ta erritarrak oneri, *Espainiaren aldekoak deitu outsoen.*

Eta 1.606ko urtean, bost urte beranduago, barrero gortea Madrillera eroan eban orduan, bera izan zan jaurkintzazko arduradun orreri ostera saldu eutsena bear eban guztia, Lermako duke ori, neurri barik aberastuta.

Ez gara arritu bear Lermako duke onek egiten ebanagaitik, baita titulodun edo izen buruekin eukezan mendeko morroien antzera, edozein basailu-basailuen<sup>(1)</sup> uga-zabak bardiñ egiten ebalako.

I Karlos eta IIn Felipek be, Aita Santuaren baimenarekin, lekaidetxeak eukiten eban erri asko eta gudu-erakundeak saltzen ebazan, diruak batzeko.

(1) Gaztelako erregetzan, XVIIIn gizaldian gizon auek, ontzat emana, onartua, edo ta onetsia, deitzen outsoen = equivalente a valido, autorizado. Len IIn Juanegaz Albaro de Luna izan zan bezela. Eta onek, IIIIn Felipegaz euki eban uste edo sinismenagaz baizik = que éste duke de Lerma no gobernó por nombramiento, sino por la amistad que tenia con Felipe III'ro. (2) Josu Lagunei = jesuitas.



Gaurko lez errigizarteak kontrolatzeko, dan mozkin guztia edo bizitzeko bear zan guztia, Katolikotasunezko batzangotasunaren kaisertza elikatzeko bear zalako, nor-keriaren menpeko lege orretatik, nai errege, erregiña, markez edo tituludunak izan arren, iñork ez zan askatzen edo alboratzen, orretarako asmatu ziran katolikotasunezko arauen eragipenetik, dan guztia eta milla-bider-aldiztuta errixume edo nekazarien lan-lepotan gaiñeratuta.

Asken baten, ezer ez egiteko, katolikotasunezko lege orreik, Jaungoikuak Ludi oneri bereztu eutsoezan legeen aurkakoak diralako.

1.607ko urtean, Ameriketatik ainbat urre-gorri ekarri arren, urte onetako diru arloetan, porrot egin eben, eta erregetzaren diru-etxean, diruaren ordaiñak bete barik geratu ziran.

***Katolikuak orainarte, ipini ebazan ziñezkintza bidetik, itsutasunezko sinezkintzan egonda gaur dakigu, katolikotasunezko kaisertzaren asieratik etorten dala diruaren lapurketa, jaurkintzazko arduradunen aldetik, berezko erriak euren kontrolpean eukiteko.***

Eta 1.609ko urtean, ipini ebazan aitzakiak, moruek erdiugarte onetatik botateko: Badaezpadan, Kristauen katolikotasuna babesteko.

Moruen bildur, itsas-bazterretako kaietan egiten ebazan kalteagaitik, Turko ta berberis-koakaz elkartu ez zitezen.

Erritarren artean, Moruen erri-gorrotoagaitik.

Eta Laterriaren beartasunean, euren diru mordoak kontrolatzeko.

Espainiako IIIn Felipek Flandeseko konderriaren gora beran, bere alaba Isabel Klara Eugenia ta bere senar Alberto artxidukeari emon eutsozanean, baldintza onegaz emon eutsezan, eurok alaba-sume bage ilten ba ziran, lurralde orreik ostera, Gaztelako gortearen ardurapera itzuli bear zirala.

1.609ko urtean, gudako arloan, Iparraldeko Luterano ukalari matxinatuak, eta espainitar katolikoak, ego lurraldearen aldekoetan bardiñ antzeko indarrezkoak izanda, ta alde biak guztiz nekatuta egonda ainbesteko borrokarekin, katolikoaren Alkartasunezko Lurralde sakratuzkoekin ***12 urteko gudu arte bat sinatu eben Alkartuko laterrien ukalariakaz.***

Ekintza onek berez, Olandarrak askatu ebazan, eta Karibe ta Ekialdeko Indiasetik asi ziran zabaltzen.

1.609-1.610eko urtean mauritarrak bota ebazan erdiugarte onetatik.

Eta atzerritasun ori egiteko, 30.000 gudari ibili zituzen, euki ebazan gudarako itsas ontziak erabilia Tunez edo ta Marruekosera eroateko.

300.000 mauritar bialdu ebazan atzerrira gitxi gora bera.

Atzerritartasun auek, Balentzia, Aragoiko ibar, ta Murtziazen ortuetatik egin eben geien.

Asko murriztu ziran langilleak, baita irabazien zergak ordaintzen ebazan ugazabak, eta azukrea ta ugolo, edo arrozaren ortu zabalak, gari, masti ta masust-ondokoa-gaitik ordeztu bear izan ebezan.

Denbora onetan, erriarteko bakeagaitik ezagutzen bazan IIIIn Felipeen erregetza, gudu toki batzuk euki ebazan zabalik otomano turkoakaz, Beneziako errepublikagaz eta Saboyako dukerriagaz, baita itsas-beste aldean Floridako garaipenakaz.

1.610eko urtean Muali Etx Txelik, Laratxeko uria saldu eutsan IIIIn Feliperi, berak bere errege ondorengotasunagaz euki eban arazoetan, emon eutson laguntzagaitik.

Eta 1.610-1.689ko urte bitartean arduratu ziran espainiako gudalozteak uri orregaz, itsas-lapur eta itsas-lasterkarien erasoak kontrolpean eukiteko.

1.610eko urtean, IIIIn Felipeen erregetza Frantziko IVn Enrike buruz, sinatutako bake bategaz asten bada, 1.610eko urte onetan Nafarroako IIIIna eta Frantziko IVn Enrike il eben, Italiako lurraldeetan espainiaren aurkako eraso bat antolatzen egoala. Artegasunezko aldi bat sortuta Frantziko erregetzan.

Nafar-Frantziko IIIIn eta IVn Enrikeen seme XIIIIn Luisek, bederatzi urte bakarrik euki ebazan, eta Mediziseko Mariak bete bear izan ebazan bere errege ordeak.

1.614ko urtean Medizizeko Mariak, espainolaren laguntza eskatu eban, Ugontearen aurka egiteko, eta XIIIIn Luis adiñetara eldu zala aldarrikatu eben.

1.614ko urtean IIIIn Felipe, La Mamoragaz be geratuko zan.

1.615eko urte onetan, 1.598ko urtean IIn Felipek bere asken arnasaldietan Berbiseko bakeak sinatu ebazanean, Gaztela eta Frantziko arremanak sendotu ba ziran, 1.615eko urte onetan indar geiago artuko eban sendotasun onek, Frantziko XIIIIn Luis ta Austriako Ana, eta gero Gaztelako IVn Felipe izango zan erregea, Borboneko Isabel gaz ezkondu ziranean.

1.617ko urtean, Lermako dukea, Lemoseko kondea eta Zazpi Eleizako markezaren lapurkeri ta aberastasunak, geiegi biurtu ziran, naita Lermako dukearen politikazko azken garaipenagaz, Italia, Saboya ta Beneziaren artean, Pabian, bakeak lortu.



1.618-1.648ko urte bitartean eta Hradstxin'eko gazteluan, Fabrizio idazkaria eta zaldunezko edo aundiki batzuk leiotik kanpora bota ebazanean<sup>(1)</sup>, emon jakon asiera borroka oneri, 30 urtearen luzetarako.

30 urteko borroka au Absburgogoko IIn Fernando Alemaniako katolikoaren kaiserra eta Bohemiako Vn Federiko ukalarien gidari artean asi zan. Gero Munduko borroka nagusi baten biurtuko zana, edestilarien esanetan.

Absburgotar IIn Fernando Alemaniako kaiserrak, bere senide Absburgoko IIIIn Felipe espainiako erregeari eskatu eutsen laguntza, IIIIn Felipek Austria eta Babieraren laguntzagaz, eta Vn Federikok, Palatinadoko<sup>(2)</sup> ukalarien aldea, Ingalaterra ta Frantziaren laguntzagaz.

Gaztelako gudalozteak, Austria, Babiera eta Alemaniako printze katolikoaren alkaterekoak bideratzen ebanagaz, Bohemiako ukalarien aurka antolatu ziran, auek Pa-

(1) Leiotik kanpora bota = defenestrar, o arrojarnos desde la ventana de la torre. (2) Palatinado = Alemaniako kaisertzaaren lurraldea zana, eta palatinoko kondeagaitik bideratuta egon zana.

latinadoko laguntza eukinda, Ukalarien alkartasunezko printzeagaitik bideratuta egon ziranaren aurka.

Lermako dukeak oraindiño eragipen aundia euki arren erregeagaz, Pragan, Hradstxin'eko gazteluaren leiotik kanpora bota ebazanean, Fabrizio idazkaria eta zaldunezko edo aundiki batzuk, Lermako dukeak, erregeagaz euki eban artu emonen makaltasuna agertu zan ekintza orregaz, eta Zuñigako Baltasarren eritzia gaindu zan.

Lermako dukea ez zan geldirik egon, oraindiño beren gogoz, erregeak berarekin euki eban leentasunean sinisten ebalako. Aurka euki ebazan asko baiña.

Eta 1.618ko urtean Urrillaren 4an kendu eban erregeak bere ondotik Lermako dukea, San Sixtoko kardinala izendatu ebenean, erregearen serbitzura euki ebazan ardurak, itzi bear izan ebazalako.

Uzedako dukea eta Aliaga aztertzaile edo billakariak be ibili ziran jaurkintzazko lanetan, baiña ez eben euki erregearen eragipenik, eta IIIIn Felipe il zanean, bere seme IVn Felipek, kendu ebazan orren ardurazko lekuetatik.

1.618-1.621eko urte bitartean, Absburgoko IIIn Fernando kaiserrak, laguntza eskatu eutson IIIIn Feliperi, Aleman ukalarien aurka egiteko.

Espainitarrak, Austria ta Babierako katoliko elkartearen printzeagaitik bideratuta egon ziran, alkartutako gudalozte oneik, Sepinolar Anbrosioren agindupean egon ziranak.

Eta Palatinadoagaitik lagunduta egon ziran Boemioko ukalarien aurka borrokatu ziran, auek Ukalarien elkarteko Aleman printzeagaitik bideratuta egon zana.

Gogor borrokatu ziran, eta edestilari batzuk borroka onengaitik esaten dabe, Munduko 1go guda nagusia zala.

1.618ko urtean, Napolezen errege ordearen zeregiña euki eban Osunako dukeak eta Milaneko jaurlari Billafrankako markesak, Italian bideratzen ebazanak politikaren arloak Gaztelako erregetzaren orde, Saboyako dukado eta Beneziako errepublikaren jazargoagaz<sup>(1)</sup> aurkitu ziran.

Eta Bealdeko Errien ta Milanadoaren arteko arremanak lotzeko, Baltelinatik zear beste bide bat zabalduta, Suizan, Beneziako azpikeria sortu zan espainol arduranaren aurka.

1.620ko urtean espainiako gudalozteak, Spinolar Anbrosiogaitik bideratuta, Boemiako Mendi Zuriaren borrokan irabazi eutsoen, Txekitar ukalarien, Tilly ta Tzelaetar Joanek bideratzen ebazan gudalozteai.

1.621eko urtean Epailaren 31ko egunean il zan IIIIn Felipe, bere seme IVn Felipe errege izateko ondoretuta.

Eta 1.621eko urtean, 1.609ko urtearen amabi urte geroago ain zuzen, gaztelarrak ikusita Olandarrak artzen eban zabalkuntza karibe itsasoan eta ekialdeko indiasetik, bai Ingelesakaz euki ebazan alkartasunezko kidetasunagaz, espainiako gudalozteak asiko ziran Bealdeko Erriaren lurraldeak erasotzen, IVn Felipeen erregetzan.

## 2. 39. *IIIIn Felipek euki ebazan alaba-emeak.*

*IIIIn Felipe eta Austria-Estiriatar Margarita erregeñak, zortzi alaba-emeak euki ebazan:*

-1.601eko Iraillaren 22an Maurizia Ana Maria, Frantziako errege XIIIIn Luisen ezkontzako erregeña izan zana, eta 1.666ko urtean Urtarrillaren 20arte bizi zana.

(1) Jazargoagaz aurkitu ziran = se encontraron con la oposición de Saboya y Venecia.

-1.603ko urtean Otsaillaren 1ean, Maria.

-1.605eko urtean Jorraillren 8an, gero IVn Felipe izango zana, eta Borboneko Isabelegaz ezkondu, 1.665eko urtean Iraillaren 17rarte bizi zana.

-1.606ko Dagonillaren 18an jaio zan Maria Ana, IIIIn Fernando Alemaniako Kaisar Sakratuaren kaisar Andrea izanda, 1.646ko urtean Loraillaren 13rarte bizi zana.

-1.607ko urtean Iraillaren 15ean jaio zan Karlos, 1.632ko urtean Uztaillaren 30erarte bizi zana.

-1.609ko urtean Loraillaren 16n edo 1.609-10eko urtearen 24an jaio zan Fernando, errege Semea, kardinalaren bezela ezagutu zana.

-1.610eko urtean Loraillaren 24an jaio zan Margarita.

-1.611ko urtean Iraillaren 22an jaio zan Alfonso.

## 2. 40. *29garrengo Jauna, Bizkaiko Jauntzan.*

1.598ko urtean Iraillaren 13an goizeko bostetan il zan IIIn. Felipe, eta Bizkaitar Jauntzan ondorengoa III Felipe bere semea izan zan.

1.598ko urtean Urrillaren 14an, Bizkaiko Batzar-Nagusia batu zan, eta III Felipek bialdu eban eskutitza irakurrita, il-otoizketak agindu ziran II Felipeen arimagaitik, eta ospakizun guztiak debekatuta. Bizkaitar guztiak illetako-jantziak eroan egiezala urte bateko apean, agindu zan.

1.598ko urtea, izurritearen urtea zalako, ez zan egin ezer Bizkaitar Jaunik aukeartzeko.

1.599ko urtean Epaillaren 30ean Bizkaitarrak batzartu ziran, III Felipe Bizkaitar Jaun lez izendatzeko.

1.598ko urtean baiña, IIIIn Felipe onek Espainiako errege-aulkira igon ebenean, bere zeregiñezko jaurkintzak, guztiz Duke de Lermaren eskuetan itzi ebazalako, berak ezer jakin barik eta beren ministruak ezer aldarrikatu barik, Bizkaira etorri ziran *Servicio de millones* zerga orreik eskuratzen.

Bizkaiko batzarra bere jazarraldian *Zerga orreik eurakaz zer ikusirik ez eukela* esanda, besteak gogorkeriz asi ziran.

Eta Bizkaiko Batzarrak ikusi ondoren, Jaunari bialdutako mezuak ez zirala eltzen bere lekura, batzartzea erabagi eben.

1.601eko urtean Loraillaren 10ean Gernikako Zugazpean batzartuta, IIIIn. Feliperi eskutitz au idatzi eutsoen, eskuz emoteko:

*“Muy alto Padre”*

*Señor:*

*Visto por Nos esta antigua é honrrada Señoria de Vizcaya lo mal que V.M. está informado, por orden del consejo de Castilla, en querernos agraviar y tratar tan mal al descubierto, en recompensa de los muchos y grandes y leales servicios que esta antigua Señoria de V.M., en mandarnos que pagásemos ciertos pechos á derechos como los demás buenos hombres de esos reinos de Castilla pagan; hicimos Junta General de Caballeros é Hijos-dalgo de esta Señoria en nuestra Villa de Gernika, que los reyes antepasados de V.M. nos dieron por nuestros honrrados*

*servicios, ballamos que queriendo usar V.M. de tanta riguridad con nosotros y quebrantar nuestros honrrados Privilegios<sup>(1)</sup> y la autoridad que nuestros honrados padres han tenido: que debiamos de suplicar y pedir humildemente á V.M. sea servido de mandar que se borre, teste y atilde de sus Pragmáticas Reales lo que á nosotros toca, pues es justicia lo que pedimos; y, suplicamos á V.M. no hubiese lugar de hacernos, nosotros quedamos obligados á defender nuestra muy querida y amada Patria, hasta ver quemada y assolada esta Señoria y muertos mujeres é hijos y familia, é buscar quien nos ampare y trate bien.*

Esta lleva D. Pedro de Gamboa, Diputado de esta Señoria, gran servidor de V.M.; no sea èl solo culpado por ello, antes V.M. le haga merced, porque fue importunado para ello.

Dado en nuestra Villa de Gernica en 12 de Mayo de 1.601.

Vuestra antigua y leal Señoria de Vizcaya, que al servicio de V.M. queda.

1.601eko urtean Loraillaren 24an IIIIn Felipek, beste eskutitz bategaz atzerakada egiten dau eta Bizkaitarrai esaten dautse: **nire aurreko erregeak zer egiten eben ikusita, zuekaz nik be alan beteko dot.**

1.602ko urtean Furoai, ziñezko-itza emon eutsen.

## 2. 41. *IVn Felipe, Gaztela edo Espainiako errege.*

1.605eko urtean Jorraillaren 8an Balladolizeko jauretxean Jaio zan IVn Felipe Domingo ta Kurtzeko Biktor au, **Aundia** edo **Izarbel Errege**<sup>(2)</sup> deitu eutsoenai.

1.621eko urtean Epaillaren 31tik beren eriotzeraiño izan zan Gaztela edo espainiako errege.

Eta 1.621eko urtetik, 1.640 urterarte, Portugaleko errege.

Bere 44ko urtearen erregetza, luzeena izango zan, gero etorriko ziran Vn Felipe ta XIIIIn Alfonsorenak izan ezik, naita onen leenengo 16 urteak, ordezko erregetzan zuzenduak izan.

IIIIn Felipe ezkondu zan bere bigarren lengusiñ Austriako artxiduke andre Margaritagaz, euki ebazan zortzi alaba semeetatik, irugarrena zan, eta mutilletatik lenengoa izan zan IV n Felipe au.

Zazpi aste geroago, Balladolizeko San Pablo eleiz-lekaretxean bateatu ebena, IIIIn Felipeen laguna izan zan Lermako dukea aitabitxi edo besoetako-aita izanda.

1.665eko urtean Iraillaren 17an Madrillen il zan IVn Felipe au, sabelberako<sup>(3)</sup> gaixoagaz.

Bere gorputza Eskorialeko lekaidetxean dago illobiratuta.

IVn Felipeen erregetzan leenengoz, Olibareseko kondea Guzmantar Gasparrek bideratzen eban, onek politika gogor bat eginda European, espainiaren nausitasuna ezartzeko.

Eta Olibareseko dukea kendu ebanean, IVn Felipe berak zuzendu eban erregetza, Arotar Luis mendez, Olibaresen loba izan zanakin, eta Dorreseko Medina dukearen laguntzan.

IVn Felipeen erregetza garaipenezkoa izanda, Europako lurraldearen aunditasunezko maillan, Absburgotarren leentasunari begiratzen jakon.

(1)Privilegios = Bizkaitarren artean orduko denboretan itz onek ez dau esan gura, Espainola´ren artean gaur esaten dauana, beren euskal ta berezitasunezko erri ta legeak izan zirala baizik. (2) Izarbele errege = Rey Planeta. (3) Sabelberakoagaz = disentèriko.

Europako ukalariak euki ebazan etenbageko borrokak Frantziko katolikotasunagaz, eta oneik espainolakaz, espainiako erregetza guztiz beartsutu edo txirotu egin ebela, espainitarrak XIVn Frantziko Luis erregearen nausitasuna onartu bear izan eban, baita batera, Portugal, ta Batuko Laterrien askatasunak.



*IVn Felipe Gaztelako edo Espainiako erregea.  
Belazkeztar Diegok margoztuta, eta Ingalaterran,  
Londreseko aberriaren ikusgela dagoena.*

## 2. 42. 1.621-1.643ko urte bitartean, Olibares duke-kondearen txanda.

III In Felipe ilten egoala, erregetzaren jauretzezko azpikeria aundia izan zan, ia nor artzen eban IVn Felipe Asturiaseko printzearen uste osoa.

Lermako dukea izango zan geiago saiatuko zana printzearen uste osoa lortzen, bere suin Lemoseko kondea, ta bere lengusu Borjako Fernandoren laguntzagaz, Lermako dukeak euki ebazan seme bi Uzedako Duke eta Saldañako kondearen aurka, Lermaren seme bi oneik Olibaresen laguntza eukinda.

Baita Lermako duke-konde onek, bere mailla sendotzeko, Zuñigatar Baltasar osabea ipini eban Laterriaren aolkularitzan, jauretzearen politikazko arloetan, eragipenezko ariak, eurak ibiltzeko.

1.621eko urtean IVn Felipek, Olibares duke-konde jauna artu eban bere lagun lez.

Olibaresek bere aldian, berrikuntza batzuk egin ebazan Europaren nagusitasuna lortzeko.

- a) Erritarren bizitza berriztu.
- b) Diru kontuak berotu edo bizkortu.
- d) Erri-diruari bultzakada bat emon.
- e) Eta danon gudalozte bateri, indarra emon.

Olibaresek, Gaztelaren katolikotasunezko legeak gura ebazan ipini ugarterdi oso onetan, dan guztia Gaztelar al-osokerizko erregetzan ezartzeko, lurralde guztiak katolikotasunaren aberkidetzan batzangotutako lege baten bizi gindezan.



## 2. 43. *Olibares eta errigizartearen ekandua.*

Olibaresek, ekaduaren lapurbageko arlo garbietan sartzeko, Uzeda ta Osunako dukeak atxilotu ebazan, Lermako dukeari ondasunak legez kendu, eta Kalderontar Rodrigo epaituz, burua moztu eutson.

Olibaresek, zerrenda edo diruaren bilduma baten bidez, lege barri bat atara eban, erri lanean egon ziranaren ondasunak danak jakin egiezan.

Eta, diruaren berriztasun oneri indarra emoteko, erri-ugaritasunarekin zaletu zan, erri aldak debekatuz ostean, sarrereak zaletzeko.

1.629ko urtean Olibaresek, espainolaren azkuntza bizkortzeko, Madrilleko Erregearen Ikastetxea irasi eban, baita beste iraspen batzuk be, Josu Lagunen eskuetan itzi ebazanak.

Eta emaloikerien etxe ta kaleko ekintza txarrak be saiatu zan, erdiugarte onetatik zuzterkatzeko.

## 2. 44. *Olibares eta Erri-Diruaren berrikuntza.*

Bardintasunezko edo legezko neurrian, banatutako zerga barriak sartu gura ebazan erregetzaren lurralde osoan, erdiugarte onen berezko erriak, aurka agertuz, sarri matxinatuta.

Aundiki edo zaldunak, ez eben gura euren dirutzari alango zergarik ipintea, ez ta bitxikeriarenak be, neurri orreik beti ertsituz<sup>(1)</sup>.

Eta eralgiak<sup>(2)</sup> ugaritu ziranean, porrot egin eban berrikuntza au.

Orregaitik Olibaresek, dirua geien bear izan ebenean:

Juro 'ak<sup>(3)</sup> edo betirako ziran ondasunen txartelak saltzen asi zan.

Maileguz judu-dirulari eta portugesari.

Gortean onartzen ziran zerga barriak.

Eta diruaren ezean, ordaindu ez egiteko maltzurkeriakin ibili zan.

Olibaresek, espainol aberriaren diru-etxe bat sortzen be saiatu zan, salerosketaren ekintzak erreztuteko eta bai erregetzaren ordainketari laguntzeko.

Esku-arte edo diruketa bategaz egiteko, 2.000 dukadosen saritik gora euki ebezanak zergatu ebazan, eta aundiki edo zaldunak aurka geratu ziranean, porrot egin ebezan antolamendu guzti orreik.

Europa guztian igarri zan, IVn Felipeen erregetzazko diru kontuak, atzerakada aundi baten sartu zirala, eta Espainian geiago igarri zan, atzerritarrakin eroaten ebazan artu emonak, oso garestizkoak biurto zirelako.

Ekintza onek, zergak goraldtu ebazan ezin besterarte, Indiasetik etorten ziran metal baliotsuak baituta, erriko lan leku ta juro edo betiko ziran ondasunak salerosketetan ipinita ta txanponak eukiten ebazan urre, zidar, ta tupikiaren eskuzketak egin<sup>(4)</sup>, dirua ia nundik al atara leiken.

(1) Ertsituz = encoger, sitiar, bloquear, obstruir, eta abar. (2) Eralgiak ugaritu ziranean = cuando aumentaron los gastos. (3) Juro = derecho perpetuo de propiedad. (4) Eskuzketak egin = manipulaciones del oro. Plata y cobre que conteian las monedas, para sacar dinero hasta de los sitios más inverisimiles. (5) Lain = aportación de soldadesca de los pueblos, correspondiente a la parte proporcional de sus habitantes.

## 2. 45. *Olibares eta gudalozteen batzangotasuna.*

Olibaresek beartu eban, erdiugarte onetan egon ziran erri ezberdiñen batzangotasuna.

1.629ko urtean orretarako, izkilluaren batasunezko elkarte bat asmatu eban. Lurralde bakoitzari eskatuta, erri lain<sup>(1)</sup> neurriko gudariakaz osotzeko.

Kataluñako gorteak baiña, ezetza emon eutsoen, eta gortearen batzarrak geldituz, bereala asi zan Printzerri orrekin nortasunezko eztabaidetan.

## 2. 46. *Olibaresek, atzerritarrez erabili eban politikea.*

1.618-1.648ko urte bitartean eta 30 urteko borrokan sartuta, Isabel Klara Eujeniak, ondorengo seme alabarik ez ebalako euki, Bealdeko Erriak osterantz ziran espainiako erregetzaren menpera.

1.621eko urtean Lurralde Batuekaz<sup>(2)</sup> egon zan amabi urteko borroka amaituta, asi ziran osterantz eztabaidak.

Olandarrak, bizi bidez euki ebazan merkantil-mozkiñaren aurka asi ziran eztabaida orrek, Europako kai guztietatik.

Eta 1.625eko urtean lur borrokak, Spinolatar Anbrosiok Breda artu eban bezela, beste gudal nagusiak, Uri nagusieri egin eutsoezan ingurutasunakaz.

Olandesak, bereala erantzun eben eraso orreri itsasoz bidetik, Portugesaren Brasileko itsas-bazterretan Pernambuko Rezife artuta.

1.628ko urtean Olandarrak, Heyn Piet itxas-lasterkariaren bidetik, espainolaren Indiaseko ontzidia atrapau eban.

1.634ko urtean II Fernando Alemaniako kaiserraren seme, Fernando kardinalak, Alemaniako Nördlinjen zelaletan, sueko ta ukalariak astindu ederra emon eutsezan.

1.635eko urtean, Olandako lurraldeak erasotu ebazan, guda oneik amaitzeko asmoekin, bertan geratu ziranak, Frantziakin asi ebelako etenbageko beste borroka bat.

1.639ko urtean Olibaresek, Ingalaterraren Kent´eko itsas-ertzean, Olandarraren aurka Dunas´eko ontzidi taldekoaren guda galdua, Flandesera bialtzeko indarrak galdu ebazan, eta espainitarrai gatz biurtu jakien, Beko Erriaren mendetasuna.

### *Ingalaterrakin.*

I Karlos Ingalaterrako erregetzara igon eben orduan, bereala asi ziran eztabaidak espainol ta ingelesaren artean.

1.625eko urtean Ingalaterrako ontzidi talde batek, Kadiz erasotu eban, Ingelesaren porrot aundi baten amaitu zana.

Utsegilleko eragin orrek Olandarrari baiña, beste lagun bat agertu jakon espainolaren aurka, eta espainolari amaitu jakien Europara urteteta Kantauriko itsas bidetik.

1.655eko urtean, eta merkantillezko aurkaritza orreik Indiaseko Mendebaletan, guda sortu eban Ingalaterra ta espainiako gudalozteak alkartuz, Komonwealth<sup>(3)</sup> Ingelesaren aurka, Kromwelltar Oliberreren babesgo edo zaindaritzan<sup>(4)</sup>.

(1) Lain = aportación de soldadesca de los pueblos, correspondiente a la parte proporcional de sus habitantes. (2) Lurralde Batuekaz = nombre que adoptó la actual Holanda, cuando las 7 provincias de las Países Bajos formaron la Unión de Utrext, y proclamaron su independencia. (3) Komonwealth = sistema de organización política, cuyo poder supremo reside en el pueblo. (4) Zaindaritzan = protectorado o cargo de protector por parte de la soberanía de un estado.

### *Frantziarekin.*

Frantziako XIIIen Luis erregearen leen ministrua izan zan Ritxeliu kardinalak, eta euren lurraldeko mugetan, Absburgotarren mugak euki ebazalako urdurik, politikaren aurkako joka bide bat asi eban espainiako erregetzagaz.

Eta 1.635eko urtean, Aleman kaisertzak lortzen ebazan garaipen bidetik, Ritxeliu kardinalari, ukalarietak alkar jokatzeari beartu eutsen, espainolari guda aurkeztuta.

1.635eko urtean eta Alemaniako kaisar gudaletxearen laguntzagaz, espainolak, Amiensetik amazapi kilometrorra dauan Korbierreko zelaietan irabazi eutsoen Frantziako gudaletxei.

1.636ko urtean, IVen Felipeen anai Fernando kardinala, Pariseko ateetan egon zan bere gudaletxeak, atzeratu zan baiña, indar geiagorik ez ebalako euki.

Frantzearen aurk-ekintza gogorra izan zan, eta Italiako Iparraldean lortu eben meatxatzea, Flandes eta Italiako bidea ebagitea, eta Añamendietara euren gudaletxeak bialtzea.

1.639ko urtean espainolak, Frantziaren ego aldean Langedok, Añamendi eta Lurrarteko itsasoaren bitartean, Rosellon´eko lurraldeetan dauan Salses´eko gaztelua galdu eben.

### *1.640ko urtean eta Olibaresen denboran, Espainian sortu zan arrisku aldia.*

Gaztelatarrak, ainbeste diru bear zalako borroketarako, eta bera bakarrik ordaintzen gogai, ezetzazko borondatean asi ziran biurtzen.

Olibaresen orregaitik, Gaztelatarrari eskatzen eutsoezan neurrian, beste erregetzari eskatu ostean, eskari orren ezberdintasunak kentzeko asi ebazan antolak, eta ekintzazko antolaketa orreitan dabilleta, aurka urten eutsoen Kataluña, Portugal eta Andaluziak.

### *Kataluña.*

1.626ko urtean eta izkilluen batzangotasuna beartu gure ebanean, urten eutson Olibareseri Kataluñaren aurkaritza, erri orrek beste nortasun batekoa izanda, ulermenean ezinezkoa zalako.

Frantziagaz euki ebazan orduko borrokak, entrabalotu edo guztiz galazitu<sup>(1)</sup> egin ebazan, Katalan Zientoko Aolkularitza ta Katalanen orokortasuneko ulertzak, espainiko laterri<sup>(2)</sup> edo Olibaresen agintaritzagaz.

Rosellonen aurka joan ziran Italia eta Gaztelako gudariak Kataluñatik sartuta, itzelezko kalteak egin ebazan nakazari lurraldetan, menpetasuneko gudaletxeen antzera ibili ziralako.

1.640ko urtean Bagillaren 7an Kataluñan, ustekabe asko sortu ziran Bestaberri egunean<sup>(3)</sup>, Printzerri guztitik agertuta 400-500 badaezbadago<sup>(4)</sup> segalari Bartzelonan sartu ziran.

Geiago, Segalari orreik arrazoi bidez matxinatuta, amairu gizaki ilda, artean, erregearen ordezkoa zan, Santa Koloma. Odolezko Bestaberria deitu jakon egun orreri.

Kataluñaren Orokortzeko lendakaria izan zan Klaris´tar Pau´k, baketzu agertu zan, matxintasuneko egoera, euren ardurazko eskuetatik alde eginda, kontrolbagekoa biurtu leikelako, bai bildur be, espainol erregeen gudaletxei.

(1) Galazi = dificultar. (2) Espainiako Laterri = Estado. Que en aquel tiempo no se le podia considerar como el estado que hoy nos presentan, porque aún no se habian presentado la constitución Española que elaboraron los jefes del ejército en Kadiz. (3) Bestaberri egunean = el dia del Korpus. (4) Badaezbadago segalai = segadores eventuales.

1.640ko urtean Bagillaren 11n, lortu eben matxinatuko segalari orreik, Bartzelona uritik ataratea.

1.640eko urtean eta Iraillaren illean, gero ta eten barik, ainbat zentzunbageko arrazoi erakutsita espainiko arduradunen aldetik, Kataluñaren Orokorrezko erakundearen arduradunak gogaituta, espainiako erregetzagaz apurtu ebazan euki zituzen egiuneak, Frantziak bialdutako arduradun Besanzontar Du Plessis´ekin asita, bear ebezan arremanak.

1.641eko Urtarrillan Kataluñako Orokorrezko erakundearen lendakaria zanak, Klaris´tar Pau´k, Kataluñako Errepublikaren askatasuna aldarrikatu eban, eta jakinda espainolaren gudalozteak, Kataluñaren egoaldetik sartzen egon zirala, Frantziako XIII In Luis erregearen eskuetara aldatu eben Katalanaren Printzerria.

1.641eko urtean Urtarrillaren 26an Montjuik´eko borrokan, Belezeko Markesa espainitar gudaloztearen gidaria, menperatu eben katalanak.

*Eta eztabaida onen konpoketa, luze ikusten zan katalanentzat, ia bertako garaipenetik.*

*Aragoien, Ijar´eko dukearen azpikeria.*

Olibareseko dukearen baragarrizko politikeari, Kataluñaren askatasunezko arrisku edo estutasunez gain, naita aiñ garrantzizkoa ez izan arren, Aragoien sortu zan eztabaida gogorra be izan zan.

Espainolak Aragoiko erritarrai ipini eutzezan zergagaitik, Aragoiko aundikiak alde egin gura eben Gaztelako erregetzaren menpetik, euren errege, Aragoiko errege Ijar´eko dukea izendatuta.

Gaztelako gudalozteak bakeztu eben matxintasun ori, ta ez eben eriotzezko zigortasunean Ijar´eko dukea ipini, matxintasun orrek ardura aundirik ez ebalako euki.

Dukea, bere agintaritzazko lurraldeetan zigortuz, Aragoiko gorteetara joan ez zediño.

*Portugalegaz sortu ziran arazoak.*

Olandan Alkartutako zazpi lurraldearen eztabaidak ostera agertu ziranean, Portugalek, Asia ta Brasil´en euki ebazan maizter lurraz(1) ondoretu ziran(2).

1.640ko urtearen Abenduaren aurretik, portugesak, olandarrak bialdu ebezan Angola ta Brasiletik.

Gero Portugalen, zaldun edo aundikiak matxinatuta, Braganzako dukea izendatu eben errege IVn Juanen izenagaz, onek Olandesarekin bakeak sinatuta.

1.656ko urtean, Frantzez ta Ingelesaren laguntza artu eban Portugalek, eta guda sortu eben espainolakin, Portugesaren Berrezkuntzarako Guda deituko zanagaz, Olibareseko dukea beartuz, gudu-toki askoetan borrokatu zedin.

1.659ko urtean IVn Felipek, Auñamendiko elkargoa sinatu eban, bere gudalozteko indar guztiak batzeko asmoz, Portugaleko matxin-zale errege ori menperatzeko.

Kataluña ta Napoleseko erregetza berrezkuratzuz, espainitarrak emendik aurrera, bakez egon ziran Frantzia, Ingalaterra eta Bealdeko Erriakaz.

Portugal bakarrik geratu jakien, askatasunezko larri aldi orreitan, espainitarrak euki ebezan indar guztiak arazo orreitarara bideratuta.

(1) Maizter lurraz = tierras colonizadas por Portugal. (2) Ondoretu ziran = repercutieron en Asia y Brasil.

Eta orretarako: zergak goraldu ziran ezin besterarte; dirua merketu zan; eta Italia ta Flandeseko terziozko gudalozte zarrak<sup>(1)</sup> ekarri ebazan Portugaleko mugaldera zabaltzeko.

28 urte iraun eban zital ta odoljariozko borroka au, espainitarrak porrot eginda:

1.644ko urtean Montijoko borrokan.

1.659ko urtean Portugalen Elbaseko<sup>(2)</sup> zelaietetan.

1.663ko urtean Ameixialeko borrokan.

1.664ko urtean Kastelo Rodrigoko borrokan.

Eta 1.665ko urtean, Billabiziosako borrokan.

**1.641eko urtean, Andaluziak euki eban askatasunezko azpikeria.**

1.641eko urtean Medina Sidoniako dukea ta Ayamonteko markesak Portugaleko erregeen laguntzagaz, zaldun edo espainiako aundikien artean oso azarre egon zirala ikusis, azpi joko bat asi eben erregearen aurka, Andaluzia espainiatik askatu gure ebanagaz.

Eta Andaluziako erria, bere edestian euren arteko menpeko jaurkintzan beti, ez zalako askatasunaren zalekotasuneskoa izan, ezereztu zan matxintasan ori.

**Olibares, agintaritzatik kentzea.**

1.643ko urtean Urtarrillaren 23ko eguna baiño ariñoago, Kataluñari IVn Felipe berak egin eutson erasoan, Leridan porrot egin eban.

Eta erregea Madrillera eldu zanean, Olibares duke kondea, bere agintaritzazko arduratik kendu eban, Olibareseri erbesteratzeko aginduta.

Olibaresek, bere beartutako batzangotasun asmoekin gaur lez, espainiako batzangotasun ori, ia apurtzea lortu eban, Gaztela edo espainiako erregetza aurrerantzean, erregetzazko elkartasan baten antzera jaurkituz. Naita IVn Felipek, bere espaini guztien erregezko izen buru ori, txarto ibili, Portugal, Euskalerrria, Kataluña ta Galizia be, or barruan sartzen ebazalako.

Eta era ortan geratu zan mugatuta, espainitarren guzurrezko izen ori.

Erri baktzaren nortasuna ortik aurrera, Foru Barri<sup>(3)</sup> itz barri orren izenean, begirun aundiagoagaz eroango zan.

**1.659-1.665ko urte bitartean, IVn Felipek, bere eskutik eroan eban jaurpidetza.**

IVn Felipek, Olibares kenduta, bera ausartu zan Gaztela edo espainiako erregetzaren jaurkintza eroaten.

Orretarako, Olibaresen loba izan zan Aroko Mendeztar Luis, artu eban leenengo ministru edo bere jaurkintzazko agintari lez.

Bere burutakizunean, barruko eztabaidakaz amaitzea, eta Europan, bakea lortzea zalako.

**Barru edo etxeko política lez.**

Kataluña ta Portugaleko matxintasunak iraun eben, Aragoitarrak be eritzi orreitara aldatuta.

(1)Terziozko gudalozte zarrak = tercios viejos, a los que consideraban invencibles. (2) En portugal, cerca da frontera española en la batalla de las Lineas de Elvas = Elbaseko borrokan. (3) Foru Barrien = neoforalismo, itz barriagaz. Para un trato exquisito de los fueros.

1.647ko urtean, janari ezean Napolestarrak matxinatu ziran, Siziliako ugarteraiño eldu zana, naita matxintasunezko gizon-emakume orreik, euren erri agintariagaitik bakeztu.

1.652ko urterarte luzatu zan Kataluñaren borroka, amabost illabete eraso ondo-  
ren IVn Felipek Bartzelonan sartuta.

1.652ko urte onetan ogiaren eza, diruen aldak, zergaren igokerak, eta gudarako mutillen bilketakaz gogaituta, Andaluziako urietatik asi ziran matxinatzen.

### ***Atzerritarrezko politikan.***

1.643ko urtean, Olibares kendu ebenetik, astindu aundia artu eben frantzezaren aldetik Rokroi borrokan, espainitarren tertzioko gudaosteak.

IVn Felipek Westfaliano egiunetik, Olandarren zazpi lurralde batuaren askatasuna onartu bear izan eban, naita Flandesegaz geratu.

IVn Felipek, Frantziagaz borrokan iraun bear izan eban, Flandes, Franko konde-  
ria, eta Rosellonegaz euki ebazan eztabaidagaitik.

Eta 1.656ko urtean Frantzian, anai arteko guda sortu zan lez, Olandagaz bakeak sinatu ziranean, alde bietako guda-lozteak neurritz parekatu ziran, eta espainiolak Balenzieznese-  
ko zelaitetan irabazi eutsoen frantzezari.

1.657ko urtean Frantzia eta Ingalaterrak egin eben alkar izketetan, Flandes, bien artean banatzea erabagi eben, eraso aundietan asita espiniako erregetzarekin.

1.659ko urtearen orduko, espainolaren diruen gora-berak, oso makalak ziran, eta Ingeles ta Frantzezakin Dunkerken galdu eben gudaldiagaz frantzezak, espainolai, Auñamendiko bakeak ziñatzen beartu eutsoen, Rosellon, Zerdeñaren erdia, Artois eta bere ego aldean egon ziran beste lurralde batzuk izten beartuta espainolari. Baita, IVn Felipeen alaba Austriako Maria Teresa, Frantziko XIVn Luisekin ezkondu zediñ, 500.000 eskutuaren ezkon sariagaz.

Ekintza orrekaz, Frantzia garaipenduko zan espainolaren gaiñetik, Kateau-Kam-  
bresiseko egiunaren, eun urte geroago.

1.665eko urtean, espainolak, aurrera eroan eben portugesakin euki ebazan borrokak, eta Portugesak VIn Alfonsok bideratuta, Billabiziosan espainolari irabazi eutsoen borro-  
kagaz, amaitu ziran espainolaren itxaropenak, Portugaleko erregetzagaz geratzeko.

Naita, espainol katolikotasunezko aberkoi kaisertza aundi ori egiteko erabagiagaz, aurrera eginda.

### ***IVn Felipeen eriotza.***

1.665eko urtean Iraillaren 17ko egunaren baiño ariñago, illaren asieran txarto agertu zan erregea, kaka egiteran, odolezko ondarrak egiten ebazalako, eta orren esan naia, sabeleko gaitzaldi edo gaixotasuna artu ebalan zan. Egun onetan il zan.

Eskorialeko lekaretxean illobiratu eben.

## **2. 47. *IVn Felipek, izan ebazan alaba-semeak.***

1.615eko urtean IVn Felipe, Frantzia ta Nafarroako errege IVn Enrikeren alabe-  
gaz 6 urte euki ebazanetik emaztegai lez, Borbontar Isabellekin ezkondu, zazpi alaba  
seme euki zituzen, guztietatik bi bakarrik elduta gizarozko adiñetara:



-1.621eko urtean Dagonillaren 14an Maria Margarita.

-1.623ko urtean Azaroaren 25etik, 1.623ko urtean Abenduaren 29rarte bizi zan Margarita Maria Katalina.

-1.625eko urtean Azaroaren 21ean jaio, eta 1.627ko urtean il zan Maria Eugenia.

-1.627ko urtean Isabel Maria Teresa.

-1.629ko urtean Urrillaren 17tik, 1.636ko urtean 9ren egunerarte bizi zan Asturiaseko printze Baltasar Karlos.

-1.635ko urtean Urtarrillaren 17tik, 1.636ko urtean Abenduko 6rarte bizi zan Maria Ana Antonia.

-1.638ko urtean Maria Teresa, 1.660ko urtean Frantziko XVIIn Luisegaz ezkonduko zana.

### ***Bere bigarren ezkontzatik.***

1.644ko urtean bere emazte Borbotar Isabel il zanetik, 1.647ko urtean osteran antolatu eutsoen beste ezkontza bat, espainiako Maria Ana eta Alemaniako kaisar Absburgotar IIIIn Fernandoren alabarekin.

***1.649ko urtean Nabalkarneron ezkondu zan, bere loba Austriako Marianarekin, eta ezkontza onetatik bost alaba seme euki zituzen:***

-1.651ko urtean Uztaillaren 12an Margarita, 1.666ko urtean Jorraillaren 25ean, Alemaniako kaisar I Leopoldorekin ezkondu zana, eta 1.673ko urtean Epaillaren 12an il.

-1.665ko urtean Abenduaren 7an jaio, eta 1.665ko urtean Abenduaren 20ko ille bitartean bizi zan Sorkundeko Maria Ambrosia.

-1.657ko urtetik, 1.661eko urterarte bizi zan Felipe Prospero Asturiaseko printzea.

-1.658ko urtetik, 1.659ko urterarte bizi zan Fernando Tomas Karlos.

-Eta 1.661eko urtetik, 1.700ko urteraño bizi zan IIIn Karlos Espainiako erregea.

### ***Eta ezkontatik kanpo, euki zituzen alaba semeak.***

Edesti barruan IVn Feliperi zenbatzen dautsoez 30 alaba seme inguru euki ebazala, eurretatik bi bakarrik onartu ebazanak, eta bietatik bat, bere eriotzaren ostetik.

### ***2. 48. 30gn Jauna, Bizkaiko Jauntzan.***

IVn. Felipek, egun berean idatzi eutsen Bizkaitarra IIIIn Feliperen eriotzea, bertan aginduta betiko elizkariak eta Jaun barriaren ikurriña goratu egiezan.

1.621eko urtean Jorraillaren 20an Bizkaitarrak Gernikan batzartuta, irakurri eben eskutitz ori, eta elizkizunak ta doluak egiteko aginduta, orduan erregearen zuzendari izan zana Puentetar Agüero bialdu eben erregearengana dolumiñak emiten, eta Fue-roaren baietza eskatzen, bera ez bazan Bizkaira etorten.

1.621eko urtean Dagonillaren 16an, IVn Felipek bialdu eben eskutitzan, Fueroak baietzu ebazan, eta Gernikako Batzar-Orokorrean, Kontrerastar Pedro etxeko legeen arduradunak irakurrita, Fueroaren liburuan irarritzeko agindu zan.

Baiña errege onek, beren aita IIIIn Felipek egin eben antzera, bere jaurkintzazko zeregiñak Konde Duke de Olibaresen eskuetan itzi ebazan, eta osteran azten dira Foruen aurkako ekintzak, gatzari zergak ipini gurean.

Olibaresek ez eban gura jakin, guk, gure Foruko-Legediaren jabetasuna euki gendula, eta bere gogamenean espainiako lurraldearen berdintasuna gura eban lez, Euskaldunaren aurka jokatzeko asi zan.

Euskalerriko kaleetan ikaragarritzko borrokak egin ziran, eta ez gutxiago Bizkaiko Lege Biltzarrak erregeari bialdu eutson eskutitzan, guda-zibillaren keiñuagaz:

*“Que el monarca no tenia ni fuerza ni poder para conquistar Vizcaya, respeto de que, aunque fueran gruesos ejércitos de mar y tierra, la naturaleza de ella era tal, que todos habian de perecer, como les habia sucedido a todos los reyes que habian enviado armas contra ella”.*

Aberri baten baiña, beti egoten dira judas edo saltzailleak, eta oraingokoa, “Erregeak, Zitudad Realeko Dukearen aundiki izenagaz goraldubeben, Alonso de Idiaketzar Juan zalduna izan zan”.

1.634ko urtean Loraillaren 24an Larritasunak bakeztu ondoren, errukarien atzetik asi zana, borrokaren aintzindariak ziranak espetxean sartuta: *Morga eta Sarabia litzentziduna, de la Puente eta Urtusaustegitar Juan, eta Otxoa ta Ojarabidetar Martin Señoriokoak, espetxean bertan garrote bilean il ebazanak.*

Beste irurak: *“Larrabaster eta Amuñarritar Juan eta Domingo anaiak, erriko enparantzian, gargailez ito edo urkatu ebazanak”.*

Lasa eta Apalategitar Josek bere liburu *“El pueblo vasco, democracia testigo de Europa”*n esaten dauan lez: *“Euren gorputzak eustuta egongo dira illobian, baiña euren izpirituzko arimak, gure artean bizi-bizirik”.*

Eta Olibaresen ezagutzara ain gordiñik eldu ziranean jabetasunetzko jakintza orreik, espainiaren laterritzko aolkularitzan bera nagusia izanda, eta goi-maillako arrazoiak erabilia, gure jabetasunak babestu ebezan: *“Berak egiten ebana, sinisbetean egiten ebala aitortuta”.*

***Gure jabetasunetzko eskubideak, gureak bakarrik izan zirelako.***

1.665eko urtean Iraillaren 17an goizeko 4<sup>1</sup>/<sub>2</sub>etan il zan IVn. Felipe Bizkaitar jauna.

Bere emazte Austriako Marianari itzita errege ta Bizkaiko jauntzaren jaurkintza, areik eta bere seme II Karlosek, eskubidearen adiñetara eldu arte.

1.665eko Iraillaren 26an, Austriako Marianak bialdu eutson Bizkaitar Batzarrari betiko eskutitza, oiturazko elizkizunak eta Jaun barriaren ikurrak goratu gengizan.

1.665eko urtean Azaroaren 17an Bizkaitarrak batzartu ziran, aukera orreitan bialtzen eben oiturazko eskutitza irakurteko.

Eta 1.665eko urtean Azaroaren 18an Kastrilloko Kondea ordezkari izenduta ondoren, Bizkaiko Batzarrak, lan egiala agindu eutsoen, Arabarrak, Lodioko ibarragaz eztaibadako epaiketetan beti egon arren, Bizkaitar jauntzan beti lez, geratu zedin.

Eta II In Karlos izendatu eben Bizkaiko Jaun, Orokorrezko Batzarraren XII In Liburuan, erabagi ori agertzen dan lez.

Argi ikustenda emen be, Euskalerriak Bizkaiko askatasunean euki ebezan jabetasunak menderatu gure ebazala.

Ikusita baiña, Bizkaitarren borondatezko laguntza barik, euren asmakizunezko kaizertzan kalte asko egingo ebala, atzeratu egin ziran.

Gaur uste dabe, mende orreik lortzeko, egokitasunezko denboretara eldu dirala, eta orixe dabiz alegin guztiagaz.

Era asko aldatu dira gaurko egunetan, baiña Arana ta Goiritar Sabinoren arbasoetatik asi ta, ez dira konturatzen, Euskalerrriak, Jainkoaren lege bidetik, bizi oneri euskerazko demokrazian emon eutson adierazpen ederrenagaz *“nortatasunaren askatasunean lortu ebazan sinismenak, ez dirala aienatzen”* euskaldunen baita dalako, eta orregaitik itzi ezinezkoa, Euskalerrriaren izaerazko bizitzari.

Erri baten aurka mende orreik lortzeko, erri orrek *nortasuna* galdu bear dau.

Konturatuten zarete gaur, ze alegiñak egiten dabezan: *“Itxaso ta itsas-bazterreko mugakaz, atzerritarrakaz langintzan daukaguzan arazoak, eurak sartzen direlako gure salerosteko gauzatan, gure jokoakaz, Aur-ikasketetan, ikastola, Ikastaro Nagusi, Ekonomi, Jaurkintzan, Oiturazko arloetan eta abar”*. Euren norkerien gaiñetik, gure nortasunezko ekintzarik, agertu ez zedin ?.

Ordua da **EUSKALERRIAREN** gizarteak jakin dagian, zelako lokatzetan sartuta gagozan, eta nundik agertzen jakuzan menderatzail eraso aldiak, menparatzailletasunezko egoera orretatik urten, eta Euskal askatasunean, benetako Demokraziskoak izanda, bizi gindezan.

## 2. 49. *Oar txiki bat emen.*

Emen amaitzen da seigarren onen idaz lana, ondorio lez ezer ipini barik, zazpigarren aleko aurkezpenean joango dalako ondo zeaztuta.

Jaungoikuaren laguntzagaz, laster izando dana.

**Atutxa´tar Paul**

*Zornotzan, 2.016´ko Otsailaren 29an.*





Euskeraren Erri Akademia  
Academia Popular de la Lengua Vasca  
L'Academie Populaire de la Langue Basque

---

e-mail: [aeuskerazaintza@gmail.com](mailto:aeuskerazaintza@gmail.com)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)